goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2010-11-19
EGUBAKOITZA
443 ZENBAKIA
10. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

50 urte Bergarako bandan

Jose Mari Gonzalez eta Jose Mari Arrondo omenduko dituzte domekan | 18

Bihar, zapatua, estreinatuko dute arrasatearrek 'La Gran Vía' zarzuela | 15

DANBAKA
DEBAGOIENEKO 1. MUSIKA LEHIAKETA

Gaur, barikua, 22:30ean, Espaloian: Doctors Klub, Rombos Negros, Karpovian Projekt eta Ez! | 32

Olioa batzeko edukiontzi zerbitzua bailara osoan egongo da urtarrilerako

Etxeko olioa edukiontzien bidez batzeko zerbitzua Debagoien osora zabalduko da. Zerbitzua orain arte Arrasaten eman duen enpresak emango du gainerako herrietan ere, Eko3Rk. Urtarrilerako martxan egongo da eta 32 edukiontzi jarriko dituzte. | 5

Beti-Busti urteurrena ospatzen

Bergarako piraguismo taldeak 25 urte betetzen ditu eta bihar egingo duten kayak festarekin hasiko dira ospatzen l | 29

MONIKA BELASTEGI

"Ondarearen aurkako atentatua egin dute Iruña-Veleian"

Roslyn M. Frank
Hizkuntzalaria | 8

Arrazoia eman dio epaileak Eskoriatzako Patronatuari

Bidezkotzat jo du zaharren egoitzako burua kaleratzea | 24

Martxoan hasi nahi dute atez atekoa Antzuolan

Hastear da sistema berria gizarteratzeko kanpaina | 25

ASTEKO GAIA 2-3 | DEBAGOIENA 4-5 | IRITZIA 6 | GUTUNAK 7 | HERRIAK 11-27 | KIROLA 28-29 | KULTURA 33 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKELAK 37 | EZKONTZAK 37 | NON-ZER 38

iKER
SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
FAGOR

Algodonerako langileak, 40ko hamarkadako argazki baten; baliteke inaugurazio egunekoa izatea. | BERGARAKO UDAL ARTXIBOA / TORIBIO JAUREGI FONDOA / TORIBIO JAUREGI

Mende eta erdiren ostean, eten da ehungintzaren soka

- Tavex zen Bergarako ehungintzatik geratzen zen azkeneko arrastoa
- Bere urte onenetan, 2.000 bat langile izan zituen sektore horrek

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Bergaran ehungintzaren industriaren aztarna batzuk bazeuden XV. mendean, Espainiako Errege-Erregina Katolikoek sinatutako ordenantza batzuetan "Bergarako oihal -egileak" aipatzen zirelako. Bada, hainbeste mende iraun duen tradizio batek ezin izan du tinko jarraitu XXI. mende honetako krisi ekonomikoaren, globalizazioaren eta deslokalizazioaren aurka. Herrian geratzen zen sektoreko lantegi bakarra, Tavex, ixtea erabaki dute oraingo ugazabek, Brasilgo Santista multinazionalak. Aro luze baten amaiera da.

Goraldia, ordea, luzea izan zen, Bergarari ospea ematerainoko. XV. mendeko oihal-egile xume haietatik 1846. urtera jo behar dugu, urtarrilaren 23ra, hain zuzen, egun hartan sortu baitzen Fábrica de Hilados y Tejidos de Vergara izeneko elkartea, bi milioiko hasierako kapitalarekin. Hura izango zen gerora, 1904. urtea ezkero, Algodonera izenez ezagutu izan dena. Sortzaileak ziren bi frantses, Silva eta Frois, eta huescatar bat, Blanc. Orduko bitxikeria batzuk ailegatu zaizkigu: adibidez, ordukoak dira Xenpelarren bertso batzuk, ustez, lantegiak egiten zebiltzanean abesten zirenak: *Asten danean fabrika / Lenengo nere tunika*…

Bestetik, dokumentatuta dago Bergarara teknikari frantsesak etorri zirela, eta ordukoak dira Bergarako hizkeran geratu diren hitz batzuk: adibidez, txantilloia, frantseseko *échantillon* hitzaren egokitzapena; eta eskerrak emateko *mertxi* esateko ohitura.

Ez dago guztiz argi zergatik aukeratu zuten Bergara sortzaileek; XIX. mende erdialdean, 4.500 biztanle zituen, Bilbo, Gasteiz edo Donostia baten 12.000 edo 15.000 biztanleetatik oso urruti. Gainera, Kataluniako ehungintza dagoeneko indartsu zebilen.

Historialari batzuen esanetan, Bergararen alde egin zuten mugarekin zein Espainiako erdialdearekin ondo komunikatuta egoteak, eta Deba ibaiaren ondoan lursail libreak egoteak; ur horiek beharrezkoak ziren energia sortzeko, eta sortzen joan ziren lantegi berriak ere ibaiaren ondoan eraiki ziren. Esaten zenez, Deba ibaia indartsuago jaisten zen Bergaran, eta Arrasaten, adibidez, ez zen hori kasua. Dena dela, arrazoi garbi-garbirik ez dago; badirudi garaian, garapen industrialaren hasieran hartutako erabaki estrategikoa izan zela.

DATUA

164

URTE

Mende erditik gora iraun du Bergarako ehungintzaren historiak; lehenengo lantegia 1846ko urtarrilean sortu zuten.

Gerra ostean, goraldia

XX. mende hasieran, Euskal Herrian industria indarrez garatzen hasi zenean, beste hainbat lantegi sortu ziren, tamaina askotakoak; eta horien menpe jarduten zuten tailer, tindategi edo errota asko zeuden. 1850ean, Algodonerak 300 langile zituen. Garrantzitsuenen artean egongo zen beste lantegi bat, Gregorio Fernández y Sobrino –1964az geroztik, Movilla SA– ere zutik zegoen ordurako, 1897an sortua, eta mende hasieran ezarri zen ere Narvaiza e Hijos.

I. Mundu Gerrak indar berria eman zion industriari. 1915erako, Bergaran 17 industria establezimendu zeuden, eta denetara 1.030 langile zituzten. Horietako asko emakumeak ziren; Lorentzo Laskurain ehungintzako langile izandakoaren esanetan, "Bergaran, emakumeendako lana beste inon ez bezala zegoen", emakume gehienek egiteko modukoa. Antonio Irazola erretiratuak esaten duenez, "zamarik ez zen jaso behar, eta gainera, esaten zuten emakumeen eskuak malguagoak-edo zirela". Bergaratik kanpo, neskame joatea izaten zen emakumeendako enplegu aukera bakarra.

Espainiako Gerrak bultzada eman zion ehungintzari. 70eko hamarkadan, sektore horrek jarraitzen zuen Bergarako ekonomiaren motore handienetariko bat izaten, baina metalgintzak gero eta garrantzi handiagoa zuen; 60-70eko hamarkadetan hasi zen goitik behera etortzen.

90eko hamarkadan, Tavesa, Hansa edo Algodonera jardunean zebiltzan, 150 langile ingururekin bakoitza. Algodonera erosi zuten, eta han integratu ziren Bergaran geratzen ziren gainerako ehungintza enpresak, Textil Narbaiza eta Movilla SA izan ezik. Movilla 2003an itxi zuten, eta Narbaiza, 2004an. Ordurako, askotariko tamainako lantegi itxita zeuden, Lorentzo Laskurain ehungintzako langile ohiak gogoratzen duen moduan: Jose Zabala, Felipe Setien, Urdinola, Pedro Urtaza, Vicente Aranzabal, Oregui y Cía, Vergara Textil, Textil Lasagabaster…

Tavex 1989ko maiatzean sortu zen izen horrekin; Narbaiza eta Movilla ez beste enpresa guztiak hartzen zituen.

Azken urteotan, Tavex multinazional baten –Santista, Brasilgoa– filial bat izan da bakarrik, eta 64 langilerekin bukatuko du bere jarduna.

Euskal Herrian ez ezik, kanpoan ere ezaguna zen Tavex, *denim* edo ehun bakeroz egindako arropen akaberak egiten zituelako.

Etorkizunarekin kezkatuta

Udal ordezkari gisa ere, jakina, askok ezagutu dute Bergarako ehungintzaren egitura. Victoriano Gallastegi alkate ohiak penaz hartu du azken albistea, baina ez harriduraz: "Tavexen egoera aspalditik ezagutzen genuen. Udalaren bidez, urte batzuk eustea lortu genuen; baina multinazionalek, errentagarritasunik ez dutenean, lantegiak itxi egiten dituzte. Lehen milaka

TAVEX

'DENIM' Tavex ezagun egin zen *denim* edo ehun bakeroa lantzeagatik. Bergaran egiten zituzten bakeroen akaberak. Irudian, Tavexen bakeroen publizitate irudi bat.


UDAL ARTXIBOA / ELISABET BIAIN BILBAO

SAN ANTONIO San Antonio auzoaren bista orokorra, 60ko hamarkadan. Algodoneraren babesean, tailer, tindategi eta enpresa txiki eta ertain asko sortu ziren.


TAVEX ARTXIBOA

EMAKUMEA Emakumea lanean. Emakumeok oso garrantzitsuak izan ziren ehungintzan, eta ez soilik enplegatu gisa; 1856an, Blanc-en alargun Martina Maizek hartu zuen Algodonera.

langile zituen ehungintzak; asko ASASAn, gero Tavesan ehunka... baina murrizten joan zen. Pena bat da, Bergaran sektore historikoa izan delako".

Ehungintzaren babesean ere komertzio asko sortu ziren Bergaran; horietako bat da Burdiñateko Prakak jantzi-denda. Hango ugazaba Rita Narvaezek hauxe diosku: "Nik Narbaiza enpresari esker ireki nuen denda. Pena handia ematen dit ehungintza desagertzeak; hau da orain daukaguna, krisia, lantegiak ixtea... gauza orokorra da".

Agurne Barruso alkateak esaten du Tavex ixtearekin bat "Bergaran ehungintzaren zikloa ixten" dela; baina kezka orokorrago bat ere badu: "Tavex ez da azkeneko itxi den enpresa; Arcelorrek planta bat Zumarragara eraman du; itxi egin dute GKNk, Ornyk, Linacisorok... eta Tavex ikur bat da Bergaran, baina bilakaera bat izan da. Kezkatuta gaude etorkizun ekonomikoarekin, eta horregatik, Plan Estrategikoan garapen ekonomikoaren lantaldeari garrantzi handia ematen diogu".

Antonio Irazola zinegotzia izan zen 1966a ezkero, eta bere esanetan, "enpresa handiak" zeuden Bergaran: "Zerrajerak bazituen 1.500 langile; Algodonerak ere, antzera; gero Mayc etorri zen... Orain, Tavex itxiko dutela eta, Bergarak asko galdu du. Baina kate bat da". Etorkizunera begira, itxaropentsu da, baina: "San Juanen poligono handi bat egin dute, eta badirudi enpresa handiren bat etorriko dela. Ea hala den!"

LEIRE KORTABARRIA

ANTONIO IRAZOLA
UDAL ORDEZKARI OHIA

"Katalunia 'zona gorrian' zegoenez, ejerzitoaren jantziak hemen egiten ziren"

Zinegotzi ohi eta, batez ere, bergarar moduan, gogoan ditu Antoniok garai hobeak.

Aberatsa izan da Bergara, ehungintza enpresei esker...

Izan da aberatsa, bai. Gerra denboran, Katalunia *zona gorrian* zegoenez, ejerzitoarendako jantziak-eta hemen egiten zituzten. Eta, jakina, hemengoa da mahoia. Bere momentu onenean, pare bat mila langile izango zituen industria horrek. 37tik 45era izan ziren urte onenak.

Zergatik ezarri zen Bergaran?

Esaten zuten hemengo ura tinteendako onena zela... Askok hona ekartzen zituzten ehunak tindatzera. Bazeuden bakarrik tindategia ziren enpresak.

Zelan ikusten duzu Tavex ixtea?

Bergarak asko galdu du. Baina hemen oraindik baditugu enpresa sendoak: Lazpiur, Elay... eta San Juanen poligono handi bat egin dute.

LEIRE KORTABARRIA

LORENTZO LASKURAIN
LANGILE OHIA

"Bergarako langilea garestia zen beste leku batzuetakoekin alderatuta"

Oregui y Cía enpresan "denetariko lanak" egin zituen Lorentzok.

Zelan sortu zen Oregui y Cía?

Hasieran, Oregui Hermanos y Mendiola zen; Oregitarrak saltzaileak, Mendiola tindatzaileen burua eta Narbaiza bulegoko langilea. Elkartea sortzera joan ziren, baina izenarekin ez ziren ados jarri (Narbaizak bere izena jarri nahi zuen lehenengo) eta bertan banandu ziren. 1941ean, Oregitarrak eta Mendiola banandu ziren eta aurrerantzean Oregui y Cía izan zen.

Zergatik etorri da goitik behera Bergarako ehungintza?

Beste leku batzuetatik merkeago ekartzen zuten, eta soldata txikiak zituzten langileek; Bergarako langilea garestia zen. Mayc gehiago ordaintzen hasi zen, eta ehungintzak ere handitu egin behar izan zituen soldatak. AEBek ehun modernoagoak sartu zituen; gure lehia handik etorri zen.

Neurriak 38tik 60ra

Mirari
JANTZIDENDA
Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

Udazkena Negua

Oñatin bosgarren edukiontzia jarriko dute datozen hilabeteotan

Bestalde, atez atekoaren gaineko hitzaldia egingo dute Arrasaten astelehenean; Elgetan, eguaztenean, hondakinen gainean jardungo dute

Edukiontzi marroian gai organikoak utzi behar dira. | MIRARI ALTUBE

ARANTZAZU EZKIBEL | BERGARA

Diputazioak hondakin organikoak batzeko edukiontzi marroia hedatu gura du Gipuzkoan; horren adibide da datozen hilabeteotan 12 udalerritan jarriko dituzten edukiontziak, tartean Oñatin.

Lourdes Idoiaga Oñatiko alkateak pozik hartu du berria: "Oraindik ez dugu Diputazioarekin berba egiteko aukerarik izan eta ez dakigu zelan funtzionatuko duen". Hala ere, azaldu du oso gustura daudela; izan ere, eurak beti egon dira "bosgarren edukiontziaren alde". "Guk beti adierazi diogu Diputazioari bosgarren edukiontziaren alde gaudela, baina Debagoieneko Mankomunitateak beste ildo batetik jo du, atez atekoaren alde".

Horren harira, uste du Mankomunitateak Oñatiko udal autonomia errespetatuko duela eta ez dela arazorik egongo edukiontzi marroia Oñatin jartzeko.

Funtzionamendua

Alkateak oraindik ez daki zenbat edukiontzi jarriko dituzten eta non. Hala ere, uste du Aretxabaletan dagoenaren funtzionamendu bera izango dutela Oñatiko edukiontzi marroiek ere.

Aldundiak plan aitzindari baten barruan jarri zuen edukiontzi marroia Aretxabaletan. Diputazioa gustura dago lortutako emaitzarekin. Sei udalerritan egin dute plan pilotua eta edukiontzi marroian jasotako zaborraren %99 izan da gai organikoa.

Elgetan solasaldia

Bestalde, Gipuzkoa Zero Zabor taldeak antolatuta solasaldia egingo dute Elgetan datorren astean. Hilaren 24an izango da, eguaztena, 19:00etan, kultura etxean. *Solasaldia: hondakinek badute irtenbidea* da gaia.

Gipuzkoa Zero Zabor taldeko kideek egingo dute hitzaldia eta landuko dituzten gaiak izango dira, besteak beste: konpostagailua, atez ateko zintzilikarioak, bikote batek hilabete batean sortutako errefusak...

Atez atekoaz, Arrasaten

Ezker Batuak antolatuta atez atekoaren gaineko hitzaldia egingo dute Arrasaten astelehenean, hilak 22, Kulturateko areto nagusian. *Zer egin zaborrarekin?* izango da gaia.

Hitzaldia egingo dute Mikel Izagirrek eta Kepa Olaitzek, Urnietako eta Oiartzungo errausketaren aurkako plataformako kideek.

Ulma taldeak sare sozialen gaineko hitzaldia antolatu du gaztetxoen gurasoendako

A.E. | OÑATI

Ulmak gurasoei zuzendutako hitzaldia antolatu du datorren azaroaren 25erako: *Gure seme -alabek jaten dutena zaintzen badugu... Zergatik ez dugu zaintzen Interneti ematen dioten erabilera?*

Montse Ereño izango da hizlaria, eta sare sozialen inguruan jardungo du. Hitzaldia Ulma taldeko auditorioan izango da, 18:00etan. 12 eta 16 urte bitarteko gazteen gurasoei zuzenduta dago hitzaldia.

Izena ematea beharrezkoa da

Hitzaldira joateko beharrezkoa izango da izena ematea. Interesatuek 943 25 03 00 telefono zenbakian edota postaz *fundacion@ulma.com* helbidean eman dezakete izena.

Montse Ereño Informatikan lizentziaduna da, eta MUko irakaslea.

AP-1 autobideko Uztarreta eta Oxinalde zerbitzuguneetan 40 lanpostu inguru sortuko dituzte

Repsolek egingo ditu bi zerbitzuguneak 2011n; baimen baten zain daude lanak hasteko

A.E. | BERGARA

AP-1 autobidean bi zerbitzugune egiteko asmoa du Repsolek; hain zuzen, Eskoriatzan eta Arrasaten egingo dituzte.

Uztarretan (Eskoriatza) egingo dute bat, Gasteizko noranzkoan; Arrasatekoa Oxinalden egingo dute, Eibarko noranzkoan. Dagoeneko zerbitzuguneak egingo dituzten lursailak egokitu dituzte; oraindik, baina, lanak noiz hasiko diren ez dakite. Eskoriatzako Udalaren baimen baten zain dago Repsol lanak hasteko.

Garbitzeko gunea ere bai

Uztarretan eta Oxinalden 40 lanpostu inguru sortuko dituzte; 19 lagunek lan egingo dute gasolindegietan eta dendetan; jatetxean, ostera, 20 lagun ingururendako lana egongo da.

Gainera, Oxinaldeko zerbitzugunean autoak garbitzeko gunea ere egokituko dute.

Gasolindegiei dagokienez, Uztarretakoak lau gasolina-hornigailu izango ditu eta Oxinaldekoak izango ditu bost gasolina -hornigailu.

Irun-Gasteiz ibilbidea

2009an Eibar-Gasteiz autobidea zabaldu zenetik bi zerbitzugune besterik ez da egon Irun eta Gasteiz arteko autobide zatian. Hau da, 120 kilometro inguruan Oiartzungo eta Itziarko zerbitzuguneak bakarrik egon dira erabilgarri errepide ondoan (Europako ibilbidea hartuz gero).

Debagoienekoez gain, Donostiako ingurabidean beste bi zerbitzugune egingo dituzte.

DATUA

6,3

MILIOI EURO

Repsolek 6,3 milioi euro bideratuko ditu Eskoriatzako eta Arrasateko zerbitzuguneak egiteko.

Urtarrilaren 1ean jarriko dute martxan bailara osoan etxeko olioa batzeko zerbitzua

MIRIAN BITERI | ARRASATE

Eguaztenean aukeratu zuen Debagoieneko Mankomunitateko Gobernu Juntak edukiontziak erosteko eta etxeko olio bilketa eta edukiontzien mantentze-zerbitzua kontratatzeko eskaintza onena. Ecogras eta Eko3R enpresak aurkeztu dira lehiaketa horretara eta bien sistema aztertu ondoren, azken enpresaren alde agertu dira Mankomunitateko kideak.

Prozesua azkar joango da hemendik aurrera; Mankomunitatearen asmoa da zerbitzua urte hasierarekin batera ematen hastea. Enpresari jakinarazten zaionetik, 10 lan eguneko epea izango du horrek Mankomunitateak eskatzen dion dokumentazio guztia aurkezteko. Jarraian, Mankomunitateak bost egun izango ditu zerbitzua esleitzeko. Kontratua sinatu ostean, Eko3R enpresakoek herriz herriz joan beharko dute, edukiontziak non jarri behar diren zehazteko. Mankomunitatetik jakinarazi digutenez, Arrasate kontuan hartu barik, 21 edukiontzi jarriko dira datorren hilabetean bailara osoan.

Arrasaten 11 edukiontzi

Arrasate aitzindaria da zerbitzu hori ematen. 2007ko apirilean jarri zuen proba moduan Udalak. Orduan zazpi edukiontzi jarri zituzten herriko hainbat tokitan. Aurten edukiontzi berriak estreinatu zituzten. 11 halako ekarri zituen Eko3R enpresak; horrekin batera, makina horiendako egindako pote bereziak ere banatu zituzten herritarren artean.

Arrasaten Eko3R enpresakoak jartzen ziren bitartean, Mankomunitateak proba aitzindaria jarri zuen martxan Eskoriatzan Ecogras enpresarekin, etxeko olio erabilia biltzeko behin betiko sistema aukeratu aurretik aztertzeko. Lau edukiontzi jarri zituzten han; pote berezia behar ez zutenak. Sistema biak aztertu ostean, Arrasatekoak bailara osora zabaltzea erabaki dute.

ANDER MONEDERO

Truke programako indigenen harrera Oñatin

Euskararen normalizazioan emandako pausuak ezagutzeko gurera etorri diten zortzi indigenei harrera egin zieten astelehenean Oñatiko udaletxean. Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Rosarito Galdosek egin zien harrera. Laugarren aldia da Garabide elkarteak truke programa antolatzen duela, eta hizkuntzen garapen esperientzia ezagutzea eta lankidetza sustatzea ditu helburu.

Marixol Iparragirreri elkartasuna helaraziko diote astero

M.B. | ESKORIATZA

Astelehenean Parisen Marixol Iparragirre *Anboto*-ren aurka hasitako epaiketaren harira, Eskoriatzako presoen aldeko taldeak elkarretaratzeak deitu ditu. Epaiketak iraun bitartean, Eskoriatzako Herriko Plazan izango dira eguenero mobilizazioak, 19:00etan, *Epaiketa fartsarik ez! Presoak eskubideen jabe prozesuan parte hartuz* lelopean. Epaiketa salatzeaz gain, horren gaineko informazioa ere zabalduko da horietan. Bestalde, taldeak jakinarazi du epaiketara joan nahi dutenek Inkernun eman behar dutela izena.

Epaiketari dagokionez, astelehenean egindako deklarazioan, Iparragirrek nabarmendu nahi izan zuen ETAk eskua luzatu duela eta orain Frantziako eta Espainiako estatuei dagokiela "arduratsuki eta pisu historiko batekin" erantzutea.

Hilabete iraun dezake

Egun Fresnesko espetxean dagoen eskoriatzarrari ETAko kide izatea leporatzen diote. 2004ko urriaren 4an Biarnon atxilotu zuten. Epaiketak hilabete iraun dezakeela uste dute presoaren lagun eta senideek. Dena dela, amaiera data ez dago zehazterik, besteak beste, Frantziako espetxe zaindarien eta aurreikusten den Frantziako ofiziozko abokatuen grebek eragin dezakete.

Pintxoak banatuko dira gaur, jardunaldi gastronomikoen harira

Mankomunitateak antolatutako jardunaldi gastronomikoen harira, pintxo banaketa egongo da gaur, egubakoitza, Arrasateko Seber Altube plazan, 19:00etan. Jardunaldietan parte hartzen duten jatetxeek prestatutako pintxoak banatuko dira; txistorrarekin eta onddoekin egongo dira horiek eginda.

Debagoieneko ospitalea, 'Best in Class' sarietan hirugarrenez finalista

Debagoieneko ospitaleko larrialdi zerbitzua finalista izan da hirugarrenez *Best in Class* izeneko sarietan. Gaixoei ematen zaion arretaren kalitateari lotutako saria da hori, eta Editorial Contenidos de Saludek bultzatzen ditu. Aurtengo edizio honetan, 35 ospitale eta 237 zerbitzuekin batera lehiatu da Debagoieneko ospitalea.

'Korrika laguntzailea' kanpaina aurkeztu dute asteon

Korrikak eta AEK-k *Korrika laguntzailea* kanpaina aurkeztu zuten eguaztenean. 12 euroren truke pina eta txartela jasoko dute laguntzaile egiten direnek; azken horren bidez, deskontuak izango dituzte hainbat komertziotan. Bestalde, Korrikako materiala dagoeneko salgai dago AEK -ko euskaltegietan.

ZABALIK

RUFINA OLASAGASTI
'http://goiena.net/iritzia/'

Jaioak heriotza zor

Gaixo zegoen anaia hil zait eta heriotza dut gaur hizpide. Honelakoetan ohartzen gara geu ere hilko garela egun batean. Eguneroko bizimoduan ez gara horretaz konturatzen eta garaia hurbiltzen denean estutasunak sortzen direla ikusten dugu.

Geure buruarekin patu honen onarpenera heldu beharra dugu, heriotza bizitzaren parte delako, jaiotza den modu berean.

Jaio garen familiak, ingurune sozialak eta lekuak bizitzako aukerak baldintzatzen ditu. Ez da berdin familia aberats batean jaio edo ez, Afrika erdialdean edo hemen jaio. Jarrera ezberdinak daude bizitzaren eta heriotzaren aurrean.

"Nork bere bizitza onartu behar du lehenengo, ospatu eta bizi gero"

Munduko zenbait herrialde behartsutan bizitako hemengo jendeak emandako azalpenetan atentzioa eman izan dit beti nola agertzen diren bertako herritarrak kantuan eta dantzan.

Boli Kostakoa da azkena ikusi eta entzun dudana: dutenarekin bizitzen dakite, guk beharrezkotzat jotzen dugun ondasun materialik ez duten arren bizipoza agertzen dute.

Beste gogoeta bat da heriotzaren aurrean bizi garen momentua aprobetxatzea, geroa ez dagoelako gure esku. Nork bere bizitza onartu behar du lehenengo, ospatu eta bizi gero, bizitzaren mirari atsegin hau pertsonalki esperimentatu.

Bizitzako une guztiak ez dira, noski, berdinak, badira neketsuak eta saminak, baina baita, Bitoriano Gandiagak dioen moduan, zorion ordu bikainak ere.

Hil denaren ahotsa isiltzen denean elkarrekin bizitako pasarteak gogoratzen ditugu, harekin izandako harremanak. Une horiek gogoratzean gure artean sentitzen dugu.

Agurtzeko ekitaldiak, erlijiosoak nahiz zibilak, balio digu hil dena joan dela ohartzeko, besteok elkartzeko, geu ere hilko garela gogoratzeko eta bizitza hobeto ospatzeko.

USTEAK USTE

MIREIA BIKUÑA | 'mbikuna@goiena.com'

Punta-puntako saskibaloia

Zapatuan Sustrai Aloña Mendik eta Mondragon Unibertsitateak jokatu zuten partidua ikusten egon nintzen. Ez zitzaidan tokatzen lan egitea, baina, aldika, kirol hitzordu batzuetara joaten naiz. Lankide batzuek "masoka" naizela esaten didate. Zubikoan egin nuen topo Mirari lankidearekin. Bigarren tartean heldu nintzen eta Aloña galtzen zegoen 15 puntugatik. Harri eta zur geratu nintzen. Baina Mirariri esan nion Aloña gai zela partiduari buelta emateko, eta hala izan zen. Bi taldeek ikuskizun paregabea eskaini zuten. Eta ezin ahaztu Zubikoako kantxak zuen itxura: lepo beteta. Eskubaloi taldeak lehen mailan jokatzen zuenetik ez nuen halakorik ikusi!

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | 'http://goiena.net/iritzia/'

HANDIK ETA HEMENDIK

Batuketarako bideak

Pello Urzelai
http://www.berria.info/blogak/pello/

Aldaketarako garaia, indarrak biltzeko tenorea. Hori da aurreikusten dena epe laburrean. Agian, oraindik egoera ez dago guztiz helduta, baina presenteari begiratu beharrean etorkizun hurbilari so eginez gero, indar bilketarako formulak posibleago atzematen dira, baita hauteskunde formulak ere.

Nafarroan, ezker abertzaleak Aralarri eta EAri egin dien eskaintza edo proposamena ikuspegi horretan kokatzen da. Hauteskunde akordioaren ardatzak baino ez ditu aurkeztu ezker abertzaleak: ezkerreko printzipioetan oinarritzea, Gernikako akordioaren bakerako bide-orria jasotzea eta Euskal Herriaren egituratze prozesuarekiko konpromisoa izatea. Indarrak batzeko formula bat da, Nafarroa Bai koalizioaren jarraipena edo Nafarroa Bairen berritzea izan daitezkeen bezala. Mahai gainean daude aztergai.

Une honetan argi ikustea zaila bada ere, egin beharreko ariketa da udaberriko egoerari egokien eta eraginkorren erantzungo dion formula aztertzea. Nafarroan hautatzen denak Nafarroatik haratago isla izango duela jakinda.

Teoria guztien gainetik, merkatu guztien azpitik

Luis Aranberri 'Amatiño'
http://eibar.org/blogak/amatino/

Teoriak, diseinuak, paperak... edozerri eutsi omen diezaioketen arren, praktikak besterik adierazi izaten du, eta kasu honetan esperientziak frogatu du zenbaitek garai-aldaketatzat burututako egitasmoak ez duela irakurleen artean batere onespenik izan.

Vocento Taldearen egunkarien diseinu-ekarpenak ez du urtebete iraun.

[...] Gaurko (atzoko) aletik aurrera berriro ere duela urtebeteko kokapen berberera itzuli dira zerbitzuak, agenda, eguraldia, zine eta telebista-orrialdeak.

[...] Batetik, badirudi irakurle arruntak ez duela astelehenetik ostiralera bitartean asteburutako erreportaje handikoterik nahi, are gutxiago bere eguneroko errealitate hurbilarekin zer ikusirik ez baldin badu. Bestetik, garbi samar geratu da egunkariaren erdiguneko osagarriak nolabait eteten edo hausten duela egunkariaren irakurketa jarraitua. Eta, hirugarrenik, begi bistan gero jendeak nahiago dituela zerbitzuak, agenda, denbora-pasak, eguraldia, zine-karteldegia eta telebista-programazioa azken orrialdeetan. Eta ez gutxien interesatzen zaizkiolako, atzetik hasiez gero lehenak direlako baizik, aurkiterrazenak alegia.

[...] Iazko Gabonak aurretik bazen ordurako saikera antzutzat eta eskarmentu amortizatutzat jotzen zuenik. Baina, kazetarien artean ziotenez behintzat, falta ere ez omen zen falta porrota aitortzerik nahi ez zuenik edota, jendea "ohitura-animalia" delakoan, azkenean irakurlea ohituko zela itxaro zuenik.

Baina, azkenean, teoriko kementsuen eta irakurle egoskorren arteko lehian, audientziak irabazi du. Merkatuak alegia.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Monika Belastegi
Sailetako arduradunak Leire Kortabarria (Herriak eta Kultura), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Edurne Gorosabel, Aintzane Muruamendiaraz
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA BERGARA 20570: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12
goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 1577-1210
Tirada: 20.000 ale.
Difusioa: 19.724 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

1.000 pertsona egia osatzeko

Julia Monge
(Intxorta 1937 kultura elkartea)
Arrasate

Emakumeen inguruko dokumentala. Arrasate 1936... gerra eta errepresioa.

Datorren urtean aurkeztuko den proiektu honi hasiera emateko zure laguntzaren beharra daukagu. Nola lagundu dezakezun? Batez ere gure erronkan konfiantza ezarriz, hainbestetan ahaztua dagoen historiaren atal garrantzitsu bat argitaratzea nahi dugulako, Arrasateko ehunka emakumeren isiltasunari ahotsa jarriz, euretaz jakiteko, euren bizipen, borroka eta pentsamenduak ezagutzeko.

Emakume hauek merezi dutelakoan bazaude 12 euro besterik ez dizugu eskatzen. Trukean, DVDa izango duzu eta honi erantsitako liburuxkan zure izena agertuko da, laguntzaile izan zarela ziurtatuz.

Diru sarrera egin dezakezu kontu korronte honetan, zeure izena eta bi abizen adierazita: 3035 0001 57 0010105700; edo gurekin harremanetan jarrita: Juan Ramon (678 242 031) edo Julia (699 669 205).

Zapaltzen ari garen bidea eurek ere zabaldu zuten.

Esker ona

Eneko Zumalde
(Lizargarate Trikitizale Elkartearen izenean)
Oñati

Joan den urriaren 30ean Santa Ana aretoan II. Trikiti Jaialdia ospatu zela eta, Lizargarate Trikitizale Elkarteak bere esker ona agertu nahi die ekitaldi honetan parte hartu zutenei, era guztietako laguntza emandakoei eta ikustera joan ziren herritar guztiei. Euren partaidetza gabe, ez litzateke horrelako emaitza bikainik lortuko.

Eskerrik asko, guztiagatik!

Elkartearen indarrez trikitixari emanez!

Tipo zintzoa, hurbila

Aitor Arregi
Oñati

Patxi Hipolito kidearekin oroitzen eman dut astea. Azkenaldian gutxi egoten ginen, baina bere hutsunea asko nabari dut.

Pasadizo batekin gogoratu nintzen. Behin proiektu baterako unibertsitate zaharreko artxibo batzuk ikertzen zebilen Patxi eta garai horretan biok afaritxo bat egin genuen. Antzinako Oñatiko hainbat pertsonaia eta istorioz jardun zuen afarian, ni berari entzuten. Halako batean, esan zidan: "Nahi baduzu egingo dizut zure familiaren zuhaitz genealogikoa. Ez zait ezer kostatzen". Nik, erdi barrezka, broma bat zelakoan, "ezer, ezer... denbora pixka bat kostako zaizu", erantzun nion, eta berehala ez zegoela horren beharrik gehitu nuen. Patxik esan zidan saiatu egingo zela. Ni konbentzituta nengoen komentarioa haizeak eramango zuela, lagunartean botatzen diren hainbat konturekin gertatzen den bezala.

Handik hilabete batera, telefonoz deitu zidan. "Aitor, gelditu behar gara, ze liburu bat pasa behar dizut. A, eta zure zuhaitz genealogikoa ere bai". Eta hantxe etorri zen, ilusioz, orain dela 500 urtetik orainaldirainoko nire arbasoen izen eta abizenekin papertxo batean idatzita. Oraindik gogoan dut nire aitaren aurpegia, irribarrez, papertxoa erakutsi nionean. "Baina... nor da, ba, Patxi hau?

Nik orain arte egin ez dudana eta seguruenik etorkizunean egingo ez nuena, Patxik egin zidan, musutruk. Adibide xume bat, Patxiren hurbiltasuna eta kalitate humanoa irudikatzeko balio duena.

Oñatiko kaleetan oinez nabil eta bere hutsunea nabaritzen da.

Euskararekin jolasik ez

Itxaro Artola eta familia
Arrasate

Olentzero maittia.

Badakigu galtzak bete lan ibilliko zarela honezkero oparixak erosten, eta gomendixo bat emungo dutzugu berandu izan baiño lehen. Ez eizu alperreko biherlekurik hartu gure herriko hipermerkatura juaten, geure-geuria ei dan horretxetara bai, ez dozulako guk gura dogunik topatuko hango apaletan.

Jostailluz betetako propagandia sartu duskue postontzixan astien, eta irrikittan begiratu dogu, bertan ikusiko geukelakuan zuri eskaketako buruan daukegun dan-dana: Elenerendako Kattaliñen ipuiñak, Lukenendako Txirritxen CD-ROMa, Mihiluzeren mahai-jolasa aitatxorendako, Marimototsen panpiña amatxorendako...

Baiña bai zera, ez dakar bat bera be! Ez horreik, ezta beste edozein jolas euskaraz edo euskal usaiñekorik be liburuxka osuan. Jostailuak nahi ditut! jarten dau propagandiaren azalian. Guk be bai, guk be jostailluak gura dittugu, baiña aukeran, euskaraz!

Ba horixe, Olentzero, jakiñaren gaiñian jarri gura zinttugun, jende asko ibiltten dalako leku hortan sasoi hontan, eta ez deilla pasau gero gure etxekuok opari barik geraketia hiperrien solorik solo ibilli zarelako Gormiti, Hello Kitty eta Nintendo artian!

Viteri–Bengoa familiaren partetik, eskerrik asko...

Maite Bengoa eta Idurre eta Ainara Viteri Bengoa
Gasteiz

Aretxabaleta abesbatzari:

Izan ere, ohore handia izan da zuek gure artean edukitzea, gure ondoan abestea, aitarentzat, aitarekin. Zuen ahotsek bihotza zabaltzen zidaten, bularra emozioz betetzen zidaten; oroitzapenetara bidaiatzen. Oroitzapen politetara, aitarekin, amarekin, nire ahizparekin... Oroitzapen, usain eta galeretara... Nire bihotza jaso eta izarretara hurbildu ninduzuen.

Malkoz betetako galera. Samina elkarren artean bizitzeko unea. Lasaitze unea.

Kantuak nire arimarekin sakonki konektatzen lagundu zidan, tristuraren atea askatasunez irekitzen lagundu zidana. Tristura hau pixkanaka atseden bilakatu zen. Dantzatzeko irrika sortu zitzaidan, aitarekin dantzatzeko, bizitzari dantzatzeko.

Bada, zorionekoak izan gara elizaren goialdetik aingeruak abesten edukitzeagatik.

Eskerrik asko, baita ere, UDA kirol elkarteari eta Aretxabaletako herriari.

Aitatxoren pasioetako bat futbola izan da. Lehenengoa gu ginela zioen eta bigarrena futbola. Futbolak batu gintuen eta futbola ikusten hezi ginen ahizpa eta biok. Amak eta aitak elkar ezagutu zutenean UDAko zaleek garairik oparoenak bizi izan zituzten. Kontu zaharrak gogoratzean emozioz adierazten zigun aitak bizitakoak: "UDA: Campeón de España de Aficionados año 1972". Hainbat herri eta hiritan ibili ziren. Saihetsak apurtuta ere zelaigunera atera zela kontatzen zuen: "Inortxok ere ezin zuen jakin nire lesioa non zen, bestela arerioek oker nuen aldera botako zidaten baloia". Bizitakoa hain sutsua izan zen, oraindik ere dirau zuen artean.

Baina gaurtik aurrera ezer ez da berdina izango. Ekipoa hautsi da. Aitatxo faltako da. Ene atezaina. Afizioz eta ofizioz atezaina. Atezain elegantea, gainera, zelaiko zurtoinak zaindu zituen familia zaintzen zuen bezala. Haustu da hamaikakoa.

Etxekoentzat hauxe da galerarik mingarriena. Hala eta guztiz ere, bizitza etengabeko agurrek eta heriotza txikiek margotzen duten ikasketa da. Eta azken ikasbide honetan maisu izan da gure aita. Elegantea, berriro ere.

Duintasunez hil zen etxean, maitasunez eta goxotasunez inguratuta. Hamaika gol zapuztu zituzten eskuek tinko eusten zituzten gureak agur esaten zigun bitartean. Xumeki joan zen aitatxo.

Orain guri dagokigu duintasunez ekipoa eta familia sendatzea. Bere presentziaz eta azken momentuetako ausardiaz baliatuko gara taldea berregiteko. Futbolari txikiak elkartasunean hezteko. Bere konpromisoak gurea behar du orain.

Zuek, garai bateko taldekideak, lagunak beti zaretenontzat, mila esker gu laguntzeagatik, amatxo jasotzeagatik eta aitaren adiskideak izateagatik. Zuen guztion berotasun eta maitasuna gure golik politena da.

Mila esker, bihotz-bihotzez, Maite, Idurre eta Ainararen partetik.

Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne) edo 50 lerro. GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Ibarra 6, 20570 Bergara | goienkaria@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

Roslyn M. Frank | Hizkuntzalaria

"Iruña-Veleian ondarearen kontrako atentatua egin dute eta delitu hori kode penalean dago"

- Hizkuntzalari estatubatuarra oso kritikoa da Gilen eta Filloyren aurkako auziarekin
- Iruña-Veleiako aztarnategian aurkitutako grafitoak zaharrak direla frogatuko dela uste du

LANDER MUÑAGORRI | BERGARA

Roz Frank hizkuntzalari estatubatuarra Iowako unibertsitateko irakasle emeritua da. Euskaran aditua eta euskaltzalea. Eusko Ikaskuntzako kidea da duela 20 urte baino gehiagotik. Munduko unibertsitate ospetsuenetan ibilia da berbaldiak egiten. Iruña -Veleiako auzia ondo ezagutzen du.

Nondik datorkizu euskararekiko eta euskal kulturarekiko jakin-mina?

70eko hamarkadaren hasieran izan zen. Garai hartan nire doktoretza bukatua nuen eta *El Quijote* irakasten hasi nintzen Iowako Unibertsitatean. Doktoretza ikasketetan filologia erromanikoa eta literatura oso gai inportanteak ziren, eta gaztelaniaren historia ere bai. *El Quijote* eleberrian agertzen den El Vizcaino pertsonaia topatu nuenean, haren izaera eta hitz egiteko modu berezia oso deigarriak egin zitzaizkidan, batez ere gizon hark erabiltzen zituen hitzen formak. Eta handik sortu zitzaidan nire lehenengo euskararekiko jakin-mina. Gero, euskarazko pare bat barnetegi egin nituen, eta Iowara ingelesa ikastera zetozen euskaldunak etxean hartzen hasi nintzen. Poliki-poliki joan nintzen euskara eta euskal kultura jabetzen eta herri honetaz zaletzen.

Hedabideetatik Iruña-Veleiako aferari buruzko iritzi kontrajarriak iristen zaizkio irakurleari. Zer da sinistu behar duena?

Askotan, hedabideetan agertu diren iritziak irakurtzea ez da nahikoa lehenago gertatu dena eta orain gertatzen ari dena ondo ulertzeko. Afera garrantzi handikoa eta konplexua denez, behar den moduan ulertzeak beste zerbait eskatzen digu. Esate baterako, euskal idazkunen gaian sakontzeko komenigarria da Juan Martin Elexpururen *Iruña-Veleiako euskarazko grafitoak* (Elkar 2009) irakurtzea; eta ezinbestekoa SOS-Veleia Plataformaren webgunean arakatzea.

Eliseo Gil eta Idoia Filloyren lana ezbaian jarri da.

Metodologia ez da ezbaian jarri, idazkunen egiazkotasuna baizik. Gehiago esango nuke: nazioarteko aditu ezagunetako batek ontzat eman du Gil eta Filloyeren indusketa-lana, arreta handiz egina dagoela esanez eta honela azpimarratuz. Edward Harris doktorearen txostenak esaten du hau eta hura da mundu mailan autoritate nagusia arkeologian, Harris Matrix izeneko metodologia asmatu zuena 1973an.

Diputazioaren grafologia txostenek ez dute demostratu grafitoak faltsuak direla?

Grafitoak faltsutzat eman ziren behar bezala aztertu baino lehenago. Eta bitxia izan da txosten grafologikoekin gertatu dena. Hasieran foroetan idazten zuen jendeak eta gero batzordekideek esaten zuten grafitoak faltsuak zirela, baina inork ez zuen euren egiletzat Eliseo Gil hartzen. Errudunik aurkitzen ez zutenez, Diputazioak txosten grafologiko xelebre batzuk enkargatu zituen Gil errudun bihurtzeko. Ez buru eta ez hanka ez duten txostenak. Horietaz baliatuz seinalatu dute Gil, Lorena Lopez de Lacallek eta zenbait egunkarik, *Berria*-k tartean. Zorionez, ez epaileak eta ez iritzi publikoak ez dute sinistu gezur hori.

Laborategiak egiten dituen analisien datuak argigarriak izango dira azkenean?

Baietz pentsatzen dut. Idazkunak zaharrak ala berriak direla jakingo dugu azkenean. Epaileak agindu du Guardia Zibilaren kimika laborategian grafitoen analisiak egitea. Horretarako, analizatu nahi zituzten piezen zerrenda bat bidaltzeko eskatu zien bi parteei. Lurmenek berehala bidali zuen, baina Diputazioak, nik dakidala, ez du oraindik zerrenda entregatu, nahiz eta epaitegitik hiru aldiz eskatu.

Ikerketa bide onetik doa?

Hala dirudi. Hasieran egin behar zena egiten hasi dira azkenean. Munduko edozein tokitan pieza baten antzinatasuna zalantzan jartzen denean, laborategiko azterketa fisiko eta kimikoak egiten dira. Esate baterako, 1995ean Shernborneko hezurra aztertu zuten eta oraintsu Floridan agertutako mamut hezurreko marrazkia aztertu da Floridako Unibertsitatean. Izan ere, froga fisikoak objektiboak dira, iritzi edo uste filologikoen mendekotasunik gabekoak.

Iruña-Veleiako kasuan filologoen iritzia arkeologoen ebidentzien gainetik jarri dela iruditzen zaizu?

Balio handiagoa eman zaio filologoen iritziari arkeologoenari baino. Eta argi dago filologoek laborategiko analisi zientifikoen aurkakoak zirela (eta direla). *Berria*-k Lakarra eta Gorrotxategiri egindako elkarrizketan garbi ikusten da hori. Baina hainbat euskal filologo entzutetsu ez dator bat aipaturiko biekin. Henrike Knörr zena bera ere ez. Zoritxarrez, erabakia hartu baino lehen hil zen.

Roslyn M. Frank, Bergaran, orain dela hilabete inguru. | LANDER MUÑAGORRI

"El Quijote'-ren El Vizcaino pertsonaiak erakarri ninduen"

"Iowara ingelesa ikastera zetozen euskaldunak etxean hartzen nituen"

"Nazioarteko aditu ezagunetako batek ontzat eman du Gil eta Filloyeren lana"

"Grafitoak faltsutzat eman ziren, ondo aztertu baino lehenago"

Julio Nuñez irakaslearen lan egiteko modua ezbaian jarri da.

Interneten Sos-Veleiak jarri dituen bideoak eta argazkiak ikustea aski da Nuñez sarraski handia egiten ari dela ikusteko. Hondeamakina handi bat erabiliz geruza arkeologikoak suntsitu ditu leku askotan. 1,50 metroko sakoneraino hustu du, beheko harria jo arte, azaleko laborantza lurra 30 zentimetro ingurukoa denean. Eta hori bazekien Lurmenek egindako argazki eta indusketatik oso leku aberatsak zirela arkeologia aldetik. Hala ere, Arabako Diputazioak esan du oso ondo ari dela lanean. Azkenaldian, munduko arkeologo askorekin hitz egin dut honetaz, irudiak ikusi dituzte eta oso harrituta daude. Estratrigrafia guztiz suntsitzen ari direla esaten dute eta ez dute ulertzen nola norbaitek ez duen geratzeko agintzen.

Indusmakinekin lanean aritu direneko ebidentziak jarri ditu SOS -Veleiak bere webgunean.

Material ugari dago SOS-Veleiako webgunean edonork ikusteko moduan. Aztarnategian hartutako argazkiak eta bideoak. Txosten berriak laster ipiniko dira webgunean.

Lan egiteko modu hau delitu izan daiteke?

Jakina, ondarearen kontrako atentatua egin da eta delitu mota hori tipifikatuta dago kode penalean.

Lan egiteko ze mota beharko litzateke Iruña-Veleian?

Indusketarik ez litzateke egin behar auzia *sub judice* dagoen bitartean, grafitoen benetakotasuna erabaki bitartean. Lan egiteko erari dagokionez, denek diote lehen aipatutako Harrisen metodologia oso egokia dela, Eliseo Gilek eta Idoia Filloyk aplikatzen zutena, hain zuzen.

Etorkizunean sinesgarritasuna berreskuratu ahal izango du aztarnategiak?

Analitikek grafitoak zaharrak direla frogatzen baldin badute –eta nik uste dut hala izango dela–, Iruña-Veleiaren izena ozen entzungo litzateke alde guztietan. Mundu mailako ospea lortuko luke eta jende asko hurbilduko litzateke, adituak eta ez adituak, grafitoak ikustera eta haien gaineko azalpenak aditzera. Baina gaur egun errealitatea beste bat da. Eliseo Gil eta Lurmeneko kideak zapalduta eta auzipetuta daude, grafitoak faltsutzat jota eta mundu mailako ondare oso garrantzitsu bat zakartegira joateko arriskuan.

Saia zaitez sasoian
egoten ez ezik,
zeure bizi-mailari
eusten ere: merezi du.

Kutxa Aurreikuspen Planak.
Etorkizun segurua **kutxa**ren
kaudimenarekin.

Kutxa 2016 eta 2018 Aurreikuspen Plan berriek **jarritako kapitalaren %100 eta errentagarritasun handia** bermatzen dute.

Sar zaitez kutxa.net-en eta kalkulatu zenbatekoa izango den zure pentsioa erretiroa hartutakoan. Gero, zuk erabaki aldatu nahi duzun edo ez.

Kutxaren Aurreikuspen Planak Kutxa Bi BGAEra atxikita daude.

kutxa
zugandik zugana

DUELA 10 URTE

2000-11-05

Elgetako Espaloiaren berri eman zen

Euskal Herriko Mendi Federazioak urteko batzarra egin zuen Elgetan, Espaloia aretoan, eta, hori aprobetxatuz, Goibeko elkarteak kafe antzokiaren proiektua ezagutzera eman zien herritarrei. Guraso Elkarteari, gaztetxeari eta Udaleko Kultura batzordeari aurkeztu zien lehenengo. Kafe antzokia geroago zabaldu zuten, baina proiektua eta lokala ezagutzera emateko lehen urratsak egin zituzten 2000ko udazkenean.



Badiharduguren aurkezpena. | ARTXIBOA

2000-11-22

Badiharduguren aurkezpena

Debarroan herri hizkera bultzatzeko elkartea sortu zen 2000ko udazkenean: Badihardugu. Arrasaten azaroaren 22an egindako aurkezpenean, Juan Martin Elexpuruk eta Amaia Txintxurretak esan zuten lau helburu zituela: herri hizkerari prestigioa ematea; herri hizkeraren corpusa batzea eta euskara estandarrean bere lekua ziurtatzea; herri hizkera bultzatuz euskara ere sendotzea; eta transmisio naturala eta kulturala bultzatzea.

DUELA 5 URTE

2005-11-19

Euskara aztergai

Euskararen jatorria aztergai izan zuten Arantzazun antolatutako I. biltzarrean. Mikoleta, Euzko Izaera, Bizi Hitza eta Ena elkarteek antolatu zuten biltzarra. Besteak beste, Bittor Kapanagaren hiru azpi-hizkuntzen teoria eztabaidatu zuren batutakoek. Jesus Segurolak, ostera, euskara izaditik datorrela argudiatu zuen.

HERRITARRAK

Susana Iza | Biltoki dendako ugazaba

"Belarra moztu behar den moduan, lagunak egunero zaindu behar dira"

Bergarako Biltoki denden ugazabak bertsoak idaztea, irakurtzea eta pintatzea du gustuko

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Susana Iza Bergarako Olabarrenako etxean, eguaztenean. | ENEKO AZKARATE

Alarguna da 1978a ezkero, orduan hil zitzaion-eta Juan Mari Aspiazu senarra. Hiru seme-alaba: Juan Mari, Bego eta Iñaki. Bergarako Biltoki denden ugazaba, duela ia 5 urte, 80 urte bete zituenean. Bertsoak idaztea eta pintatzea dira haren zaletasun handienak. Simon Arrieta eta Migel Okinaren koadroz betea du etxe osoa.

Seme ospetsua daukazu, Iñaki.

Bueno. Orain egin diote gonbita San Frantziskoko Moma museora joateko. Han daude ikusgai -eta Samaniegoko (Arabako Errioxa) Baigorri upategiko proiektua eta planoak. Baina lanez gainezkoa dagoela-eta, dio ezin dezakeela astebete galdu eta ez da joango. Beste bi seme-alabak, Juan Marik eta Begok ere ikasketa unibertsitarioak egin zituzten. Lehenengoak Industria Ingeniaritza eta bigarrenak Historia ikasketak. Guk izan ez genituen ikasketak eskaini nahi izan genizkien seme-alabei.

Bergarako San Joxepe erretiratuen elkarteko abesbatzako amabitxi zara.

Orain da Santa Zezilia eguna, eta bazkaria egiten dugu Pertxa elkartean. Jose Mari Perezek prestatzen du. Maisua da sukaldean. Neuk xanpaina-eta eroan izan ditut... Primeran pasatzen dugu.

Berandu oheratzen ei zara...

Bai, baina aldatu egin behar ditut ohiturak, osasunarendako ona ez delako. Goizeko seiak arte egon naiteke bertsoak idazten, irakurtzen, pintatzen... oheratu baino lehen. Eta, gero, eguerdia pasatu arte ez naiz jaikitzen.

Bereziki zaintzen dituzu maite dituzun lagunak.

Lagun asko ditut eta adiskidetasuna zaintzen ahalegintzen naiz. Bidean belarra haz ez dadin egunero moztu behar den moduan, lagunak egunero zaintzea ere ezinbestekoa da. Jose Luis Elkoro eta Pello Garitano asko maite ditut. Jose Luis ezagutzen dut aspalditik, gaztetatik, alkate izan aurretik. Libre laga eta biharamunean hemen izan nuen bisitan. Haren aldeko omenaldian ere izan nintzen. Ez zegoen kartzelan egoteko motiborik. Horrenbeste gauza on egindako gizona, adin horrekin...

> "Peñagarikano, Egaña eta Amuritza bertsolariak oso etxekoak ditut"

> "Goizeko seiak arte egon naiteke bertsoak idazten, irakurtzen, pintatzen..."

Bertso-paperak idazten dituzu.

Bai; lehen bilduma banatuta daukat herritarren artean. Eskaini dizkiet bertsoak Bergara eta bergararrei, Txarrantxa jatetxeari, Pertxako sukaldariei, Egaña eta Peñagarikano bertsolariei, Elorregiri, Ozaetari, Gonzalez Bastida eta Gonzalez Chirlaque aita -seme musikariei...

Egaña eta Peñagarikano zeure upategiko "zaindari" dituzu.

Bai, oso lagunak ditut. Bueno, lagunak baino gehiago, etxekoak. Egañak laga egin zion Elorregiko jaietara etortzeari eta Amuritza hasi zen etortzen, eta harekin ere adiskidetasun handia daukat. Etxera sarri etorri izan dira.

Zu zeu ez zara Bergaran jaioa...

Ez, zornotzarra naiz eta 6 urte betetzeko nintzela etorri ginen Bergarara. Aita zornotzarra eta ama bilbotarra nituen. Aita oso azkarra eta diru kontuetarako oso fina zen. Arrasateko Zerrajerara etorri zen lanera. Kontabilitatea eroaten zuen. Libreta zurietan idatzita. Peritua zen eta Arrasateko eta Bergarako Zerrajeran kontabilitate eta antolaketa berria jarri zituen 1932an. Aita hil eta urtetara etorri ziren Zerrajerara Bedoc enpresako ahokulariak eta harrituta geratu ziren zelan zegoen dena antolatuta.

Oso baserrikoa izan zara, baserritarra ez izan arren.

Inguruko baserri guztiak ezagutzen ditut. Ez naiz baserritarra izan, baina uste dut nire arbasoren bat izango zela. Etxean sekulako ortua neukan lehen: marrubiak, porruak, zerbak, berakatzak, kipulak...

Mende erditik gora Biltokirekin.

Semarrak eta biok zabaldu genuen. Gure amak bazeukan janari denda bat eta alargun geratu zenean esan zigun: "Hara, hemen daukat dirutxo bat, ez da gauza asko, eta dendatxo bat ipini beharko genuke". Hala ipini genuen denda Galartzaneko etxean. Aita hil eta gutxira Zerrajeran hasi nintzen lanean 17 urterekin, bulegoetan. 12 duro hilean irabazten nuen. Estraperloan botila olioak balio zuen adina. Dendak gauza bat dauka: etxekoak egon behar du beti bertan. Gainean egon behar du, negozioak iraungo badu. Eta jendea, bezeroak, ondo zaindu behar dira: ondo artatu, erraztasunak eman...

NIRE HERRIAN

:) HERRITARRAK, KULTURA...

Bergara da munduko onena, herri zoragarria, eta bergararrek dute gozotasun berezia. Jende ona, kultura handikoa. Eta komertzioa ona... Horrekin ez dut esan nahi Mondragoen, esaterako, jende txarra dagoenik, e! Nire senarraren aita mondragoetarra zen, On Elias Aspiazu maisua.

:(HERRIA SALTZEN JAKIN EZ

Zaila da norberaren herriaren gainean gauza onak ez esatea. Lehen-eta esaten zen tonto harro samarrak ginela bergararrak, baina hori hala izan bazen ere, gaur egun ez da horrela. Nire ustez, ez dakigu herria kanpoan saltzen. Huts egiten dugu. Asko daukagu saltzeko, baina ez dakigu egiten.

HERRIAK

Emakumeon memoria historikoa berreskuratzeak prezio txikia dauka

- DVD bat egiteko, arrasatearron laguntza eskatu du Intxorta elkarteak: 12 euro
- Arrasateko emakumeen testigantza "isilpean" egon dela esaten dute elkartekoek

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Memoria historikoa ez da guztiz berreskuratuko, oraindik isilpean jarraitzen duten protagonista batzuen memoria ere gogora ekarri arte: emakumeena. Hori sinistuta, Arrasateko Intxorta 1937 kultur elkarteko kideak lanean hasi dira, DVD bat egin guran. Lan horretan, ahotsa eman gura diote gerra garaiko emakume arrasatearrei: euren bizipenak, borroka, pentsamenduak... gogora ekartzeko. Datorren urtean aurkeztu gura dute DVDa. Proiektuaren oraingo izenburua da *Emakumeen inguruko dokumentala. Arrasate 1936, gerra eta errepresioa.*

Ez da eurek egiten duten horrelako lehenengo lana; baina oraingoan, herritarrei dei bat egiten hasi dira. Hain zuzen, proiektua aurrera eramaten laguntzeko gertu dauden arrasatear guztiei 12 euroko laguntza eskatzen diete. Intxorta 1937 elkarteko kide Julia Mongek honela azaltzen du: "DVDak 12 eurotan saltzen ditugu; bada, oraingoan, alderantziz hastea erabaki dugu, hau da, jendeari eskaera hori eginez". Mongeren esanetan, herritarrek badakite Intxorta elkarteak "borondate handia" baina diru gutxi duela, eta orain arte ere beti primeran portatu da eurekin: "Jendea dagoeneko hasi da dirua ipintzen. Ingurukook ezagutzen dute gure egoera eta baloratzen dute guk egiten dugun lana. Batzuetan, DVDa kostatzen zen baino diru gehiago eman izan digute", esaten du Mongek.

Hori eskertzeko, DVDa ateratzen dutenean, txosten edo liburuxka batekin aterako dute, eta hor, dirua ipini duten guztien izenak jasoko dituzte, laguntzaile izan direla aitortuaz.

Dirua honako kontuan sartu behar da: Euskadiko Kutxan, 3035 0001 57 0010105700. Oso garrantzitsua da izena eta bi abizenak ipintzea.

Elkarrizketak egingo dituzte

Mongeren esanetan, "aspalditik" zebiltzan Intxortakoak kezka horrekin: "Gerraren inguruan kontatzen ziren pasadizoetan beti gizonezkoak agertzen ziren, eta nik beti galdetzen nuen ea non zeuden emakumeak. Beti buruan geneukan kontu bat zen. Bada, orain dela gutxi Aretxabaletan gerrak izan zuen eraginaren gaineko DVDa aurkeztu dugu; Elgetako interpretazio gunea eta dokumentala ere bai... eta pentsatu genuen ondo legokeela orain aurrera eroatea proiektu hau". Gaineratzen duenez, "orain arte, isilik gorde izandako kontuak dira, emakumeenak are gehiago. Jendeak beldurra izaten du. Baina orain, ateratzen hasi dira".

Zerotik ez dira abiatuko, baina; herritarrok dagoeneko ematen hasi diren laguntza ekonomikoaz gain, oinarri dokumental bat badaukate, orain arteko erakusketetarako erabili izan dituztelako gerra garaiko emakumeen argazkiak.

Horrez gain, lekukotza batzuk ere badituztela esaten du Mongek. Gehiago batu gura dituzte DVDrako. Elkarteko ordezkari horren esanetan, lana egiteko modua izango da elkarrizketak egitea. "Gu joango gara elkarrizketak egiten; gero, batzuetan, elkarrizketa batetik informazio edo aztarna gehiago irteten da. Kate bat sortzen da".

Dagoeneko badaukate elkarrizketatu gura dituzten batzuen izenak.

Berregitea, lan eskerga

Oraindik ez daukate zehaztuta zelako ikus-entzunezkoa izango den; izan daiteke dokumental erara egindako filma, elkarrizketekin. Beste aukera bat da, *Malko gorriak: Gerra Zibila Aretxabaletan* DVDrako egin zuten moduan, aktoreekin eta boluntarioekin, orduko gertaerak, giroa...berregitea. Lehenengo gidoia izan beharko dute, eta gero erabaki.

Berregiteak desabantaila bat du: aurrekontua asko puztuko lukeela eta lan eskerga dakarrela. Intxorta elkarteko kide horrek Aretxabaletako berregitea zelan egin zuten gogoratzen du: "Boluntarioak ziren, musu truk egiten zuten lan, baina euren jantziak alokatu egin behar izan genituen; adibidez, Guardia Zibilaren uniformeak oso garestiak ziren. Horrez gain, kamioi bat erabili genuen, eta hura ere errentan hartu behar izan genuen".

Honako DVDrako 12.000 euroko hasierako aurrekontuarekin kontatzen dute. Horregatik ere, deialdi honi lelo bat ipini diote: *1.000 pertsona egia osatzeko.* Dena dela, 1.000 laguneko kopuru hori sinbolikoa da.

Geratzea ere, "oso gogorra"

Eta DVDan zer topatu dezakegun pista bat ematen digu Julia Mongek: "Batzuk frontera joan ziren; beste batzuk herrian gelditu ziren, eta hori ere oso gogorra zen; azken horien egoera ere adierazi gura dugu. Emakume asko alargun geratu ziren eta seme-alaba txikiekin. Beste batzuk ihes eginda egon ziren, leku askotan".

Emakumeek bozkatzeko eskubidea izan zuten lehenengo hauteskundeak, 1931n, Eibarren. | OJANGUREN FONDOA. ITURRIA: JOSUREN MURGIZU

ESANAK

"Alderantziz hastea erabaki dugu; hau da, dirulaguntza eskatuz"

"Gerrako kontuak isilpean egon dira, batik bat emakumeenak"

JULIA MONGE
INTXORTA ELKARTEKOA

DATUA

12
EURO

Hori da Intxorta 1937 elkarteak arrasatearrei eskatzen dien laguntza DVDa egiteko. Kontu bat zabaldu dute Euskadiko Kutxan.

Haitiren egoera azalduko dute eguenean, Kulturaten

UBANE MADERA | ARRASATE

Hamar hilabete pasa dira Haitin 47 segundoko lurrikara batek 200.000 hildako, 350.000 zauritu eta 250.000 etxe birrinduta utzi zituenetik. Bada, gaur egungo Haitiko egoera zelakoa den esplikatzeko hitzaldia antolatu du gobernuz kanpoko Harreman erakundeak.

Mesedeetakoak hizlari

Eguenean, azaroaren 25ean da hitzordua, Kulturaten, 19:00etan. Hizlariak dira Mesedeetako hiru ahizpa, Haiti berreraikitzen laguntzen dabiltzanak: Arantza Ipiña arrasatearra, Maria Luisa Ugarte oñatiarra eta Felisa Larrea aramaioarra.

40. 000 euro pasa Haitirako

Bestalde ekitaldi berean, Harreman erakundeak Haiti berreraikitzeko batu dituen 41.331 euroak entregatu egingo ditu.

Hainbat iturritatik batu dute dirua: partikularrengandik 11.062 euro; Mundukiderengandik 20.000 euro; Aretxabaletako Udalak 9.165 euro eman dizkie; UDA taldeak 685 euro; Arizmendiko Santa Teresa gunekoek 419 euro eta Arrasate Bizirik elkartearekin egindako pintxo poteoan 2.144 euro batu zituzten. Bada, lagundu dutenei Harremanek gura die adierazi dirua lurrikarak kaltetutakoei helaraziko dietela. Hitzaldian emango dute erabileraren berri.

UBANE MADERA

Astelehenetik geraleku berria

Markesina berria ipini dute asteon Nafarroa etorbidean, Udaltzaingoaren ondoan. Izan ere, astelehenetik aurrera (azaroak 22) bertan geratuko dira Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagara doazen autobusak, eta baita Arrasateko urbanoa ere. Etxetxikiak kaleko geralekua ordezkatuko du berri horrek.

Teresa Haran, Harreman-eko kidea, zozketatuko dituzten koadroekin. | J.B.

Herriko artea baliatu txiroenei laguntzeko

Harreman-ek herriko lau artistaren lanak zozketatuko ditu zarzuelan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Harreman Arrasateko gobernuz kanpoko erakundea ekimen berri batekin dator: herriko lau artistaren koadroak zozketatuko dituzte zarzuelan. Hilaren 20an, 21ean, 26an eta 27xan egingo diren emanaldietan koadro bana zozketatuko dute, Amaian bertan. Koadroak herriko artistak egindakoak dira: Martxen Arana, Nerea Bilbao, Begoña Kortabarria eta Iñigo Arregirenak (horren koadroa falta da argazkian).

Harreman-ek, beraz, Izaskun Murgia elkarte lirikoarekin elkarlanean antolatu du zozketa. Errifak emanaldiaren hasieran eta deskantsuan erosi ahalko dira, euro baten truke. Ondoren etorriko da zozketa: emanaldian zehar izango da, etenaldi txiki bat aprobetxatuz –agertoki aldaketa egongo delako.

Dirua, India eta Mozanbikera

Ekimenaren helburua da Harreman herrialde txiroetan bultzatzen ari den proiektuak diruz laguntzea. Bi ekimen dira: bata, Indian; eta bestea, Mozanbiken. Indiakoa Ankur proiektua da, Munbaiko periferian kokatutako umezurtz-etxe bat laguntzea helburu duena. 2005a ezkero dihardu Harreman-ek bertarako lanean.

Mozanbikeko egitasmoak, berriz, Niassa probintzian dagoen Marrupa barrutiko garapen sozioekonomikoa du helburu. Mundukide elkarteak bederatzi urte daramatza bertan lanean; bada, Harreman ere gehitu da. Egoera asko hobetu da bertan: azpiegiturak eraiki dira oihana eta auzoak hobeto lotzeko eta ekimen kooperatibo txikiak bultzatzea lortu dute, esaterako.

Herritarrengana laguntza eske

Harreman gobernuz kanpoko erakundearen helburu nagusietako bat da arrasatearra herri txiroenekin sentsibilizatzea. Herrialde pobreetan egiten ari diren lana finantzatzeko herritarrengana jo du Harreman-ek. Zozketaz gain, lagundu gura duenak zabalik ditu Kutxa, Euskadiko Kutxa eta Caja Navarra bankuetako kontuak.

Azkenik, herritarrez haratago, gobernu zein erakundeen inplikazioa ere sustatu gura dute, garapen bidean dauden herrialdeen alde.

NIRE USTEZ

OIHAN ZUBIZARRETA

Goiena" komatxoen

Goienak" komatxoak hartu ditu marka gisa. Izenaren atzeko, izanaren abizen. Otu zait urteurren borobil bati jarririko puntu suspentsiboak ote diren, hurrengo urteen jarraipenaren irudi. Edo izan daitezke esaten ez den horri bidea irekitzen dien bi marratxo. Uler bedi, komatxo artean, kontuak hobeto uler daitezen akaso.

Komunikazioan komatxoek besteek esanari irekitzen ohi die atea.

Halaxe nahi nuke, besteen ahotsari bide emateko marraztu direla hor.

Beste horien, herritarren, ispilu eta leiho izateko asmoz. Bihur daitezela komatxoak gure ahotsen bozgorailu, iristen zaizkigun uhin, islatzen gaituzten paperorri.

Eta ari dadila gertatzen denaz, paper eta uhin handietatik itzal egiten dioten guzti horri leku eginez. Zuzenkeria gabe, baina zuzen.

Segi dezala komatxoak irekitzen albokoari, hurbilekoari, tokikoari, herrikoari. Gurean, gertukoan jar dezagun komatxoa.

Hemendik eginez, inguruari bista kendu gabe. Inguratzen gaituenaz, hemengoaz ahaztu gabe.

Saia dadila handienarenak ez erreproduzitzen, ez gaitezen ezarritako marketan erori. Nire eskaera txikiok izan daitezela, komatxo artean, aurrerabidean akuilu, bultzada, arnasa eta esker ona. Gertukoaren marka, nortasunarena eta jatorra. Ez dezagun gure marka galdu...".

"Segi dezala komatxoak irekitzen albokoari"

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua

Gubi

ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
ARRASATE
Tel.: 943 79 12 74

Restaurante
UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



Antzerkia, dantza, pintxo-poteoa eta beste, Corazon de Encinan

Asteburuko jaia antolatu dute elkartearen XX. urteurrena ospatzeko

UBANE MADERA | ARRASATE

Badira 20 urte Arrasateko extremadurarrak batzen dituen Corazon den Encina elkartea sortu zutela. Santa Marinako Fronton tabernan izan zuten egoitza hasieran; gaur egun, berriz, San Andres auzoan dago kokatuta elkarte extremadurarra, Araba etorbidearen 3. zenbakian.

Bada, justu hantxe antolatu dituzte XX. urteurreneko ospakizun ekitaldiak, zapatu eta domekarako. "Ekitaldi guztiak dira denei irekiak, herri afaria izan ezik, leku arazoengatik", azaldu du Esteban Sanchezek,batzordeko kultura arloko arduradunak. Izan ere, herri afarirako 100 lagunendako lekua dute eta Corazon de Encina elkarteak berak 135 familia ditu bazkide: "Ia guztiak Arrasatekoak, nahiz eta Aretxabaletakoren bat ere baden. Caceres eta Badajozkoak, bietakoak dira bazkideak, Badajozko Serena eskualdekoak gehienak".

Antonio Valor presidentea eta Esteban Sanchez kultura arduraduna. | U.M.

Emakumearen independentzia

Kontuak kontu, gainontzeko ekitaldietan parte hartzeko gonbita egin gura diete arrasatearrei, eurekin gura dituzte-eta partekatu euren "tradizio eta kulturan oinarritutako egitaraua", Antonio Valor elkarteko presidenteak esandako moduan.

Adibidez, biharko, zapatua, Almendralejoko (Extremadura) Verbo Producciones taldearen La Posadera komedia taularatuko dute, 23:15ean. Aristokraziaren gainbehera irudikatzen duen antzezlana da hori, bereziki emakumearen independentzia aldarrikatzen duen antzezlana. Sarrera doan da.

Zapatuan bertan, besteak beste, iluntzean (20:00), magia eta umorezko saioa egingo du Jesus Lavirgen Gasteizko magoak. Hor ere sarrera doan da.

Gastronomikoa: pintxo-poteoa

Eta domekakoari dagokionez, Extremadurako gastronomian oinarritutakoak dira ekitaldi gehienak. Adibidez, txorizoa brasan erreta, pintxo morunoak, iberikoak, patata tortillak eta beste prestatuko dituzte, 13:00etan pintxo-potean banatzeko elkartera doazenen artean, doan.

Arratsaldean, berriz, txokolate-jana egingo dute, Extremadurako gozoekin emateko: perrunilloak (txerri-gantzarekin eta irinarekin egindakoak), hojaldreak eta hango erroskilla tipikoak, besteak beste.

EGITARAUA

ZAPATUA

16:00-18:00 Cuatrola, mus eta txintxon txapelketak.

20:00 Magia eta umorea.

23:15 *La Posadera* antzezlana.

00:15 Musika eta dantza.

DOMEKA

12:45 Agintariei ongietorria.

13:00 Pintxo-poteoa, doan.

16:00-17:00 Mahai jokoen finalak.

18:30 Txokolatea, gozoekin.

Hainbat ekintza emakumeen kontrako indarkeriaren aurka

Azaroaren 25a da emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguna. Udaleko Berdintasun Sailak egutegian gorriz markatutako eguna da eta hainbat ekintza antolatu ditu, ez bakarrik hilaren 25erako. Martitzenean aurkeztu zuten egitaraua eta eguaztenean bertan hasi ziren ekintzak. Hala ere, datorren astean izango dira ekintza aipagarrienak. Kartela Alberto Encinasek egin du aurten: *Berandu baino lehen* izan da aukeratu duen leloa.

Gabonen aurretik azken baserritarren azoka egingo da bihar

Hileko hirugarren zapatuan egiten den baserritarren azoka izango da bihar Seber Altuben, 09:00etatik 14:00etara. Berezia izango da biharkoa, Gabonak heldu aurretik azkena izango delako. Udala pozik dago ekimenak herritarren artean erantzun ona izan duelako eta espero dute datorren urtean ere ekimenarekin aurrera egitea. Baserritarrendako aukera paregabea da dituzten salmenta urriak zertxobait hobetzeko.

ZURE GABONETAKO OPARI EKOLOGIKOA

BIZIKLETA ELEKTRIKOAK

TUCANO kontzesionarioa

575 €

TUCANO BASIC 4TH
Motorra: 250 W Brushless
Berunezko bateria: 24V / 12Ah
Autonomía: 20-40Km
Tolesgarria
EEEren (EVE) dirulaguntza: %25 abenduaren 31ra arte bakarrik.

956 €*

TRIZIKLO ELEKTRIKOA

922 €*

TOLESGARRI ELEKTRIKOA

994 €*

MENDIKO ELEKTRIKOA

ERAKUSKETA ETA PROBARAKO BIZIKLETAK %40* ko AURREZPENA (KOPURU MUGATUAK)

Motorra: 250 W Brushless con SFR - Aldapa behera bateria berriz kargatzeko sistema -
Litiozko bateria.: 36v – 10 Ah Lithium.
Xasisa eta beste atal guztiak, aluminiozkoak
Autonomia: 35 - 70 Km

* EEEren (EVE) dirulaguntza barne

en-medio

Loramendi 2
20500 ARRASATE - GIPUZKOA
943 796 720 / 617 469 546
en-medio@en-medio.com
www.en-medio.com

Aikido taldea Pakistango uholdeetan kaltetutakoak laguntzen saiatuko da

Azaroaren 27an Uarkapen egingo duten erakustaldia erabiliko dute dirua batzeko

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Arrasateko Aikido Elkarteak 10. borroka arteen gala antolatu du hilaren 27rako Uarkapen. Hainbat urtean ekimenik egin barik egon ostean, iaz erakustaldia berriro antolatzera animatu ziren, baina ekitaldi hori ez zuten erabili, lehen egiten zuten moduan, GKE batendako dirua batzeko: "Mojategin egin genuen erakustaldia, eta oso gustura geratu ginen. Izan ere, 2006a ezkero ez genuen horrelakorik antolatzen eta aurten lehengo ohiturei heldu nahi izan diegu, ekitaldia ekimen baten alde egiteko baliatu", adierazi digu Arrasateko Aikido Elkarteko irakasle Jose Manuel Matasek.

Hala, hilaren 27an bi helburu izango dituzte Aikidoko lagunek: "Batetik, modalitate ezberdinetako borroka arteak herritarrei erakutsiko dizkiegu; eta bestetik, ekimen baten alde egiteko diru apur bat batuko dugu".

lazko erakustaldiko une bat, Mojategin. | GOIENKARIA

Lehen, Hiruatxekin

Lehenagoko urteetan Aikidokoek antolatzen zuten erakustaldiak balio izaten zuen Hiruatx gobernuz kanpoko erakundeari laguntzeko: "Talde horretako kide Jose Mari Sarasua zenak erakustaldia egiten laguntzen zigun, eta ekimen polita zen". Aurten, berriz, erabaki dute ekitaldian batzen duten dirua erabiltzea Pakistango uholdeetan kaltetuak izan zirenei laguntzeko, eta, hainbat babesleren laguntza izatearekin batera, ikusleek bi euro ordainduko dituzte Uarkapera sartzearren, era sinbolikoan, Aikodokoen ekimenaren alde egiteko.

Bost talderen laguntza

Hilaren 27an hainbat borroka artetako taldeek hartuko dute parte erakustaldian, Aikidoko lagunek gonbidatuta: "Ikuskizun erakargarria antolatzea da asmoa, eta, horretarako, ibarreko eta Euskal Herriko hainbat talde gonbidatuko ditugu". Besteak beste, karate, aikido, tai txi, shurinjikempo eta shinkyokushinkai borroka arteak egiten dituzten taldeak izango dira Uarkapen. "Eta ekitaldiarekin laguntzeko asmoa duten babesle eta herritarrei dagokienez, lehen egiten genuen moduan orain ere erabat zehaztuta izango dugu nora bideratuko dugun batuko dugun euro bakoitza".

ESANAK

"Ekimena erabiliko dugu borroka arteak erakusteko eta dirua batzeko"

JOSE MANUEL MATAS | ARRASATE AIKIDO ELKARTEKO IRAKASLEA

ZALDIBAR

EMAITZAK

Iluntz - McAwenDauen	3-5
Steaua del Grifo - Cipris	1-13
Dublin-Portaboleiros	0-3
Ekaitz-Fuxxion	8-1
Abokajarro-Lasagabaster	5-5
Dribling-Betrayer	7-2
Fidel & Disc-Iriztu	2-3

SAILKAPENA

	TALDEA	P	J
1	Iriztu	12	4
2	Lasagabaster	10	4
3	McAwenDauen	10	4
4	Dribling	9	4
5	Cipris	9	4
6	Ekaitz	9	4
7	Portaboleiros	9	4
8	Iluntz	4	4
9	Abokajarro	4	4
10	Betrayer	3	4
11	Dublin	2	4
12	Fidel & Disc	0	4
13	Fuxxion	0	4
14	Steaua del Grifo	0	4

PARTIDUAK

Azaroak 20, zapatua
10:30 Ekaitz - Betrayer / **Iluntz**
11:30 Iluntz - Cipris / **Ekaitz**
12:30 Abokajarro - Iriztu / **Cipris**
16:00 McAwen. - Portaboleiros / **Dublin**
17:00 Dublin - Lasagabaster / **McAwen.**

Azaroak 21, domeka
11:30 Dribling-Fidel & Disc / **Fuxxion**
12:30 Steaua del Gri. - Fuxxion / **Fidel &.**

Lasagabaster taldeko jokalari bat zigortuta

Lasagabaster taldea izan da, aurrealdean dabiltzanen artean, asteburuan irabazi ez duen bakarra. Berdindu egin zuen, Aboka taldekoen kontra, eta partidu amaieran istiluak izan ziren. Lasagabaster taldeko jokalari batek epailea iraindu zuen, eta zigorra jasoko du horregatik.

Besaidek Betelura irteera antolatu du hilaren 28rako

Betelutik (Nafarroa) Larraitzera (Gipuzkoa) arteko mendi zeharkaldia antolatu du Besaide Mendi Elkarteak azaroaren 28rako, domeka (egun osorako izango da). Eta antolatzaileak datorren astelehenetik eguaztenera arte (hilak 22, 23 eta 24) egongo dira irteera horretarako izenak hartzen (19:30-20:30).

Bartzelonara Reala ikustera joateko azken sarrerak geratzen dira

Arrasate Txuri-Urdin taldeko lagunek abenduaren 11ko eta 12ko astebururako Bartzelonara antolatu duten bidaiak harrera ona izan du. Aste barruan 30 lagunek baino gehiagok eman dute izena, eta guztira 55 lagunendako tokia dago; horrenbestez, azkar ibili beharra dago. Autobusa, Codorniu upategira bisita, hotela eta sarrerak 170 euro balio du.

Ford Mugarri Arrasate El Pilar taldearen kantxara bihar

Arrasateko eskubaloi taldeko mutilek Gasteizera egingo dute bidaia bihar, zapatua (16:30). Hamaika punturekin, dagoeneko sailkapenean bigarren, Edu Orgazen mutilek aurrealdean dabilen taldea izango dute bihar aurrean; biharko kontrarioa laugarren dago sailkatuta, hamar puntu batuta.

URONDO
Elektrizitatea

* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Alejandro Franko: "Lehia estua izan da, kosta egin zait irabaztea"

X.U. | ARRASATE

Arrasate Hiria xake torneoan, pronostiko guztiak beteaz, eta aurreko jardunaldietan lortutako puntu erdiko abantailaz baliatuta, Alejandro Francok hirugarren aldiz eskuratu zuen txapeldunaren garaikurra; Fran Miguel aretxabaletarrarekin uste baino azkarrago egin zuen parra. Kontrario zuzen ziren David Astasiok eta Iñigo Argandoñak, berriz, zeukatena eman zuten bigarren sailkatzeko lehian. Lau orduko partidan Astasio –bigarren– bikain defendatu zen donostiarraren erasoen aurrean, eta hor ere parra egin zuten. Argandoña izan zen hirugarren, Fran Miguel laugarren, Aitor Alcaide bosgarren eta Isidro Ruiz seigarren.

Zapatu goizean egin zuten txapelketako sari banaketa. | JOSETXO ARANTZABAL

"Obra guztiak izan dira ezberdinak, baina hau... Ez du argumenturik; hala ere, oso-oso polita da"

- Izaskun Murgia elkarte lirikoak bihar estreinatuko da Amaian 'La Gran Vía' zarzuela, 19:30ean
- Estreinaldirako eta beste hiru emanaldietarako sarrerak badaude oraindik Interneten, 17 eurotan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Bihar da eguna, ordu gutxi batzuk besterik ez da falta. Bihar estreinatuko du Izaskun Murgia elkarteko lirikoak *La Gran Vía* zarzuela, Amaia antzokian (19:30). Dagoeneko ez dago atzera bueltarik, atzo egin zuten entsegu orokorra Amaian bertan: ikusle barik egin zuten, baina ikusleak egongo balira bezala.

Gaurko eguna deskantsurako eta urduritasunak baretzeko erabiliko dute. Izan ere, Tere Gonzalez zuzendari orokorrak dioenez, "urduri" dago taldea, "betiko moduan": "Zarzuela bat egin edo hamaika egin, estreinaldiaren aurretik beti egoten gara urduri. Estreinaldia da, lehen aurkezpena, eta xarma berezia du niretako. Gainera, hobe urduri egotea, estreinaldiaren aurretik lasai-lasai egotea baino". Urduritasuna egoteak tentsioa dagoela esan gura du eta tentsioa ez da txarra, zuzendari orokorraren ustez: "Dena neurrian, noski", dio. Hori bai, agertokira irten aurretik talde osoa batzen da urduritasunak uxatu eta elkarri animoak emateko.

Entseguak, bestalde, "ondo" doaz: "Entseguak ez doaz gaizki, baina aurten jende berria dago eta entseguetan ondo aritu arren ez dakit nola erantzungo duten agertoki gainean". Domekan, esaterako, hiru ordu eta erdi egon ziren lanean, azken ukituak ematen.

Obrari dagokionez, honakoa dio: "Obra guztiak izan dira ezberdinak, baina hau...Ez du argumenturik. Elkarren artean loturarik ez duten atal ezberdinez osatuta dago. Hala ere, gertukoen dudana delako izango da agian, baina oso-oso polita da".

Tere Gonzalez aurtengo kartela eskuan eta iazko argazkia atzean duela. | J.B.

Jende askoren izerdiaz egina

Zarzuelan herriko jende askok hartzen du parte. Hor dago, hein handi baten, arrakastaren gakoa: herriak herriarendako egina dela, hain zuzen. Aurten 100 lagunek baino gehiagok hartuko dute parte; agertokian 50 inguru, musikaz arduratuko den Arrasate Musikalen orkestra sinfonikoan 40 bat kide eta ikusten ez den lana egiten –trajeak egiten, dekoratua, makillajea...– beste hainbat lagun. Sarrerak Interneten daude oraindik, 17 eurotan (*www.generaltickets.com/kutxa*).

ESANAK

"Urduri gaude, baina hobe hori estreinaldiaren aurretik lasai-lasai egotea baino"

TERE GONZALEZ | ZUZENDARI OROKORRA

Ikasle eta irakasleek Kulturaten joko dute. | ARRASATE MUSIKAL

Arrasate Musikalek bi kontzertu eskainiko ditu gaur Santa Zezilia eguna ospatzeko

Ikasleek Kulturaten joko dute (18:30) eta bandak kalejira egingo du (19:30)

J.B. | ARRASATE

Santa Zezilia musikarien santuaren eguna ospatzeko, Arrasate Musikalek bi kontzertu antolatu ditu gaurko. Berez ez da gaur Santa Zezilia eguna; astelehenean, hilak 22, ospatzen da. Hala ere, Arrasate Musikalekoek aste bukaera aprobetxatu gura izan dute ospakizuna herrira zabaltzeko. Izan ere, Edorta Aiastui Arrasate Musikaleko kideak azaldu duenez, ez da gauza bera halako ospakizun bat astelehen baten edo aste bukaeran egitea.

Ikasleak Kulturaten...

Esandako moduan, bi emanaldi egingo dituzte Arrasate Musikalekoek: lehena ikasleek eskainiko dute Kulturateko areto nagusian, 18:30ean. Eskolako ikasle eta instrumentalistek hartuko dute parte; askotariko instumentuak entzun ahalko dira: saxofoiak, pianoa, akordeoia, biolina, flauta, oboea, klarinetea... Irakasleek ere hartuko dute parte emanaldian: Mario Fernandinok saxofoia joko du, Marta Izagirrek eta Isabella Blezien-ek pianoa eta Karmele Irazabalek, azkenik, akordeoia.

Emanaldiaren egitarauari erreparatuz, 15 pieza inguru joko dituzte. Besteak beste, Beethoven -en *Bederatzigarren sinfonia*, Bach-en *Minuetoa* eta Haendel-en *Diewerde* entzun ahalko dira. Sarrera doan izango da.

...eta banda herriko kaleetan

Bestalde, urtero moduan, Arrasate Musikaleko bandak kalejira egingo du herriko kaleetan. Beraz, gaurko poteoa berezia izango da, goi mailako musikak girotua izango da-eta. Mikel Markiegiren zuzendaritzapean alde zaharrean joko du bandak. 19:30ean hasiko dira kaleak girotzen eta afalordura arte ariko dira. Bi pieza interpretatuko dituzte, behin eta berriz errepikatuz.

Txikilandian begirale izateko izenematea, hilaren 30a baino lehen

Txatxilipurdik begiraleak behar ditu Gabonetako parkerako. 2011ko urtarrilaren 2an, 3an eta 4an egingo da, goiz eta arratsaldez –11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara–. Izena emateko azken eguna azaroaren 30a da. Argibide gehiagorako, *kultura@txatxilipurdi.com* helbidera idatzi edo 943 79 54 46 telefonora deitu.

The Hot Wok taldeak itxiko ditu azaroko 'Kooltur ostegunak'

Kooltur ekintza taldearen *Kooltur ostegunak* ekimena aurrera doa. Atzo Capsula taldeak jo zuen eta azaroko azken kontzertua Gasteizko The Hot Wok taldeak eskainiko du, hilaren 25ean (22:00). Kaleko jazza ekarriko dute gaztetxera, eta inprobisaziorako tarterik ez da faltako. Finean, goi mailako saioa.

SAIO IREKIAK GUZTIONTZAT

HASIERA: Azaroak 21 (domeka).
ORDUA: 18:00-20:00
EGUNAK: 3. domeketan, azarotik apirilera.
NON: Arrasateko KULTURATEN.

IRTEERAK:

Gure kanta irteeretan ere parte hartzeko aukera izango duzu (Donostia, Gernika, Otxandio, Arrasate…).

Antolatzailea
PORTALOI taldea
Herriko kanta eta dantzak

Agurne Barruso | Alkatea

"Herritarrekin egin nahi dugu Plana"

2020ra arteko udalerriko Plan Estrategikoa egin nahi du Udalak; alkateak xehetasunak eman ditu

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Zeren gaineko Plan Estrategikoa egin nahi duzue?

Epe luzerako hausnarketa egin nahi dugu; hau da, jakin nahi dugu nolako Bergara izan nahi dugun 2020an. Izan ere, 2020an nolakoa nahi dugun zehazten dugunean, uste dugu errazagoa izango dela agintaldikako, urtekako... planifikazioak egitea. Baina beti ipar garbi batekin. Horrek izaera estrategikoa ematen dio planari. Bestalde, nahi izan dugun da Udal Gobernuak egin beharrean, bada, herritarrekin partekatzea hausnarketa hori, uste dugulako herritarrok badakigula zer nahi dugun. Horregatik, prozesu parte-hartzailea egin dugu eta, gainera, pentsatzen dugu, herritarren proposamena izanez gero, eta Udalean dagoen gobernua egonda ere, herritarren hitza izango duela. Gero, berak ikusiko du errespetatu ala ez.

Zergatik halako plan bat?

Agintaldian barrena ikusi dugu askotan erabakiak hartzen direla perspektiba barik, egunerokoari erantzuteko. Baina gaur hartutako erabakiak etorkizunean ere ondorioak ditu. Hortaz, komeni da edukitzea iparra, nora joan nahi duzun jakin, epe motz eta ertaineko erabakiak hartzeko.

Zer jasoko du planak?

Batetik, gaur egungo egoera; bestetik, zer-nolako Bergara nahi dugun eta hori lortzeko ze estrategia garatu behar diren. Horrekin izango ditugu iparra eta estrategiak. Gero hori planifikazio txikiagoetara ekarriko da.

Agurne Barruso. | M.B.

Herritarren parte-hartzea nola gauzatuko da?

Batetik, osatuko dira bost lan arlo: biztanleria, garapen ekonomikoa, zerbitzuak eta ekipamendua, lurralde antolamendua eta ingurumena eta herrigintza. Hor, dauden datu objektiboak jaso eta ondorioak aterako dituzte. Hala, arlo horietan gaiaren gaineko interesa zein ezagutza daukan edozein herritarrek parte hartu ahal izango du. Horretarako, hiru batzar egingo dira, lehenengo biak azaroan eta abenduan; hirugarrena, prozesuaren amaieran, herritarrek landutakoari ekarpenak egiteko. Bigarren fase baten herritarren parte-hartzea zabalagoa izango da. Herria hiru eremutan banatuko da: landa eremuko auzoak, herriko auzoak eta herrigunea eta eremuka lau batzar egingo dira (bi ordukoak), urtarriletik martxora. Hain justu, herritarrei parte hartzeko eskatu nahi diet.

Euskarazko liburuen truke azoka asteburuan

Jardunek antolatu du eta azoka egingo dute San Martin plazako arkupeetan gaurtik domekara arte

M.B. | BERGARA

Liburu asko jaso dute Jardun euskara elkartean aste bukaeran egingo duten euskarazko liburuak trukatzeko azokarako.

Azaroaren 2an ekin zioten erabilitako liburuak batzeari eta Jarduneko kideen esanetan, "oso pozik" daude lehenengoz antolatu duten ekimenak izandako erantzunarekin. "Haurrendako literatura, helduena, bildumak...", denetarik jaso dutela esan dute antolatzaileek. Gainera, guztiak egoera onean daudela ere aurreratu dute, "horixe zen-eta liburuak ekartzeko baldintzetako bat", gehitu dute Jardun elkarteko teknikariek. Egitasmoaren helburu nagusia euskal irakurketa suspertzea dela ere ekarri dute gogora, "liburuen berrerabilpena bultzatuz".

Herritarrek Jardunera eraman duten liburu bakoitzarengatik –bildumak bakar moduan hartu dira– txartel bana jaso dute. Bada, txartel bakoitza liburu batengatik trukatu ahal izango dute azokan.

Bestalde, liburuak adinaren arabera sailkatuta egongo dira (haur, gazte eta heldu) eta txartel bakoitza sailkapen bereko batengatik trukatuko da.

Azokarako batu dituzten liburuetako batzuk. | M.B.

Gaurtik domekara arte

Gaur, egubakoitza, hasiko da truke azoka. San Martin plazako arkupean egongo dira Jarduneko kideak, eta domeka eguerdira arte iraungo du.

Ordutegia honakoa izango da: gaur, egubakoitza, 18:00etatik 20:00etara; bihar, zapatua, 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara; eta etzi, domeka, 11:00etatik 13:00etara.

Martitzenean inauguratuko dute batzokia

Martitzenean, hilaren 23an, inauguratuko dute batzokiko taberna-jatetxe berritua. 19:30ean inauguratuko dute eta herritarrak gonbidatuta daude irekiera ekitaldira. Astelehenetik egubakoitzera 07:30 aldera irekiko dute eta afalostera arte egongo da zabalik. Zapatu eta domeketan, berriz, 10:00etan irekiko dute. Ostalaritzan eskarmentua duten bi bazkidek kudeatuko dute eta sei zerbitzarik jardungo dute. Astegunetan eguneko menua emango dute eta baita asteburuetan menu berezia ere; karta ere izango dute. Pintxo eta lapikotxoak ere emango dituzte.

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOLAK
Larrañaga
San Pedro, 9-Telefono, 761051
R.S.I. 209374-SS
BERGARA

中國點心
dinsun ekialdeko tapak
Etor zaitez probatzera!
DRAGON ORIENTAL Jatetxea
福龍食品
Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean) BERGARA 943 25 06 77

trinmer telecomunicaciones
tdt televisión digital terrestre
GOITB jada LTDn!
Egokitu zure antena GOITB-DIGITALA ikusteko.
TRINMER 20 urte antenetan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne
TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 – 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60 | antenas@trinmer.com | www.trinmer.com

Hauteskundeetan egoteko asmoa azaldu du ezker abertzaleak

Herri batzarra deitu dute eguaztenerako Miguel Altuna institutuan

EDU MENDIBIL | BERGARA

Euskal Herrian bakea eta demokrazia lortzeko ezker abertzalea lanean gogor diharduela azaldu zuten Enara Minguez zinegotziak eta Ibai Redondok eguaztenean prentsaurrekoan. Udal eta foru hauteskundeetan egon nahi dute eta hori lortzeko indar subiranoen arteko elkarlana ezinbestekoa dela adierazi zuten, "estatu espainoletik jartzen ari diren oztopoak gainditu ahal izateko".

Bergaran azken lau urteotan ezker abertzaleak egindako lana goraipatu zuten, "EAJk aurretik eramandako eskumako politika neoliberal eta antisozialari buelta emanez", Redondoren hitzetan. Era berean, Udaleko hainbat zerbitzu pribatu publiko bihurtzea eta herritarren parte-hartzea azpimarratu zuten; eta aparkatzeko TAO sistema bezalako erabaki zailak ere hartu behar izan direla herriaren onerako. Dena ez dela arrosa kolorekoa izan salatu zuten ezker abertzaleko kideek: "2008ko apirilean EAJ eta PSOE gu botatzeko elkartu ziren zentsura mozioa aurkezteko eta Diputazioan eta Jaurlaritzan ere elkarrekin jardun dute UNEDeko permuta oztopatuz edo AHT bezalako proiektu txikitzaileak bultzatuz". Hauteskundeetara aurkezteaz gain, Bergaran eta Gipuzkoan lehen indarra izateko itxaropena azaldu zuten.

Enara Minguez eta Ibai Redondo, *Zutik Euskal Herria* kartelaren alboan. | E.M.

Herri batzarra eguaztenean

Eguaztenerako, hilak 24, herri batzarra deitu dute Miguel Altunako aretoan, 19:00etan. Herritarrei parte hartzeko dei egin diete. Besteak beste, alderdi politiko berriaren legeztapena zelan dagoen azalduko dute bertan.

TXALOAK ETA TXISTUAK

GOIENKARIA

Agorrosingo gimnasioa, "txikiegia"

Agorrosingo gimnasioko erabiltzaile batek deitu digu, gimnasioa txiki geratu dela eta aireztatze eskasa duela esateko. Zenbait ordutan jendez lepo dago, ez dago makina bat libre topatzerik eta erabiltzaile horren ustez are eta mingarriagoa da kirolguneko hainbat gela hutsik daudelako. Aireztatze eskasa eta "jendearen izerdi putzuak" direla eta, osasun neurriak betetzen diren galdetzen du, azkenik.

OHARRAK

1966AN JAIOTAKOEN AFARIA HILAREN 27AN

22:00etan egingo dute, Torrekua erretegian. Aurretik, txikiteorako batuko dira Ariznoa tabernan, 19:30ean. Izena emateko azken eguna hilaren 25a da. Horretarako, 10 euro aurreratu behar dira Ariznoa tabernan.

HERENTZIAK BERBAGAI ANGIOZARREN

Jabier Perez abokatuak *Herentziak* izeneko hitzaldia egingo du hilaren 26an, 19:00etan, Angiozarko aretoan. Hitzordu hori antolatu dute Bizikasik eta Angiozar Bailarako Batzarrak. Interesa duten guztiak dauden gonbidatuta ekitaldira.

DJ BULL GAUR, 22:30EAN, BIDEBERRIN

Gazteria Kontseiluaren barruan sortutako ekitaldia da, Ikasleen Egunaren bueltan.

GAZTAINA-JANA OSINTXUN ASTELEHENEAN

Arimen Eguna ospatzeko gaztainak eta sagardoa banatuko dituzte, 19:00etan, Osintxuko plazan.

1985EAN JAIOTAKOEN AFARIA ABENDUAREN 11N

Tartufon egingo dute. 19:00etan batuko dira Bule tabernan poteorako eta 20:30ean abiatuko da autobusa, azoka ondotik, jatetxera. Izenematea abenduaren 4an bukatuko da. Horretarako, 35 euro sartu behar dira Kutxako zenbaki honetan: 3035 0009 17 0090086995. Harremanetarako, deitu 609 71 32 82 zenbakira (Odei).

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

disdira
ile-apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

JOXAN
ARRAINDEGIA
Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

BERGARA
Margoak
Certificado ISO 9001 por
Kalitatea eta zerbitzua.
Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.:943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. *bergara@bergaramargoak.com*

BEHEKO TABERNA
Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

"Lehen, lantegian, kontzertua geneukala esan eta jai ematen ziguten; orain, ez dago halakorik"

Jose Mari Arrondo eta Jose Mari Gonzalez omenduko dituzte domekan, Santa Zezilia kontzertuan

XABIER URTZELAI | BERGARA

Berrogeita hamar urte. Zenbateko hori beteko dute Jose Mari Arrondok (Bergara, 1946) eta Jose Mari Gonzalezek (Bergara, 1945) Bergarako Udal Musika Bandako kide moduan. Eta urrezko eztei horiek ospatzeko, bandako lagunek omenaldia egingo diete domekan, Santa Zezilia kontzertuan (12:30, Udal Pilotalekua). "Emozionatuta gaude, hori da egia, eta omenaldiaren ostean ekitaldiarekin aurrera egitea ez da horren erraza izango", diote biek. Izan ere, omenaldia ekitaldiaren erdi -erdian egingo diete: "Baina onena da omenaldia jaso arren ez dugula banda uzteko inongo asmorik", diote, barrez.

Ohiturari jarraituz, domekako kontzerturako omenduek pieza bana aukeratu ahal izan dute, euren gustukoak. Hala, Gonzalezek haren senitarteko Miguel Gonzalez Bastidak idatzi zuen *Campo de Rosas* aukeratu du eta Arrondok, *La leyenda del beso* (zarzuela).

Jose Mari Gonzalez eta Jose Mari Arrondo, martitzenean, entsegua hasi aurretik. | XABIER URTZELAI

Beste garai batzuk...

Dagoeneko bandako beterano bilakatuta, Arrondok eta Gonzalezek beste garai batzuk ekarri dizkigute gogora: "Urte hauetan guztietan asko aldatu dira gauzak. Lehen, pieza klasikoagoak jotzen genituen, eta gaur egun, pieza oso modernoak ere jotzen ditugu. Uste dugu kontzertuetara etortzen diren gazte asko harrituta geratzen direla, ez dutela halakorik espero". Hala ere, Arrondok onartu digu bera klasiko samarra dela, zarzuelak eta halakoak dituela gustuko. Beste garai batzuk dira, bai: "Lehen, lantegian kontzerturen bat genuela esanez gero inongo arazo barik ematen ziguten jai, eta halaxe ibiltzen ginen, batetik bestera. Orain, berriz, gutxiago irteten gara; pena da, gu kanpora joateko deseatzen egoten garelako, baina gazteek ez dute nahi izaten", dio Gonzalezek, barrez.

50 urte hauetan bizi izan dituzten momentu hunkigarrietako bat izango da domekakoa: "Nire aitaren omenaldia berezia izan zen niretako", dio Gonzalezek: "Baita Miguel Gonzalez Bastidaren omenaldia ere", dio Arrondok. Eta ondorengoek ere gogoratuko dute bi lagun horien omenaldia, domekakoa, berezia izan zela. Eta baita kontzertu ona ere.

ESANAK

"Omenaldia izan arren, ez dugu banda uzteko inongo asmorik"
JOSE M. GONZALEZ | BANDAKO KIDEA

"Lehen orain baino pieza klasikoagoak jotzen genituen"
JOSE M. ARRONDO | BANDAKO KIDEA

Behobia-Donostia probako sailkapenean zuzenketa

Astelehenean GOIENA paperean Behobia-Donostiako sailkapena argitaratu genuen, baina ez genituen Angiozarkoen denborak kontuan hartu, ez dutelako Bergarako posta kodea erabiltzen. Hala, Igor Agirrezabal (1.25.39), Jose Angel Muñoz (1.26.46), Enrique Marzana (1.31.36) eta Gorka Marzan (1.31.42) ondo iritsi ziren helmugara.

Imanol Elkoroberezibar zailtasunak dituztenen artean azkarrena

Behobia-Donostia lasterketan, elite eta herri mailako lasterkariekin batera izan ziren kategoria gehiago; zailtasunak dituzten korrikalarienak, esaterako. Eta kategoria horretan –zailastasunak dituztenak, oinezko modalitatea– lehenengo sailkatu zen Imanol Elkoroberezibar. Bergarako korrikalariak 1.38.43ko denbora egin zuen.

Soraluce BKE taldeak dagoeneko badaki zer den kanpoan irabaztea

Urolaren kontra eskuratu zuten, joan den astean, etxetik kanporako lehenengo garaipena. Eta balio handia du garaipen horrek, batez ere Josetxo Muniategik joan den astean aipatzen zuen "konfiantza falta" horri aurre egiteko. Bihar, zapatua, etxean izango dute irabazteko beste lehia bat, Usurbilen kontra.

Gorla eta Pol-Pol mendi taldeekin irteera domekan

Gorla eta Pol-Pol mendi taldeek antolatuta irteera egingo dute domekan, hilak 21. Animatzen diren mendizaleek (denoi zuzendutako irteera da) 08:00etan izango dute hitzordua, pilotalekuan. Irteera egun osokoa izango da, eta Arabako mendietan ibiliko dira; Roitegi eta Onraita inguruetan, hain zuzen ere.

KIRKOS
SEXOLOGIA ZENTROA
Sexologoa: Edu Reguero (AEPS 421. zenb.)
> Bikote-terapia
> Gurasoentzako aholkularitza
> Sexuaren eta elkarbizitzaren zailtasunak
> Eiakulazio goiztiarra
> Desira falta
> Inpotentzia
> Baginismoa
Elizkale 13 solairuartea ezk. - 630 287 321
ZUMARRAGA

UREDERRA ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 94 39 18

Kayak Taberna
Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!
• Afariak
• Plater konbinatuak
• Ogitartekoak
• Hanburgesak
• Sandwichak
• Entsaladak
Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Argazkia Kiñu
Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53
Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37
Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13

"Lehen, lantegian, kontzertua geneukala esan eta jai ematen ziguten; orain, ez dago halakorik"

Jose Mari Arrondo eta Jose Mari Gonzalez omenduko dituzte domekan, Santa Zezilia kontzertuan

XABIER URTZELAI | BERGARA

Berrogeita hamar urte. Zenbateko hori beteko dute Jose Mari Arrondok (Bergara, 1946) eta Jose Mari Gonzalezek (Bergara, 1945) Bergarako Udal Musika Bandako kide moduan. Eta urrezko eztei horiek ospatzeko, bandako lagunek omenaldia egingo diete domekan, Santa Zezilia kontzertuan (12:30, Udal Pilotalekua). "Emozionatuta gaude, hori da egia, eta omenaldiaren ostean ekitaldiarekin aurrera egitea ez da horren erraza izango", diote biek. Izan ere, omenaldia ekitaldiaren erdi -erdian egingo diete: "Baina onena da omenaldia jaso arren ez dugula banda uzteko inongo asmorik", diote, barrez.

Ohiturari jarraituz, domekako kontzerturako omenduek pieza bana aukeratu ahal izan dute, euren gustukoak. Hala, Gonzalezek haren senitarteko Miguel Gonzalez Bastidak idatzi zuen *Campo de Rosas* aukeratu du eta Arrondok, *La leyenda del beso* (zarzuela).

Jose Mari Gonzalez eta Jose Mari Arrondo, martitzenean, entsegua hasi aurretik. | XABIER URTZELAI

Beste garai batzuk...

Dagoeneko bandako beterano bilakatuta, Arrondok eta Gonzalezek beste garai batzuk ekarri dizkigute gogora: "Urte hauetan guztietan asko aldatu dira gauzak. Lehen, pieza klasikoagoak jotzen genituen, eta gaur egun, pieza oso modernoak ere jotzen ditugu. Uste dugu kontzertuetara etortzen diren gazte asko harrituta geratzen direla, ez dutela halakorik espero". Hala ere, Arrondok onartu digu bera klasiko samarra dela, zarzuelak eta halakoak dituela gustuko. Beste garai batzuk dira, bai: "Lehen, lantegian kontzerturen bat genuela esanez gero inongo arazo barik ematen ziguten jai, eta halaxe ibiltzen ginen, batetik bestera. Orain, berriz, gutxiago irteten gara; pena da, gu kanpora joateko deseatzen egoten garelako, baina gazteek ez dute nahi izaten", dio Gonzalezek, barrez.

50 urte hauetan bizi izan dituzten momentu hunkigarrietako bat izango da domekakoa: "Nire aitaren omenaldia berezia izan zen niretako", dio Gonzalezek: "Baita Miguel Gonzalez Bastidaren omenaldia ere", dio Arrondok. Eta ondorengoek ere gogoratuko dute bi lagun horien omenaldia, domekakoa, berezia izan zela. Eta baita kontzertu ona ere.

ESANAK

"Omenaldia izan arren, ez dugu banda uzteko inongo asmorik"
JOSE M. GONZALEZ | BANDAKO KIDEA

"Lehen orain baino pieza klasikoagoak jotzen genituen"
JOSE M. ARRONDO | BANDAKO KIDEA

Behobia-Donostia probako sailkapenean zuzenketa

Astelehenean GOIENA paperean Behobia-Donostiako sailkapena argitaratu genuen, baina ez genituen Angiozarkoen denborak kontuan hartu, ez dutelako Bergarako posta kodea erabiltzen. Hala, Igor Agirrezabal (1.25.39), Jose Angel Muñoz (1.26.46), Enrique Marzana (1.31.36) eta Gorka Marzan (1.31.42) ondo iritsi ziren helmugara.

Imanol Elkoroberezibar zailtasunak dituztenen artean azkarrena

Behobia-Donostia lasterketan, elite eta herri mailako lasterkariekin batera izan ziren kategoria gehiago; zailtasunak dituzten korrikalarienak, esaterako. Eta kategoria horretan –zailastasunak dituztenak, oinezko modalitatea– lehenengo sailkatu zen Imanol Elkoroberezibar. Bergarako korrikalariak 1.38.43ko denbora egin zuen.

Soraluce BKE taldeak dagoeneko badaki zer den kanpoan irabaztea

Urolaren kontra eskuratu zuten, joan den astean, etxetik kanporako lehenengo garaipena. Eta balio handia du garaipen horrek, batez ere Josetxo Muniategik joan den astean aipatzen zuen "konfiantza falta" horri aurre egiteko. Bihar, zapatua, etxean izango dute irabazteko beste lehia bat, Usurbilen kontra.

Gorla eta Pol-Pol mendi taldeekin irteera domekan

Gorla eta Pol-Pol mendi taldeek antolatuta irteera egingo dute domekan, hilak 21. Animatzen diren mendizaleek (denoi zuzendutako irteera da) 08:00etan izango dute hitzordua, pilotalekuan. Irteera egun osokoa izango da, eta Arabako mendietan ibiliko dira; Roitegi eta Onraita inguruetan, hain zuzen ere.

KIRKOS
SEXOLOGIA ZENTROA
Sexologoa: Edu Reguero (AEPS 421. zenb.)
> Bikote-terapia
> Gurasoentzako aholkularitza
> Sexuaren eta elkarbizitzaren zailtasunak
> Eiakulazio goiztiarra
> Desira falta
> Inpotentzia
> Baginismoa
Elizkale 13 solairuartea ezk. - 630 287 321
ZUMARRAGA

UREDERRA ITURGINTZA
Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta
Arruriaga 11
686 94 39 18

Kayak Taberna
Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!
• Afariak
• Plater konbinatuak
• Ogitartekoak
• Hanburgesak
• Sandwichak
• Entsaladak
Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Argazkia Kiñu
Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53
Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37
Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13

Veronica Fortuna | Lamitxoa arrandegiko jabea

"Bergararrei oso ondo jatea gustatzen zaie"

Oxirondo merkatuan zegoen German Lete arrandegia hartu du Veronica Fortunak. Lamitxoa izena jarri dio eta ordutegia aldatu du: arratsaldeetan ere egongo da zabalik denda, 17:00etatik 20:00etara | MIRIAN BITERI

Noiztik dago Lamitxoa arrandegia zabalik?
Abuztuaren 25ean zabaldu nuen arrandegia. Hortaz, hiru hilabetetxo daramatzat lanean.
Zelan sortu zen irekitzeko ideia?
German Leterekin lanean nengoen Oxirondoko merkatuan dagoen arrandegian, bi urtez; lanbidea Germani esker ikasi nuen. Hark hartzea proposatu zidan eta animatu egin nintzen; bi asteko kontua izan zen.
Ezer aldatu duzu?
Bai. Batetik, izena eta errotulua aldatu ditut. Lamitxoa izena jarri diot. Senarra Extremadurakoa da eta haren herriko zaindaria lamina bat da. Senarraren laguntza eskertu nahian jarri diot. Bestetik, ordutegia zabaldu egin dut: lehen, goizez zegoen zabalik; orain, arratsaldean ere zabaltzen dut. Goizez 08:00etatik 13:00etara nago eta arratsaldez 17:00etatik 20:00etara.
Ordu asko lanean, ezta? Zu zeu zoaz jeneroa hartzera?
Hala da, ordu asko sartzen dira. Lanbide polita da, jendearekin egoteko aukera ematen didalako eta nik hori gustuko dudalako. Baina, era berean, gogorra ere bada. Ni noa jeneroa erostera, eta horretarako, egunero 04:00etan jaikitzen naiz. Eta gora eta behera ibili ostean, 07:30ean bueltatzen naiz Bergarara nire denda prestatzera, jendea etortzen denerako dena gertu edukitzeko.

Oxirondo azokan du arrandegia Veronica Fortuna bergararrak. | MIRIAN BITERI

Nola pasa dira hilabete hauek?
Oso pozik nago. Uste nuena baino hobeto joan dira. Dena dela, aurretik ere hemen nengoen lanean, eta, hortaz, ezaguna naiz jendearendako. Arrandegiak izena eta jabea baino ez ditu aldatu. Jeneroa ere berdina izaten saiatzen naiz, ahal den onena eta freskoena ekartzen dut. Dena dela, jendea oso pozik dago eta horrek asko esan nahi du.

"Gabonetarako enkarguak hartzen hasi gara"

Zelakoak dira bergararrak?
Oso bereziak, modu positiboan esanda. Oso ondo jatea eta arrain mota asko probatzea gustatzen zaie. Dena dela, guztiak ez dira berdinak. Gazteak probatzeko gertuago egoten dira. Gehien saltzen diren produktuei dagokienez, esan beharra dago sasoiaren araberakoa izaten dela. Orain, urraburua (*dorada*), lantesa eta lupia eskatzen da asko.
Dena dela, askotariko itsaski eta arrainak topa daitezke, ezta?
Bai. Itsaskiak asteburuei begira ekartzen ditut, astean ez da askorik saltzen. Besteak beste, txangurruak, nekorak, buiak (*buey*) eta zigalak izaten ditut. Ez baditut ekartzen ez dituzte eskatzen; baina ikusiz gero, erosi egiten dute. Horren harira, nik ez dut krisirik igarri.
Izoztutako produktuak ere badituzu. Zeintzuk saltzen dira gehiago, freskoak ala izoztutakoak?
Freskoak, askoz gehiago. Izoztutakoetan, dena dela, denetarik daukat; gauza berri asko ekarri ditut, hala nola rosada eta itsaski mokadutxoak. Oso harrera ona dute; jendeak gero eta gehiago eskatzen ditu.
Enkarguak ere hartzen dituzu...
Hala da. Normalean, egubakoitzetan eta zapatuetan izaten ditut. Gainera, jatetxeei ere zerbitzatzen diegu. Orain, gainera, Gabonetarako enkarguak hartzen hasi gara. Joan den astean hasi zen jendea galdetzen.

Gurasoak eta umeak, iazko erakusketako jostailuak ikusten. | TXALOKA LUDOTEKA

Jostailu erakusketa egingo dute hilaren 27an eta 28an ludotekan

0-9 urte arteko jostailuei buruzko aholkularitza emango dute

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Oñatiko Udalak eta Aisialdi, Hezkuntza eta Kultura Zerbitzuak (AHK) antolatuta jostailu erakusketa egingo dute Txaloka ludotekan. Hilaren 27an eta 28an 0-9 urte arteko neska-mutikoendako askotariko jostailuak erakutsiko dituzte 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Herritar guztiak gonbidatu gura dituzte erakusketara.

Eskaintza zabala

Hirugarren urtez egingo dute jostailu erakusketa. Helburua 0-9 urte artekoendako jostailuei buruzko informazioa eta aholkuak ematea da. Bide batez, jolasaren garrantzia azpimarratu gura dute. Arduradunek esan digute haurraren bizitzan jatea eta arnasa bezain garrantzitsua dela jolasa eta umeak hezteko tresna ezin hobea dela.

Askotariko jostailuak ipiniko dituzte: puzzleak, manipulazio jokoak, jolas kooperatiboak eta muntatzeko jokoak, besteak beste. Gainera, txoko digitala egongo da: CDak eta DVDak erakutsiko dituzte. Adinka sailkatuko dituzte jokoak. Kolaboratzaileak izango dira: Elhuyar, Ikastolen Elkartea, Ttarttalo, Elkar, Alday, Argia, Urtxintxa, Katxiporreta, Buruhandiak eta Kometa.

Txandako dendak

Aurtengo berrikuntza izango da Txanda elkarteko jostailu denden parte-hartzea. "Guk geuk egin genien gonbidapena Txandako kideei. Informazio eske etortzen ziren askok eta askok galdetzen ziguten ea zein lekutan erosi ahal zituzten gustuko jostailuak. Hori horrela, ikusi genuen herriko jostailu denden parte-hartzea inportantea zela", esan digute.

OHARRAK

SARRERAK
Ttanttaka antzerki taldeak hilaren 26an eskainiko duen *No me hagas daño* antzezlanerako sarrerak salgai daude kultura etxean. Genero indarkeriaren gaineko emanaldirako sarrerak 10 eurotan saltzen dituzte. Olaia Gil, Kike Diaz de Radam Maiken Beitia, Isidoro Fernandez eta Tania de la Cruz dira protagonistak.

HITZALDIA
Zinema sozialaren emanaldien barruan, *13 pueblos en defensa del agua* dokumentala emango dute gaur kultura etxean, 19:00etan. ONAIEko komunikazio agintari Janeth Cuji izango da gonbidatua.

MEZA
Hileko hirugarren domeka izanik, familia-meza egingo dute etzi parrokian, 12:00etan. Katekistek umeak hartu eta ebanjelioa azalduko diete, ondoren bat egingo dute elizkizun nagusiarekin.

ZINEMA
Aste bukaeran emanaldi bikoitza egingo dute kultura etxeko zinema-aretoan: alde batetik, *Izarren argia* emango dute gaur eta bihar, 22:30ean; domekan 19:30ean eta 22:30ean; eta astelehenan 19:30ean. Mikel Ruedak zuzendutako pelikulako protagonistak dira Barbara Goenaga, Estibaliz Gabilondo, Klara Badiola eta Itziar Ituño. Beste alde batetik, umeendako emanaldietan (zapatuan eta domekan 17:00etan) *En pata de guerra* pelikula emango dute.

Neguko kiroletako federatu txartelak egiteko aukera

Aloña Mendiko eski sailekoak hasi dira elur denboraldia prestatzen. Oraingoz, neguko kiroletako federatu txartelak egin ahal izateko deialdia egin dute. Hilaren 24an eta 25ean egongo dira Aloña Mendi tabernan tramitazioa egiten, 19:00etatik 20:30era. Federatu txartelak berritu eta berriak egingo dituzte bi egun horietan eski saileko kideek.

Markelen Lagunarteak bazkaria egingo du bihar Zotz tabernan

Denboraldi amaierako jaia egingo dute bihar Markelen Lagunarteko kideek. Bazkaltzeko elkartuko dira Zubillagako Zotz tabernan, 14:30ean. Aurretik txikiteoa egingo dute herriko tabernetan. Markel Irizar bera eta etxekoak eta lagunak egongo dira bazkarian, oñatiarrak egindako denboraldiaren errepasoa egiteko.

Irisgarritasun zigilua jaso du Turismo Bulegoak

Oztopoak kendu eta turismoari kalitatea gehitzeko egindako lana baloratu dituzte

M.B. | OÑATI

Oñatiko Turismo Bulegoak irisgarritasun zigilua jaso berri du. Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak banatu ditu zigiluok. Guztira, turismoarekin zerikusia duten 140 establezimendu saritu dituzte; besteak beste, turismo bulegoak, hotelak, turismo apartamentuak eta interpretazio zentroak. Hori horrela, irisgarritasun zigilua dute Tolosaldeko, Santurtziko, Lekeitioko, Zeraingo, Donostiako eta Segurako turismo bulegoek; Eskoriatzako Azkoaga Enea hotelak; Gasteizko Gran Hotel Lakua hotelak; Leitzarango Uraren Interpretazio Zentroak eta Arrantza Eskolak eta Idiazabalgo Gaztaren Interpretazioguneak, besteak beste.

Turismoa hobetzeko

Irisgarritasun turistikoaren euskal programaren helburua da Euskadiko turismoari kalitatea gehitzea, pertsona guztiendako konfort handiko kontzeptu baten oinarrituta. Hala, programak laguntza eskaintzen die turismo establezimenduei euren irisgarritasuna hobetu eta hazkunde fasean dagoen publikoa erakartzeko.

Programa sortu zenean, 200 establezimendutan proba egin zuten. Irisgarritasunaren arloaren gaineko diagnostikoa egin zitzaien. Programan parte hartu duten establezimenduek antzemandako hobekuntzen finantzaketa baliatu ahal izan dute. Bost arlo hartu zituzten kontuan: fisikoa, entzumena, ikusmena, intetektuala eta organikoa.

MIRIAN BITERI

Zorionak, Rufino Arantzetari

Rufino Arantzetak 101 urte bete zituen astelehenean. Emaztearekin eta etxekoekin ospatu zuen eguna Bergaran, egun han bizi da-eta alabarekin. Udalak tarta bat bidali zion opari moduan. Rufino Arantzeta elgetarra da jaiotzez, baina urte asko egin ditu Oñatin bizi izaten. Egun, Bergaran dago alabarekin. Zorionak!

Gurasoak eta umeak, iazko erakusketako jostailuak ikusten. | TXALOKA LUDOTEKA

Jostailu erakusketa egingo dute hilaren 27an eta 28an ludotekan

0-9 urte arteko jostailuei buruzko aholkularitza emango dute

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Oñatiko Udalak eta Aisialdi, Hezkuntza eta Kultura Zerbitzuak (AHK) antolatuta jostailu erakusketa egingo dute Txaloka ludotekan. Hilaren 27an eta 28an 0-9 urte arteko neska-mutikoendako askotariko jostailuak erakutsiko dituzte 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Herritar guztiak gonbidatu gura dituzte erakusketara.

Eskaintza zabala

Hirugarren urtez egingo dute jostailu erakusketa. Helburua 0-9 urte artekoendako jostailuei buruzko informazioa eta aholkuak ematea da. Bide batez, jolasaren garrantzia azpimarratu gura dute. Arduradunek esan digute haurraren bizitzan jatea eta arnasa bezain garrantzitsua dela jolasa eta umeak hezteko tresna ezin hobea dela.

Askotariko jostailuak ipiniko dituzte: puzzleak, manipulazio jokoak, jolas kooperatiboak eta muntatzeko jokoak, besteak beste. Gainera, txoko digitala egongo da: CDak eta DVDak erakutsiko dituzte. Adinka sailkatuko dituzte jokoak. Kolaboratzaileak izango dira: Elhuyar, Ikastolen Elkartea, Ttarttalo, Elkar, Alday, Argia, Urtxintxa, Katxiporreta, Buruhandiak eta Kometa.

Txandako dendak

Aurtengo berrikuntza izango da Txanda elkarteko jostailu denden parte-hartzea. "Guk geuk egin genien gonbidapena Txandako kideei. Informazio eske etortzen ziren askok eta askok galdetzen ziguten ea zein lekutan erosi ahal zituzten gustuko jostailuak. Hori horrela, ikusi genuen herriko jostailu denden parte-hartzea inportantea zela", esan digute.

OHARRAK

SARRERAK
Ttanttaka antzerki taldeak hilaren 26an eskainiko duen *No me hagas daño* antzezlanerako sarrerak salgai daude kultura etxean. Genero indarkeriaren gaineko emanaldirako sarrerak 10 eurotan saltzen dituzte. Olaia Gil, Kike Diaz de Radam Maiken Beitia, Isidoro Fernandez eta Tania de la Cruz dira protagonistak.

HITZALDIA
Zinema sozialaren emanaldien barruan, *13 pueblos en defensa del agua* dokumentala emango dute gaur kultura etxean, 19:00etan. ONAIEko komunikazio agintari Janeth Cuji izango da gonbidatua.

MEZA
Hileko hirugarren domeka izanik, familia-meza egingo dute etzi parrokian, 12:00etan. Katekistek umeak hartu eta ebanjelioa azalduko diete, ondoren bat egingo dute elizkizun nagusiarekin.

ZINEMA
Aste bukaeran emanaldi bikoitza egingo dute kultura etxeko zinema-aretoan: alde batetik, *Izarren argia* emango dute gaur eta bihar, 22:30ean; domekan 19:30ean eta 22:30ean; eta astelehenan 19:30ean. Mikel Ruedak zuzendutako pelikulako protagonistak dira Barbara Goenaga, Estibaliz Gabilondo, Klara Badiola eta Itziar Ituño. Beste alde batetik, umeendako emanaldietan (zapatuan eta domekan 17:00etan) *En pata de guerra* pelikula emango dute.

Neguko kiroletako federatu txartelak egiteko aukera

Aloña Mendiko eski sailekoak hasi dira elur denboraldia prestatzen. Oraingoz, neguko kiroletako federatu txartelak egin ahal izateko deialdia egin dute. Hilaren 24an eta 25ean egongo dira Aloña Mendi tabernan tramitazioa egiten, 19:00etatik 20:30era. Federatu txartelak berritu eta berriak egingo dituzte bi egun horietan eski saileko kideek.

Markelen Lagunarteak bazkaria egingo du bihar Zotz tabernan

Denboraldi amaierako jaia egingo dute bihar Markelen Lagunarteko kideek. Bazkaltzeko elkartuko dira Zubillagako Zotz tabernan, 14:30ean. Aurretik txikiteoa egingo dute herriko tabernetan. Markel Irizar bera eta etxekoak eta lagunak egongo dira bazkarian, oñatiarrak egindako denboraldiaren errepasoa egiteko.

Irisgarritasun zigilua jaso du Turismo Bulegoak

Oztopoak kendu eta turismoari kalitatea gehitzeko egindako lana baloratu dituzte

M.B. | OÑATI

Oñatiko Turismo Bulegoak irisgarritasun zigilua jaso berri du. Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak banatu ditu zigiluok. Guztira, turismoarekin zerikusia duten 140 establezimendu saritu dituzte; besteak beste, turismo bulegoak, hotelak, turismo apartamentuak eta interpretazio zentroak. Hori horrela, irisgarritasun zigilua dute Tolosaldeko, Santurtziko, Lekeitioko, Zeraingo, Donostiako eta Segurako turismo bulegoek; Eskoriatzako Azkoaga Enea hotelak; Gasteizko Gran Hotel Lakua hotelak; Leitzarango Uraren Interpretazio Zentroak eta Arrantza Eskolak eta Idiazabalgo Gaztaren Interpretazioguneak, besteak beste.

Turismoa hobetzeko

Irisgarritasun turistikoaren euskal programaren helburua da Euskadiko turismoari kalitatea gehitzea, pertsona guztiendako konfort handiko kontzeptu baten oinarrituta. Hala, programak laguntza eskaintzen die turismo establezimenduei euren irisgarritasuna hobetu eta hazkunde fasean dagoen publikoa erakartzeko.

Programa sortu zenean, 200 establezimendutan proba egin zuten. Irisgarritasunaren arloaren gaineko diagnostikoa egin zitzaien. Programan parte hartu duten establezimenduek antzemandako hobekuntzen finantzaketa baliatu ahal izan dute. Bost arlo hartu zituzten kontuan: fisikoa, entzumena, ikusmena, intetektuala eta organikoa.

MIRIAN BITERI

Zorionak, Rufino Arantzetari

Rufino Arantzetak 101 urte bete zituen astelehenean. Emaztearekin eta etxekoekin ospatu zuen eguna Bergaran, egun han bizi da-eta alabarekin. Udalak tarta bat bidali zion opari moduan. Rufino Arantzeta elgetarra da jaiotzez, baina urte asko egin ditu Oñatin bizi izaten. Egun, Bergaran dago alabarekin. Zorionak!

Josune Bereziartu, mendi hamabostaldian

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Aloña Mendi mendi taldeak antolatu duen hamabostaldiaren azken emanaldiak hilaren hilaren 23an, 24an eta 26an egingo dituzte, kultura etxean, 19:30ean.

Lehen emanaldia Josune Bereziartuk egingo du. *Uda alpinoa* delako ikus-entzunezkoa eskainiko du. 2006an hainbat bide berezi egin zituen Bereziartuk; besteak beste, *harrian 8B+* bidea egin zuen. Bestalde, eguaztenean Ivan Urtzelai eta Carlos Vieira oñatiarrek *Eskalada Maroko, Patagonia eta Kanada izotzetan* delako emanaldia egingo dute.

Azkenik, Jorge Nagorek Iñaki Otxoa de Oltzari buruzko ikus-entzunezkoa eskainiko du, eta *SOS Himalaya* proiektua aurkeztu.

Horia Colibasanu

Gainera, Iñaki Otxoa de Oltza izango da mendi hamabostaldiko azken protagonista. Izan ere, Otxoa de Oltzaren lagun eta goi mailako alpinista Horia Colibasanu Oñatin egongo da abenduaren 15ean.

JOSE MANUEL BIAIN

Zikloturistek urteko azken irteera egin zuten

Oñatiko zikloturista talde batek (goiko erretratuan) denboraldiko azken irteera egin zuen hilaren 13an. Hain justu ere, Dorletara joan ziren bizikletaz. Ama Birjinari lore sorta ipini zioten, eta etxera itzuli ziren. Ondoren, txikiteoa egin zuten, eta, urtea behar bezala bukatzeko, baba-jana egin zuten Santa Lutziako elkartean. Eguna mahaiaren bueltan bukatu zuten, giro onarekin.

BETERANUAK

EMAITZAK "A" TALDEA

Jai Ari-Paketinaikos	0-2
Txarrixak-Kalañatasaray	5-1
Zorrobero-Sasquatch	5-0
Etxaixat-Albok	0-3

SAILKAPENA "A" TALDEA

	TALDEA	P	J
1	Dollygan's	6	2
2	The Gibel Boys	6	2
3	Joxely	4	2
4	Nandrolona	4	2
5	Indar 85	3	2
6	Xaguxar	3	2
7	Bundeswehr	1	2
8	Gaur Bai	1	2
9	Txuskos	0	2
10	Ankarteko	0	2

SAILKAPENA "B" TALDEA

	TALDEA	P	J
1	Txarrixak	6	2
2	Zorrobero	6	2
3	Albok	3	1
4	Kalañatasaray	3	2
5	Paketinaikos	3	2
6	Sasquatch	3	2
7	Lozorromo	0	1
8	Etxaixat	0	2
9	Jai Ari	0	2

PARTIDUAK "A" TALDEA

3. JARDUNALDIA

Zapatua 13:00 Txuskos-Ankarteko
Zapatua 14:30 Indar 85-Joxely
Zapatua 18:30 Xaguxar-Nandrolona
Zapatua 20:00 Gaur Bai-The Gibel Boys
Domeka 14:00 Bundeswehr-Dollygans



LORTU 2010eko EROSKETA DEBALDE*

ZELAIA ONATI www.zelaia.net

40 urte elkarrekin 1970-2010

SUKALDE ETA BAINUAK
Santa Marina 3 • 943 71 62 81

ALTZARIAK
Euskadi Etorbidea 3 • 943 78 36 99

* 1.000 eurotik gorako erosketa bakoitzarekin hiru zenbakidun txartel bat eskuratuko duzu. Horietako baten azken hiru zenbakiek "El niño" zozketako saritutakoarekin bat badatoz, 2010ean egindako zure erosketa debalde lortuko duzu!

Hondakinen gaineko berbaldia martitzenean

M.A. | ARETXABALETA

Zaborraren kudeaketaren gaineko argibideak emateko berbaldia egingo dute datorren martitzenean, hilak 23, Arkupen (19:30), *Hondakinek badute irtenbidea* izenarekin.

Zabortegiak gainezka

Aretxabaleta Zero Zabor plataforma sortu berriak antolatu du berbaldia eta argibideak ematera etorriko dira Gipuzkoa Zero Zabor taldeko kideak. Sortzen dugun zaborraren oraingo kudeaketaren gainean jardungo dute, eta beste aukera batzuk ezagutzera eman gura dituzte. Hondakinen kudeaketa konplexua izatera iritsi da gero eta zabor gehiago sortzen delako; eta orain arte legez jarraituz gero Gipuzkoako zabortegiek gainezka egingo dutela diote Zero Zabor taldeko kideek: "Eraiki nahi duten errauste plantak 25-30 urterako lotuko gaitu kudeaketa eredu xahutzaile eta kutsakorrera". Gainera, birziklatze kontuetan ere ez gabiltzala fin diote: "Hiri hondakinen %23 baino ez ditugu gaika biltzen, %90 birziklagarria den neurrian".

Atez ateko bilketa

Hori horrela, atez ateko bilketaren aldeko apustua egiten dute: "Birziklatze-tasa handitu eta, batez ere, herritarrentzat erosotasuna eta osasuna bermatuko dituen hondakinen kudeaketa aitzindaria martxan jarri behar dugu". Hain zuzen, Usurbil, Hernani eta Oiartzunen dagoeneko abian dagoen sistema, eta Antzuolara martxo inguruan iritsiko dena. Datorren agintaldian, gainera, Debagoieneko gainerako herrietara zabaltzea da asmoa, baita gurera ere.

Gai horren gainean interesa duten guztiak gonbidatu dituzte berbaldira, eta Aretxabaleta Zero Zabor plataformako kideak gertu daude martitzenetik aurrera herritarrei sortuko zaizkien kezkak argitzeko.

Abian dira ekimen berriendako eta kontratazioetarako dirulaguntzak

- Udaletxean dagoen Enplegu Sailera bideratu behar dira eskaerak
- Pare batek agertu dute interesa, nahiz eta eskaerarik ez jaso oraindik

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Aretxabaletako Udalak orain aste batzuk iragarri zuen herrian sortutako ekimen berriak eta egindako kontratazioak diruz lagunduko zituela. Laguntza horiek urrian onartu zituen Udal Gobernuak eta orain, GAOn argiratuta, indarrean daude. Eskaerak udaletxean dagoen Enplegu Sailera bideratu behar dira.

Gutxienez hiru urte herrian

Dirulaguntza horiek eskatzeko honako baldintzak bete beharko dituzte eskatzaileek: herrian egoitza duten enpresa ekimen berriak izatea –berdin da ekintzailea Aretxabaletan erroldatuta dagoen edo ez– eta eskaera egiten den unean urte beteko jarduna izatea, gehienez; pertsona konkretuen gizarteratze eta laneratze enpresa ekimenak izatea; edozein forma juridikotako ekimenak –autonomoak ere bai– 15 langile baino gutxiagokoak; Bideragarritasun Plana eginda dutenak; eta Debagoieneko Mankomunitateak, Udaleko Enplegu Zerbitzuak edo enpresa sorrera bideratzen duen beste edozein erakundek lagundutako ekimenak izatea.

Industrialdeko eraikina. | M.A.

Laguntza jasoko duten enpresa berri horien sustatzaileek, gainera, honako konpromisoa hartu beharko dute: gutxienez hiru urtean egoitza Aretxabaletan izatea.

Lanpostuak sortzeko

Bestalde, Aretxabaletan jarduera duten enpresei, kontratazio berriengatik dirulaguntzak bideratuko dizkie Udalak. Hala, herrian lanpostu berriak sortu eta daudenak mantentzea gura dute. Eta, bide batez, zailtasun handiak dituzten herritarrei laneratze prozesuan lagundu, horretarako laguntzak eskainita bertako enpresei: "Ea langabeziaren erruz egoera larrian dauden herriko familiei laguntzea lortzen dugun", dio Argiñe Larreak, Enplegu teknikariak.

Dirulaguntza horietara ondorengo baldintzak betetzen dituzten enpresak aurkeztu ahal izango dira: lantokia Aretxabaletan duten enpresa txiki eta ertainak; komertzio eta merkataritza negozioak; eta autonomo aretxabaletarrak. Horiek kontratatutako dituzten lagunek, ostera, Aretxabaletan erroldatuta egon beharko dute, eta egingo dieten kontratua gutxienez urtebetekoa izango da –jardun osokoa edo partziala.

Inkesta herritarrei

Herriko merkataritza eta ostalaritzaren gainean ikerketa egiten dabil Lara Bautista aretxabaletarra, Enplegu Sailak bideratuta. Ikerketa hori bigarren fasean dago orain; hau da, merkataritzaren analisia. Hori horrela, herritarren kontsumo ohiturak ezagutu gura dituzte –non erosten duten, zelako komertzioak dituzten gustuko...– eta inkesta txiki bat gertatu dute herritarrek erantzun dezaten. Inkesta horiek udal eraikinetan utzi dituzte –Zainduz gimnasioa, Arkupe, euskaltegia eta udaletxea–, eta herriko zazpi komertziotan ere bai.

Agenda 21eko kontuei jarraipena egiten dien boluntario taldetxoa Txoko Berdea dagoen gunean. | M.A.

Iraunkortasunaren Eskola Agiria jasoko dute Kutzebarri BHIko kideek

Jaurlaritzak emango die abenduan, ingurumenaren alde egindakoa saritzeko

M.A. | ARETXABALETA

Azken bost urteotan lan handia egin dute Kurtzebarri institutuan iraunkortasunaren eta ingurumenaren errespetuaren alde. Hala, Eskola Agenda 21 egitasmoaren barruan hainbat gai landu dituzte: zaborra eta birziklapena, ura, energia, ekitatea... Gaiok landu bakarrik ez, bost urteotan ikasitakoa abian jarri dute institutuan eta hartutako konpromisoak betearazteko jarraipena egin ere bai, boluntarioek egindako lanari esker. Hori horrela, Jaurlaritzak erabaki du Iraunkortasunaren Eskola Agiria ematea Kurtzebarri eskolari. Abenduaren 13an, astelehena, Lakuan egingo duten ekitaldian banatuko die agiri hori.

Oharrak, eskola guztian

Gaiak landu ahala –ikasturtean bat– hainbat konpromiso hartzen dituzte ikasleek eta horiek betearazten laguntzeko han eta hemen oharrak dituzte jarrita Herriko Plazako eraikinean: birziklapena bultzatzeko, ura behar beste bakarrik erabiltzeko, argia itzaltzeko... Gela guztietan eta komunetan daude oharrok. Gainera, hiru zakarrontzi dauzkate geletan: paperarendako, mukizapiendako eta gainerako hondakinendako. Pasilloetan, ostera, plastiko eta ontziendakoa, eta pilak ere jasotzen dituzte. Horrek guztiak behar bezala funtzionatzen duela ziurtatzeko eta jarraipena egiteko boluntario taldetxoa dago: DBHko hainbat ikasle. Gainera, iraunkortasunaren gaineko kontuak zabaldu eta ikasleak sentsibilizatzeko Txoko Berdea daukate: Eskola Agenda 21eko logo lehiaketako proposamenak; ekitatearen gaineko inkestaren emaitzak; aztarna ekologikoaren gaineko hausnarketa... daude bertan.

Boluntario horiek Ingurumen batzordean elkartzen dira gero, gela bakoitzeko ikasleen eta irakasleen ordezkariekin batera, eta jasotako iradokizun eta kexak aurkezten dituzte eta eman beharreko pausoak aztertu. Hala, gai berriak landu bakarrik ez, ordura artekoak ez ahazteko jarraipena egiten dute. Landutako azken gaia ekitatea izan da eta laster hasiko dira berriarekin: zarata eta uhin elektromagnetikoak.

Jon Díaz Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

'Amores que matan' film laburra eta Emma Larretarekin solasaldia eguenean

Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako eguna ospatzeko izango da

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Datorren eguenean, hilak 25, emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna ospatuko dute gurean Gizarte Zerbitzuen eta Berdintasun Sailaren eskutik.

Amores que matan film laburra (Iciar Bollain, 2000) emango dute lehenengo Arkupe kultura etxeko Zaraia aretoan (19:30), eta ondoren, solasaldia egingo dute elkartutakoek, indarkeria jasandako Emma Larreta donostiarra gidari hartuta.

27 labankada jasandakoa

Iciar Bollain zinemagileak tratu txarren gaineko hausnarketa egiten du 20 minutu irauten duen *Amores que matan* filmean. Batetik, *matxista* berbaren atzean dagoena agertzen du, eta bestetik, gizon izateko beste era bat badagoela erakutsi. Gainera, tratu txarrak eragin dituzten gizonak sendatu egin ote daitezkeen hausnarketa zabaltzen du.

Horren guztiaren gainean jarduteko solasaldia egingo dute gero Arkupen elkartutakoek Emma Larretarekin. Iaz ere izan zen gurean Larreta, eta batzuek jakingo dute eraso bortitz bat jasan ondoren aurrera egin duen donostiar gaztea dela. Hain zuzen, 2007ko apirilean 27 labankada eman zizkion bikotekide ohiak Donostiako kale baten. Bizitako hura ausardia handiarekin gainditu, eta, fisikoki eta psikologikoki osatu ondoren, hausnarketa bultzatzeko ekitaldietan dabil azken hiru urteotan, uste duelako benetan arazo latza dugula gizartean.

Kamiseta gorriekin kalera, Santa Zezilia gogoan

Musikarien zaindari Santa Zezilia gogoan, kalean ibili ziren atzo Leizarra musika eskolako ikasleak kamiseta gorriekin. Banda alde batetik, eta trikitilariak bestetik, Herriko Plazan elkartu ziren kontzertu txikia eskaintzeko.

Bestalde, abesbatzak domekan ospatuko du jaia, meza nagusian abestuta (11:30).

MIRARI ALTUBE

Basotxokoekin elkartuko da alkatea eguenean

M.A. | ARETXABALETA

Orain dela hilabete batzuk Udalaren eta nagusien arteko elkarrizketa mahaiak jarri zituen abian Basotxo erretiratuen elkarteak. Ekainean, hain zuzen, elkartu ziren lehenengoz Basotxoko bazkideak Inaxio Garro alkatearekin, eta kezkak, iritziak eta iradokizunak helarazi zizkioten. Datorren eguenean, hilak 25, berriro dute hitzordua elkarrekin hasitakoari jarraipena emateko (17:30, Basotxo).

Nagusien kolaborazioa

Eztabaida mahaiak abian jartzearen helburua argi daukate Basotxon: kideen arteko elkarrizketa lantzea;Udalak nagusien gainean duen iritzia jakitea; Udalak egin duenaren eta aurrera begira dituen proiektuen berri izatea; proiektu horien gaineko nagusien iritziak jasotzea...

Ekaineko batzarrean jasotako iritzi eta kontuak erantzungo ditu oraingoan alkateak, eta hausnarketarako bide berriak zabalduko ditu. Gero, eztabaida mahaietan jardungo dute esandako guztiaren gainean, eta iradokizunak egingo dizkiote. "Nagusion laguntzak, nagusion kolaborazioak garrantzitsua izan behar da Udalarendako, hori erakustea da gure helburua", argitu dute Basotxoko zuzendaritzako kideek.

NIRE USTEZ

ANJEL BERGARETXE

Urte askotarako!

Nire itzulerak GOIENAren 10. urteurrenarekin bat egin duenez, derrigorrezkoa dirudi zutabea horri eskaintzea. Asko izan dira azken egunotan GOIENAren ibilbidetik goraipatu diren aspektuak. Nik arrazoi bat nabarmenduko nuke zorionak emateko.

Sarritan hitz egin dugu bailaran batuago ibiltzeko premiaren gainean, eskualdearen nortasuna sendotzeak ekarriko lituzkeen onurei buruz, emango ligukeen indarrari buruz. Baina gutxitan joan gara hitzetatik haratago. GOIENAk, berriz, komunikazio esparruan beste arlo batzuetan lortu ez dugun *batasuna* gauzatzea erdietsi duela uste dut.

Hasieran zalantza asko egon ziren, batez ere herri txikienetan. Beldur ziren (ginen), horrelako proiektu batean, baztertuta geratuko ote ziren herri handienen mesedetan. Bakoitzak bere herrian sortu eta garatutako komunikazio proiektuen "desagerpena" onartzea ez zen erraza izan.

Pasatako urteek ematen duten perspektibatik, beldur haiek funtsik gabeak zirela esango nuke. GOIENA alde bientzat onuragarria izan dela uste dut. Batetik, ez nago ziur duela 10 urte zeuden aldizkari guztiek jarraituko luketenik gaur egun. Ez dut uste epe luzera bideragarriak zirenik. Bestetik, GOIENA ez zen hutsetik hasi. Herrietako proiektu horietatik jaso zuen kapitala (giza baliabidea), ezinbesteko izan da heldu den tokira iristeko. Zorionak, beraz, eta urte askotarako!

"Beldur haiek funtsik gabeak zirela esango nuke orain"

Nepalen gaineko argazki emanaldia gaur eta mendi irteera etzi

Aurrera doa Murrukixo Mendizale Elkarteak antolatutako Mendi Astea eta gaur azken argazki emanaldia izango dute: Luis Mari Urkiak Nepalen trekkignean egindakoen berri emango du. Domekan, ostera, mendi irteera (09:00, Murrukixo) egingo dute Kurtzebarritik Atxorrotzera 11 postontziren bila, eta gero babarrun-jana izango dute.

Vazquez eta Irusta hirugarren Euskadiko karate txapelketan

Domekan Gasteizen jokatutako Euskadiko karate txapelketan hirugarren geratu ziren Ekaitz Irusta –kumite modalitatean– eta Odei Vazquez –kata modalitatean–.

Bihar, ostera, atzerapenak dituztenen III. nazioarteko txapelketa jokatuko dute Donostian eta Alex Elortondo izango da bertan.

Odoloste eta txistorra jaia egingo du UDAk hilaren 26an

Iaz legez, odoloste eta txistorra dastatzeko aukera eskainiko du Aretxabaleta Kirol Elkarteak. Datorren egubakoitzean, hilak 26, egingo du ospakizuna Mitarte kalean (18:30-22:00) –eguraldi txarrarekin Herriko Plazan– eta Errioxako ardoa eta Kataluniako cava ere eskainiko ditu jatekoari lagun egiteko.

1974an jaiotakoek kinto afaria egingo dute hilaren 27an

Hirusta jatetxean egingo dute afaria 1974an jaiotako kintoek, hilaren 27an. Arratsaldean dute elkartzeko hitzordua (18:30) Iturrigorri pilotalekuan eta ezustekoak egongo direla iragarri dute. Izena aurrez eman behar da Arlutz tabernan –azken eguna, hilak 25–, eta animatzeko dei egin dute antolatzaileek.

Garbittu
Santa Kurtz 24, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net
Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
Obra bukaerako garbiketak
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
Kristalen garbiketak
Arropa garbiketak

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

BENGOA
URDAITEGIA
Bertako okelak eta odolosteak
Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

Epaileak zaharren egoitzako zuzendaria kaleratzea bidezkoa izan zela esan du

Eguaztenean ezagutarazi zen epaia; Aitor Urrutia erruduna dela eta "zigor handiena" merezi duela dio

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Dagoeneko irisi da Mesedeetako Amaren egoitzaren auziaren gaineko sententzia. Horren arabera, Aitor Urrutia administratzaile ohia erruduna da eta kaleratzea, bidezkoa. Horrenbestez, sententzia horrekin epaileak arrazoia eman dio Patronoen Juntari eta hartutako erabakia bidezkoa izan zela esan du.

Jakina denez, joan den ekainean Aitor Urrutia administratzailea kargugabetu egin zuen egoitzako Patronatuak, azken urteotan izandako kudeaketagatik. Administratzaileak bere kaleratzearen aurka salaketa jarri zuen, eta urriaren 5ean epaiketa egin zen Eibarko lan arloko 1. zenbakiko epaitegian. Epaia joan den eguaztenean jakin zen.

Ez zituen funtzioak bete

Sententzian jasotakoaren arabera, zuzendari ohiak ez zituen bete bere funtzioak eta hori "arduragabekeria larritzat" jotzen du; izan ere, horren ondorioz Patronatuak ez ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak ematen dituen dirulaguntzak jaso.

Horrela, sententzian jasota datorrenez, "utzikeria larria" da eta Aitor Urrutia da horren errudun. Hori dela-eta, "zigorrik handiena" merezi duela nabarmendu du Eibarko epaitegiak; hau da, Patronoen Juntak erabakitako lan-kaleratzea.

Albiste da ostera ere Mesedeetako Amaren egoitza. | MIRIAN BITERI

Patronoen Junta, pozik

Epaia jakinda, Eskoriatzako alkate eta Patronoen Juntako presidenteorde Pedro Lasagabasterrek hasierako balorazioa egin du: "Halakoetan, behintzat, justizia egiten dela jakitea seinale ona da". Gaineratu du "pozgarria" ere badela "sententziak zalantzarako zirrikiturik ez uztea eta modu eredugarrian Patronoen Juntari, eta baita Eskoriatzako Udalari ere, arrazoia" ematea. Horrekin batera, Lasagabasterrek azaldu du Patronoen Junta biltzekoa dela eta datozen egunotan sententzia horri buruzko balorazio zehatzagoa egiteko asmoa dutela.

ESANAK

"Halakoetan justizia egiten dela jakitea ona da"

PEDRO LASAGABASTER | ALKATEA

Adierazpenik ez

Bestalde, aurrekoetan egin izan dugun moduan, Aitor Urrutiarekin harremanetan jartzen saiatu gara. Oraingo honetan ere ez dugu lortu.

Kalejira egingo dute bihar arratsaldean, herriko musika bandaren 25. urteurrena dela-eta

M.B. | ESKORIATZA

Herriko musika bandak zilarrezko ezteiak ospatuko ditu bihar, zapatua. 18:30ean kalejira egingo du herriko kaleetan. 1985eko Santa Zezilia egunean bandak jo zuen errepertorio bera aukeratu dute: *No lo olvido* kalejira.

Horrez gain, Santa Zezilia egunaren harira, urteroko kontzertua egingo dute San Pedro parrokian, 20:00etan. Hori amaitzean bandaren ibilbidearen gaineko hainbat argazki jartzeko asmoa ere badute.

Musika eskolatik

1980an Maria Cruz Oianguren, Maria Esther Oregi eta Angel Bañaresek herriko musika eskola sortu zuten, eta handik gutxira hasi zen eskola hori fruituak ematen; horien artean aipagarriena izan zen herriko musika banda sortzea eta herriko kaleetan ostera ere musika entzun ahal izatea. 1985-1986 ikasturtean sortu zen hura.

Imanol Andetxaga hasieratik dago bandan, horko presidente Nora Moya, zuzendari Angel Bañares, Txeli Rubio eta Aitor eta David Bañaresekin batera. Lehenengoak gogoratazi du lehen kalejira hartan 15 urtetik beherako 20 neska-mutikok inguruk parte hartu zutela; eta banda sortu eta gutxira, lehengo bandako bi musikari gehitu ziren: Koldo Oianguren eta Jose Luis Landa, hain justu ere. Gaur egungo bandan dihardute biek.

Urtarrilaren 29 eta 30era atzeratu da asteon egitekoak ziren iraunkortasunaren gaineko azoka

Asteburuan egitekoa zen iraunkortasunaren III. azoka urtarrilaren 29 eta 30era atzeratu da. Saioa Altzua teknikariak azaldu digu azken orduko antolaketa arazoak egon direla eta informazio interesgarria eskaintzen duten enpresak ekartzeko asmoarekin azoka bi hilabete atzeratzea erabaki dutela. Edizio horretan hondakinez jardungo dute eta, besteak beste, atez ateko bilketa eta gaikako banaketa egiteko hainbat edukiontzi ezagutzeko aukera egongo da.

Asteon indarrean jarri dute zirkulazioko arau-hausteak arautzen dituen udal-ordenantza

Martitzenean jarri zen indarrean zirkulazioko arau-hausteak arautzen dituen ordenantza berria. Berrikuntzen artean dago isuna jarritako egunetik 15 eguneko epearen barruan ordaintzeak %70eko beherapena duela; orain arteko deskontua %50ekoa zen. Bestalde, isunak ere aldatu egin dira: arinak 50 euroko isunarekin zigortzen dira orain; larriak, 200 eurorekin; eta oso larriak, 500 euroko isunarekin. Azkenik, elbarriendako erreserbatutako guneetan aparkatzea arau-hauste larria da hemendik aurrera.

OHARRAK

UMEAK
Gaur, egubakoitza, antzerkia dago ludotekan. 18:00etan hasiko da. Etzi, ostera, *Shin Chan: sanba erritmoak* umeendako pelikula izango da Ibarraundin, 17:30ean. Sarrerak euro bat balio du.

GAZTEAK
Eingeinkek antolatuta, *Ti Tau!* film laburren I. rallya egingo dute bihar. 09:00etan gaia banatuko da kultura etxean, eta 19:00ak arte du aukera talde bakoitzak lana grabatu eta muntatzeko.

KIROLA
Intxaurtxuetako kiroldegiak hiru norgehiagoka hartuko ditu aste bukaeran. Bihar, 16:00etan, Ohorezko Ligako areto-futbol partidua egongo da, Eskoriatza eta Uxoa taldeen artean; eta hori amaitzean, 18:00etan, senior mailako nesken saskibaloi lehia hasiko da, Eskoriatzaren eta Bera Beraren artekoa. Domekan, 11:00etan, Gazte Ligako areto-futbola dago. Etxekoek Los Herran taldea hartuko dute.

TEKNOLOGIA BERRIAK
Eguaztenean, hilak 24, Aitor Madrid tutorea egongo da herriko KZgunean honako ordutegian: 16:00etatik 20:00etara bitartean. Ohikoa den moduan, ikastaro asko egiteko aukera egongo da.

LENIZ ESKORIATZA
SUZUKI
Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
Bigarren eskuko autoen salerosketa, injektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa
Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

Pedro Iturbe | Antzuolako alkatea

"Martxo inguruan atez atekoarekin hasiko ginateke, gizarteratze kanpainaren ostean"

- Udalak atez atekoaren aldeko apustua egin du; orain, martxan jartzea falta da
- Armarriaren gaineko hurrengo bilera azaroaren 23an egingo dute, 19:00etan, Olaranen

ARANTZAZU EZKIBEL | ANTZUOLA

Agintaldiaren gaineko balorazio positiboa egin du Pedro Iturbek Goiena Telebistan. "Hasierako egoera txarra zen, ilegalizazio baten ostetik sartu ginen eta udaletxe baten kudeaketaz hainbat ezjakintasun zeuden", azaldu zuen platoan.

Aurrera begira, zaborra batzeko atez ateko sistema izango da eginbeharreko nagusia. "Atez atekoaren aldeko apustua eginda dago. Komunikazioa lantzea eta proiektua ezartzea eta idaztea falta dira orain. Aurreikusten dugu martxo ingururako hasiko garela", esan zuen alkateak. Ordurako, herritarrekin landu gura dute gaia; hau da, sistema gizarteratu. Gaia herritarrekin eztabaidatu beharko ez ote zuten galdetuta, hau erantzun zuen: "Gizarteratze kanpaina bat egon beharra dagoela uste dugu, baina gauzak ondo egitera goaz eta ez dugu zertan ibili gaia eztabaidatzen. Emaitzak hor daude: atez atekoak zaborren %80 birziklatzen du".

2011ko inbertsioak

Dagoeneko hasi dira Udalean 2011ko aurrekontuak lantzen. Iturbek azaldu du 2010ekoen jarraipena izango direla. "2011ri begira hainbat arazo gehigarri izango ditugu. Gipuzkoako Foru Aldundiak asko murriztu ditu udaletarako diru ekarpenak; egia da, baita ere, azken inbertsioei, edo aurreko agintaldian hasitako inbertsioei aurre egiteko mailegu baten beharra izan genuela eta eskatutako diruaren amortizazioak ordaintzen hasiko garela. Hortaz, asko zailduko da egoera", adierazi zuen alkateak.

Inbertsioen zertzelada bat eskatuta: "Aurten hasitako bidetik jarraituz baserrietako ur sarea lotzen jarraitzeko asmoarekin gabiltza; horretarako, diru partida bat jarri beharko dugu. Herriko muga arkitektonikoen inguruan lan txiki batzuk egiteko beste diru partida bat bideratuko dugu. Gaztetxearen obra egiteko lanak atzeratzen doaz, baina pentsatzen dugu 2011n izango dela obraren exekuzioa".

Udal tasa eta zergei dagokienez, orain dela bi aste erabaki zuten zergak %4,5 igotzea. "Badakigu handia dela eta erabakia hartu genuenean ere kontziente ginen, baina egia da egoera oso larria dela. Bere garaian Aldundiarekin plan finantzario bat lotu genuen eta guk, eta gainontzeko talde politiko guztiek, EAJk izan ezik, ulertu dugu egoerak hori eskatzen duela". Gaineratu zuen EAJk ez duela arduraz jokatu, eurek onartutako plan finantzario bati "uko egin diotelako".

Armarriaren gainean

Armarriaren gaineko eztabaida asko luzatu den galdetuta: "Guk uste genuen samurragoa izango litzatekeela; ez dugu uste asko zaildu denik, baina bai luzatu. Eztabaida hauek hasi genituenean beste hainbat zalantza agertu ziren. 12 kanoien inguruko eztabaida izan arren, beste eremuak ere zalantzan jarri ziren. Agian, orain dela 300 urteko sinbologiak ez dauka zerikusirik gaur egungo antzuolarrekin".

Kudeatuz programaren bitartez dabiltza lantzen gaia herritarrak: "20 lagun inguru dabiltza batzarretan, eta badirudi zerbait txukuna aterako dela. Denboran luzatzen ari da, baina uste dugu zerbait polita ekarriko digula". Hurrengo bilera hilaren 23an izango da, 19:00etan, Olaran etxean. Herritar guztiak gonbidatuta daude, politikariak izan ezik. Prozesua urte amaierarako bukatzea espero dute.

Pedro Iturbe Goiena Telebistako platoan, martitzenean. | ENEKO AZKARATE

Aterpearen inaugurazioa

2010eko inbertsio handienetarikoa eskolako jolaslekuko aterpea egitea izan da. Hala, datorren egubakoitzean, hilaren 26an, inauguratuko dute. 12:00etan izango da ekitaldi ofiziala, eta arratsaldean, 17:30ean, jolasak eta txokolate-jana. "Guk ulertzen dugu erabilera askotariko gune bat izango dela. Eskolako umeendako toki eroso bat izango da; eta balioko du herriko taldeek euren aktibitateak egiteko... edo edozein ekitaldi, bazkari, kontzertu...", azaldu zuen alkateak.

Bidegorri beharra

Herritarrek bidegorrien gainean egindako galdera izan zuen Iturbe alkateak zuzenean. Bidegorriei dagokienez, gaur egun zati bat eginda dagoela eta aurki inauguratuko dutela esan zuen alkateak. "Bestalde, Lapurzubitik San Antoniorako zatian kolektorea joango da, eta hori Jaurlaritzak egin behar du. Ikusten dugu denboran atzera doala, ez dakigu zergatik, baina uste dugu egoera ekonomikoagatik izango dela", gaineratu zuen. "Errekalde eta San Blas artean bidegorri beharra dago; Aldundiari eta Jaurlaritzari egin dizkiegu eginbeharreko eskaerak", esan zuen.

Osakidetza eta gaztetxea

Osakidetzako zerbitzua Torresoroara eroango da; prozesua gehiegi luzatu dela esan zuen alkateak, baina gaineratu du hori ona izan dela Udalarendako, zama finantzarioagatik. "Udalak egin du egin beharreko dena; orain, Jaurlaritzaren esku dago". Urte bukaerarako eskriturak egitea espero du alkateak.

Hala, Osakidetza Torresoroara eramanda, gaztetxea orain Osakidetza dagoen lekura eramango litzateke. Badabiltzala gazteekin lanean esan zuen.

"Baserrietako ur sarea lotzen jarraituko dugu 2011. urtean"

"EAJk ez du arduraz jokatu, eurek onartutako planari uko egin diotelako"

"Jaurlaritzaren zain gaude Osakidetza Torresoroara eramateko"

Antzuolarrak Behobia txikian

Antzuolarrak Behobia Txikiko podiumean izan ziren domekan. Alebin mailan, Peru Rodriguez bigarrena izan zen; Danel Kortabarria, seigarrena; eta Euken Rodriguez 22. sailkatu zen. Irudian, Peru (eskuman) eta Danel (ezkerrean), irabazlearekin.

JONE LARRAÑAGA

Abesbatzak Olaberria eta Pildain omenduko ditu hilaren 28an

Santa Zezilia eguna ospatzeaz gainera, abesbatzak omenaldia egingo die Salbador Olaberria eta Luis Pildaini. Azaroaren 28an izango da: 11:00etan, meza egingo dute Antiguan; horren ondoren, saio txiki bat egingo dute, eta omenaldia dantzari eta txistulariekin. Bazkaria Ongi-etorri jatetxean egingo dute.

Arin Jatetxea

Karta • Plater konbinatuak
Ogitartekoak • Pintxoak

ETXEKO BEREZITASUNAK:
Buztana eta txuleta (zaharrarena).

Enkarguak ere hartzen ditugu.

Astelehenetan eta martitzenetan itxita

Kalebarren 7 • 943 78 62 45
ANTZUOLA

Goian, sari nagusia eskuratu duen argazkia, *Bidaiaz gozatu* izenburukoa. | YOLANDA SILLERO

Yolanda Sillerok irabazi du Udalak deitutako argazki lehiaketa

Aurten 60 argazki jaso dituzte eta Ander Altuna, Daniele lo Presti, Eneritz Urtiaga eta Argi Ormaetxearen argazkiak ere saritu ditu epaimahaiak

EDU MENDIBIL | ARAMAIO

Yolanda Sillerok irabazi du Aramaioko Udalak antolatutako argazki lehiaketa. Sillerok sari nagusia eraman du, 200 eurokoa, *Bidaiaz gozatu* izenburuko argazkiari esker.

Kultura batzordeko kideek osatu dute epaimahaia eta eguaztenean eman zuten sarien berri. 60 argazki jaso dituzte aurten; gutxienez badira hamar urte Udalak udazken partean argazki lehiaketa deitzen duela. Sari nagusiaz gain, urtaro bakoitzeko irudi onena saritu du epaimahaiak: neguko argazki onenaren saria Ander Altunarendako izan da, *Bakardadean* lanari esker; Daniele Lo Presti ere saritu dute *Udaberria* argazkiarengatik; Eneritz Urtiagaren *Argiaren bila* izan da udako argazki onena; eta, azkenik, Argi Ormaetxeak irabazi du udazkenari zegokion saria, *Lañoa* izenburuko argazkiarekin. Urtaro bakoitzeko irabazleak 100 euro jasoko ditu.

Egutegirako irudiak

Aurreko urteetan bezala, saritutako irudiez gain, 2011ko egutegia osatzeko lehiaketara aurkeztutako beste hainbat argazki erabiliko dituzte.

Zuiako lehiaketa

Bestalde, Zuiako Koadrilak antolatutako argazki lehiaketako sari banaketa abenduaren bigarren hamabostaldian egingo dute. Saritutako lanak Murgiako udaletxean daude ikusgai.

TXIRRITOLA

Txirritolaren partxis lehiaketako irabazleak

Txirritola euskara elkarteak antolatuta, partxis lehiaketa jokatu zen aurreko eguenean udaletxean. Helduen artean, Montse Hernando izan zen irabazlea eta Paula Nafarrate eta Adela Elejalde bigarren eta hirugarren tokian sailkatu ziren. Gaztetxoen lehen saria Aitzol Gardokik eskuratu zuen, bigarrena Maddi Avila izan zen eta hirugarren, Idoia Azurmendi. Goiko argazkian, irabazleak eskuratutako sariekin.

Emakumeen aurkako indarkeria salatuko du Zuiako Koadrilak

E.M. | ARAMAIO

Martitzenerako (hilak 23), emakumeen aurkako indarkeria salatzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte Agurainen. Hain zuzen ere, Zuiako Koadrilarekin batera, besteak beste, Araba Errioxako Koadrilak, Aiarakoak eta Añanakoak bertara joateko deialdia egin dute.

Omenaldia eta antzerkia

Ongietorriaren ondoren, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak omenduko dituzte martitzenean Aguraingo Harresi aretoan, 17:30ean. Jarraian, Soledad Felloza aktore uruguaiarrak *Catando maridos* izenburuko lana eskainiko du. Orain dela bi urteko ekitaldi berean egondakoa da Felloza eta orduko emanaldia erabat arrakastatsua izan zen, antolatzaileen arabera.

Autobus zerbitzua doan

Ikuskizunera joan ahal izateko Zuiako Koadrilako Prebentzio teknikari Koldorengana jo dezakezue, 650 47 17 18 telefonoan. Joan-etorria egiteko autobus zerbitzua doan da eta plaza mugatuak daude. Aurretik izena ematea beharrezkoa da.

Karteleko anagrama. | ZUIAKO KOADRILA

Laudion jokatutako saioan huts egin ondoren, Iker Agirre ez da Bertxoko lehiaketako finalean izango

Iker Agirrek ezin izan zuen aurrera egin Bertxoko saioan eta ez da beraz azaroaren 26ko finalean izango. Finala Trebiño sagardotegian jokatuko da eta Manex Agirrek jardungo du gai-jartzaile lanetan. Finalaren aurretik afaria izango da, 20:30ean, eta izenematea 675 70 79 71 telefonoan egin daiteke.

Plan Orokorraren gaineko kontsultak egiteko aukera dago udaletxean, martitzen goizetan

Udalak gogoratu duenez, Plan Orokorraren gaineko kontsultak egiteko aukera dago udaletxean, martitzenero, goizez. Aurrez txanda eskatu beharra dago 945 44 50 16 telefonoan. Plan Orokorra *www.aramaio.org* webgunean eskuragarri dago. Alegazioak abenduaren 13ra arte jasoko dituzte.

'Precious' film saritua gaur kultura etxean eta 'Despereaux kondaira' domeka arratsaldean

Gaur, barikua, *Precious* filma eskainiko dute kultura etxean, 22:15ean. Lee Danielsek zuzendutakoa da eta iazko Oscarretan Mo'nique aktoreak sekundario onenaren saria jaso zuen filmean egindako lanagatik. Domekan, 17:00etan, bereziki haurrei zuzendutako *Despereaux kondaira* eskainiko dute kultura etxean.

Precious filmeko irudi bat. | CINERAMA

Trikitilarien jaian zozketatutako landetxeetako egonaldien irabazleak ez dira agertu oraindik

Aurreko barikuko trikitilarien jaian egindako zozketan, Oskar Arrizabalagak, Dioni Elortzak eta Jaime Carmonak, hurrenez hurren, Athleticen, Realaren eta Irujoren kamisetak eskuratu zituzten. Landetxe baten asteburua igarotzeko hiru sari zozketatu zituzten eta zenbaki sarituak hauek dira:1.752, 223 eta 346.

Buruko osasunaren gaineko hitzaldia iragarri du Alaiak elkarteak datorren azaroaren 30erako

Osasun mentala, nola zaindu izenburuko hitzaldia izango da azaroaren 30ean kultura etxean, 17:00etan. Gaixo mentalen eta haien senideen Asafes elkarteko kideak etorriko dira Aramaiora hitzaldia egitera. Alaiak erretiratuen elkarteak antolatutako ekitaldia da aipatutakoa.

ELGETA

Udal tasak eta zergak %2 igoko dituzte 2011n

Ez da igoerarik aplikatuko ez kiroldegiko zerbitzuetan ez eraikuntza eta obren gaineko zergetan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Udalbatzak aho batez hartu zuen erabakia martitzenean egindako osoko bilkura berezian. Iaz ez bezala, aurten igo egingo dira udal tasak eta zergak; orokorrean %2ko igoera izango da.

Hala, 2011n ondasun higiezinen gaineko zerga eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga %2 gehiago ordainduko ditugu. Bestalde, kanposantuko zerbitzua 10 euro igoko da, eta, Mankomunitateak horrela proposatuta, %1,99 gehiago ordainduko dugu zaborren gaineko zerga.

Udalbatzak, bestalde, ekonomia jardueren gaineko zergan aldaketa bat aplikatzea onartu zuen. Jaitsi egingo dute Udalak kobratzen duen tipoa, baina handitu egingo dute operazio bolumenaren arabera aplikatzen den koefizientea. "Hala, aplikatuko diren zergak operazio bolumenaren araberakoak izango dira", azaldu zuen Oxel Erostarbe alkateak.

Zergek, beraz, gora egingo dute orokorrean, baina badira salbuespenak: ez dira igoko, esaterako, kiroldegiko tasak, instalazio eta obren gaineko zerga, landalurren gaineko zerga eta hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga. Alkateak azaldu zuen datorren urterako inguruko herrietan onartzen ari diren antzerako zerga igoera aplikatuko dela Elgetan ere.

Txostenaren emaitzak

Udal Gobernuak, bestalde, Germunpal etxeak egindako txostenaren emaitzak aurkeztu zituen martitzeneko osokoan. Gomendatzen dute zerga bilketaren inguruko ordenantza bat egitea, eta urtero bonifikazioen eta zerga tipoen gaineko informazioa jendaurrean ipintzea.

Domekan Elgetako lau tontorren bira egingo dute

L.Z. | ELGETA

Ozkarbi mendi taldeak irteera iragarri du domekarako. Hain zuzen, bospasei orduko ibilbidea egitea proposatzen dute: Azkonabiza, Egoarbitza, Aixola, Erdella, Intxorta eta Elgetara buelta. Ozkarbi aurrean egin dute hitzordua, 08:00etan.

Euskadiko bolo txapelketa

Amaitu da Euskadiko hiru txirlo txapelketa. Lasturko taldeko Joseba Lazkanok irabazi du aurten, eta, herriko ordezkariei dagokienez, Sebas Arantzabal 9. geratu da 12 txirlo botata. Aipatzekoa da, bestalde, Xabier Ortuzarrek Azkoitiko jardunaldian egindako marka: 6. txirlo botata 6. postuan amaitu zuen.

Despertar los Sentidos dantza konpainia eta Bergarako musika eskolako neska-mutikoak domekan Espaloian

12:00etan izango da musika emanaldia eta 18:30ean dantza ikuskizuna

L.Z. | ELGETA

Despertar los Sentidos dantza konpainia oso berezia da; izan ere, konpainia gutxi daude ikuskizunak down sindromea duten neska-mutikoekin egiten dituztenak. Aurretik ere Elgetako Kafe Antzokian egondakoak dira, baina oraingo honetan *Barreras* izeneko ikuskizuna ekarriko dute Espaloira. Emanaldia 18:30ean hasiko da.



Despertar los Sentidos konpainiaren emanaldi bat. | DESPERTAR LOS SENTIDOS

Musika ikasleak, eguerdian

Aurretik, 12:00etan, emanaldia egingo dute Bergarako musika eskolako ikasleek. Hiru taldek osatuko dute audizio hori. Lehenengo, biolina *suzuki* metodoaren bitartez ikasten duten neska-mutikoak igoko dira agertoki gainera. 4-10 urte bitartekoak dira guztiak eta tartean izango da Katxalin Otxoa elgetarra. Txistu taldeak eta hari taldeak ere euren emanaldiak egingo dituzte. Sarrera 2 euro da. Elgetako musika ikasleei dagokienez, berriz, abenduaren 30erako ari dira emanaldia prestatzen.

OHARRAK

GAZTAINA-ERRE JANA

Maala guraso elkarteak gaztaina-erre jana iragarri du gaurko. 15:00etan elkartuko dira Herriko Plazan. Euria eginez gero, Herri Eskolako jolastokian egingo dute.

PODOLOGO ZERBITZUA

Azaroaren 25ean izango da Elgetan. Txanda hartzeko, 943 76 80 77 telefono zenbakira deitu.

ODOL ATERATZEAK

Odola eman nahi dutenek aukera izango dute herrian bertan azaroaren 25ean, eguena, 18:00etatik 20:00etara udaletxean.

ZABORRAK BERBAGAI

Gipuzkoako Zero Zabor taldeak hitzaldia egingo du zabor kudeaketaren gainean. Hitzordua azaroaren 24an da, 19:00etan hasita, kultura etxean.

4 T'ERDIKO PILOTA TXAPELKETA

Beste zazpi norgehiagoka

Aste bukaeran beste jardunaldi bat jokatuko da. Urteroko afarirako data ere ipini dute. Parte-hartzaile guztiek afaria egingo dute abenduaren 17an. Izena eman behar da.

GAURKO PARTIDUAK, 20:00ETAN

A. Ibarluzea-A. Telleria / A. Morales-F. Zenitagoia
A. Elortza-O. Zenitagoia / J. Irazabal-I. Etxaniz
L.A. Alkorta-G. Bolinaga / J. Bolinaga-I. Izagirre
D. Peñalver-S. Bouzas / O. Askasibar-E. Elkoro
G. Arrazola-M. Ormaetxea / I. Retolaza-J. Larrañaga

DOMEKAKO PARTIDUAK, 11:00ETAN

K. Goenaga-A. Arantzabal / J.M. Zubiaurre-I. Ugarteburu
K. Erostarbe-E. Garate / O. Erostarbe-G. Arizmendiarrieta

LEINTZ GATZAGA

Artisauen lanek gaur egun garena gogorarazi dute Gatzagan

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

San Milixaneko XVIII. eskulangintzen feriak artisauak izan ditu protagonista beste behin Gatzagan. Feria handia izan barik, esanahi handikoa da: batetik, herri inguru apartekoa delako; eta bestetik, sasoi bateko lanbideekin zeresan handia duelako. Eusebio Villar alkateak eman digu horren berri: "Sarrailagintza Gatzagako atarteetan sortu zen, eta hemendik zabaldu bailarara; ondoren, kooperatibak sortzeko. Hortaz, gaur egun garena hemen sortu da".

Hori horrela, aparteko ahalegina egiten dute feria polita antolatzen. Hamabost postu egon dira –jostailuak, zeramika, pilotak...– eta guztiak ezberdinak: "Ez zeuden bi postu produktu berdinekin, guztiak ezberdinak izatea gura dugulako", dio.

Euskal oihalen erakusketa

Feriarekin batera umeek narrua lantzeko aukera izan dute. Eta Garro jauregian euskal oihalen gaineko erakusketa interesgarria egon da. Artilea ehungailuan lantzen duen Durangoko artisauak euskal oihalik dotoreenak erakutsi ditu, baita Euskal Museoan erakusgai dauden zapi batzuen kopiak ere.

Euskal oihalen erakusketa. | M.A.

NIRE USTEZ

IGOR ARIZMENDIARRIETA

Duela hamar urte

Gaurkoan GOIENA papera berrituan lehendabiziko kolaborazio lana egitea egokitu zait. Hasiera batean, Perurenari pasa den martxoan egindako elkarrizketa famatuaz jarduteko asmoa neukan, baina, egia esan, ez du merezi.

Merezi du, aldiz, gogoratzea duela hamar urte *Goibekokale*-ko hilabetekariaren azken alea kaleratu zela. Azkena; izan ere, gure bailarako euskara elkarteek ibilbide bateratu bat hastea erabaki zuten Goienaren izenpean.

Atzean utzi genituen batzuetan ez zebilen grabagailuarekin egiten genituen elkarrizketak, garai haietarako oso aurreratua zegon Kodak argazki kamera digitala (Elgetan erosi zen lehena?), MAC ordenagailuak, etab. Hainbat jendek jardun genuen bertan: Ana, Iker, Iban, Haritz, Alberto, Jabier, Josetxo, Aitor, Susana, Olaia, Eider S., Eider E., Onditz, Esti R., Esti A.,Gorka, Oxel, Bittor, Maite, Ainara, Jone, Oihana eta kolaboratzaileek. Aldizkarirako lanak, asteburuetan, ahal genuenean edo azken momentuan burutzen genituen. Hantxe egoten zen Bittor denok noiz amaitu zain pazientzia handiarekin dena maketatzeko.

2010ean beste aro bati ekin genion eta badirudi apustu hura, hasierako zalantzak uxaturik, ongi atera zela. Horregatik, zorionak, Goiena, eta ea horrela jarraitu eta proiektua oraindik gehiago sendotzen den.

"Badirudi apustu hura ongi atera zela. Zorionak, Goiena"

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21
20690 ELGETA

SASKIBALOIA

Hondarribia-Irunek Euskal Kopa irabazi du, zortzigarren aldiz

EHUko nesken kontra 82-55 nagusitu ziren Bidasoako neskak, Intxaurtxuetako kantxan

XABIER URTZELAI | ESKORIATZA

Hondarribia-Irun taldearendako izan zen eguazten iluntzean Eskoriatzan jokatu zuten Euskal Kopa. Bidasoarrek zortzigarren aldiz jaso dute garaikur hori, baina horrelako garaipen baten beharrean zeuden, ligan bolada txarrean egonda arnas apur bat hartuko dute-eta. Izan ere, txapelketa horretan Jose Luis Muxikaren taldeak irabazteko baino galtzeko zuen gehiago, beheragoko kategorian dagoen talde baten kontra galtzeak ez zion -eta taldeari batere mesederik egingo.

Alde handia

Unibertsitariek ez zuten inongo momentutan Hondarribia-Irungoen garaipena arriskuan jarri. Bidasoarrek talde erabat profesionala dute, eta kantxan igarri egin zen hori. EHUko taldeak hasierako bostekoa kantxan izanda lortzen zuen lehia parekatua izatea, batez ere Arantxa Novo galiziarraren jokoarekin, baina aldaketak egiten zituztenean taldeak behera egiten zuen.

Atsedenaldian Bidasoakoek 22 puntuko aldea zuten (45-23). Hirugarren laurdenean estutu egin zuen EHUk (59-48), zortzi puntura ere gerturatu ziren, baina ez Hondarribia-Irun ezustean harrapatzeko beste (82-55).

Hondarribia-Irungo Amra Dapo (15 puntu) eta EHUko Arantxa Novok (19 puntu) egin zituzten puntu gehien.

Sari banaketaren ondoren, Hondarribia-Irungo eta EHUko ordezkariek talde argazkia atera zuten. | IMANOL SORIANO

Hondarribia-Irungo Jovana Rad, presio egiten. | I.S.

Tania Quintero, garaikurrarekin. | I.S.

goienakluba"

Abantailaz betetako kluba!

Olentzero & Co musikalerako sarrerak prezio berezian. Nahi?

Sarrerako prezioa: ~~15~~ €

Goiena Klubeko kideentzat*: 10 €

OLENTZERO & CO! MUSIKALA
Eguna: Abenduaren 11n | **Ordua:** 19:30ean.
Lekua: Arrasateko Amaia Antzokia.

Sarrerak erosteko deitu 943 25 05 05 telefonora.

*Kide bakoitzarentzat bi sarrera.

GOIENA KLUBA | Telefonoa: 943 25 05 05 | e-posta: kluba@goiena.com

PIRAGUISMOA

Kayak festarekin hasiko da Beti-Busti taldearen 25. urteurrena ospatzen

Bihar, zapatua, Bideberrin bi txapelketa egingo dituzte, goiz eta arratsalde

XABIER URTZELAI | BERGARA

Beti-Busti piraguismo elkartea 25. urteurreneko ospakizunak antolatzeko lanetan dabil burubelarri, eta ospakizun horien barruan egingo dute bihar 3. kayak festa.

Hala, goizean egingo duten infantil eta alebin mailako txapelketa baliagarria izango da Gipuzkoako txapelketarako –bigarren jardunaldia izango da–, eta arratsaldean 3. eslalom paraleloko txapelketa egingo dute.

Bi zirkuitu

Bi txapelketa horiek egin ahal izateko Beti-Bustiko ordezkariek bi zirkuitu egingo dituzte Debako uretan, Bideberrin, herriaren erdialdean. Aurreko edizioetan moduan, kayak festaren helburuetako bat piraguismoa herritarrei gerturatzea da.

Goizeko txapelketa 10:30ean hasiko dute eta arratsaldekoa, 17:00etan. Hala, arratsaldeko saio horretarako antolatzaileek 30-40 palistaren parte-hartzea espero dute. Ordurako ilun egongo da, eta antolatzaileek 18.000 watteko indarra duten fokuak erabiliko dituzte Bideberriko zubi ondoan egongo diren zirkuitua argiztatzeko.

Piraguistak, aste barruan, entrenamendu saioa hasi baino lehen. | MONIKA BELASTEGI

Kategoriei dagokienez, goizeko saioa gaztetxoenei zuzenduta badago ere, arratsaldean kadeteak, gaztеak eta seniorrak lehiatuko dira, gizonezko zein emakumezkoen kategorietan (K1 eta C1 modalitateetan).

Argazki erakusketak

Ospakizunen barruan egingo dituzte, baita ere, bi argazki erakusketa: lehenengoa oraingo astean egongo da gertu, Espoloiko Hamaika tabernan; bigarrena, aurrerago, Nahikari tabernan.

FUTBOLA

Bergarak Real Union hartuko du bihar eta UDAk Ondarroa etzi

Mahoneroek eta aretxabaletarrek jokatuko dute oraingo astean etxean. Bergarak sailkapenean laugarren dagoen Real Union izango du aurrean (15:30) eta Aretxabaletak puntu kopuru bera duen Ondarroako Aurrera (16:30). Mondrak Oiartzunen eta Aloñak Zumaian jokatuko dute.

SASKIBALOIA

MUk Lizarrara egingo du bidaia domekan; Sustrai Aloña Mendik Loiura bihar

Joan den asteko derbi intentsuaren ostean, asteburuan etxetik kanpora jokatuko dute Lehen Nazional mailan lehian dabiltzan ibarreko bi ordezkariek: Mondragon Unibertsitateak kontrario zuzena izango du domekan (18:00) aurrean, Promociones Legarzia; Sustrai Aloña Mendik Loiun jokatuko du bihar (18:00).

MENDIA

Iñurrategiren berbaldia Arizmendi Topaketen barruan hilaren 25ean

Gizabidea Fundazioak urtero antolatzen dituen Arizmendi Topaketen barruan egingo du berbaldia (18:30, MUko Biteri Eskolako areto nagusian). *Elurpean daude erantzunak* izenburupean, mendizaletasunaz haratago giza balioei buruzko hausnarketa egingo du Iñurrategik.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

LEHEN MAILA
Reala-Atletico Madril
Domeka. 21:00. Anoeta.

GAZTEEN LIGA NAZIONALA
Gernika-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Urbieta.

GAZTEEN EUSKAL LIGA
Eibar-Bergara
Domeka. 18:00. Unbe.

OHOREZKO ERREGIONALA
Zumaiako-Aloña Mendi
Zapatua. 16:15. Zumaia.
Oiartzun-Mondra
Zapatua. 15:30. Oiartzun.
Bergara-Real Union
Zapatua. 15:30. Agorrosin.
Aretxabaleta-Ondarroako Aur.
Domeka. 16:30. Ibarra.

ERREGIONAL PREFERENTEA
Elgoibar-Aretxabaleta B
Zapatua. 15:30. Mintxeta.
Mondra B-Urnieta
Zapatua. 16:00. Mojategi.
Lazkao-Antzuola
Zapatua. 15:30. Arizti Handi.

LEHEN ERREGIONALA
Eibartarrak-Bergara B
Zapatua. 15:30. Unbe.
Soraluce B-Aretxabaleta C
Zapatua. 18:00. Ezozia.

OHOREZKO GAZTEAK
Mondra-Lagun Onak
Domeka. 16:00. Mojategi.
Aloña Mendi-Ondarroako Aur.
Zapatua. 16:30. Azkoagain.

LEHEN MAILAKO GAZTEAK
Aretxab. B-Bergara B
Zapatua. 16:30. Ibarra.
Arizmendi-Eibartarrak
Zapatua. 15:30. Almen.

OHOREZKO KADETEAK
Aretxab Arizmendi-Zarautz
Domeka. 11:30. Ibarra.
Ondarroako Aurrera-Bergara
Zapatua. 16:30. Zaldupe.

LEHEN MAILAKO KADETEAK
Bergara B-Arizmendi UDA
Zapatua. 16:00. Ipintza .
Aloña Mendi-Arrasate
Domeka. 12:00. Azkoagain.
Ilintxa-Aretxabaleta B
Zapatua. 12:00. Bikuña.

OHOREZKO INFANTILAK
Bergara-Dunboa
Domeka. 11:30. Ipintza.
Aretxabaleta-Ariz.-Antiguoko
Zapatua. 12:00. Ibarra.

INFAN. OHOREZKO KOPA
Anaitasuna-Arrasate
Zapatua. 11:15. Azkoitia.
Aloña Mendi-Ondarroako Aur.
Domeka. 10:00. Azkoagain.

EMAKUMEZKOAK
Arizmendi-Anaitasuna
Zapatua. 12:00. Almen.
Mondra-Eibar
Zapatua. 18:00. Mojategi.

EMAKUMEZKOAK, GAZTEAK
Ordizia-Aloña Mendi
Zapatua. 15:30. Altamira.
Antigua-Arizmendi
Domeka. 10:30. Berio.
Eibar-Bergara
Zapatua. 17:30. Unbe.

EMAKUMEZKOAK, F11
Mondra-Aloña Mendi B
Zapatua. 11:45. Mojategi.
Bergara-Ilintxa
Zapatua. 11:30. Ipintza.
Arizmendi-Eibar
Zapatua. 10:00. Almen.

ARETO FUTBOLA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Santurtzi-Eskoriatza
Domeka. 10:20. Santurtzi.

GIPUZKOAKO BIGARREN M.
Allerru-Aretxabaleta
Zapatua. 16:00. Lezo.

GIPUZKOAKO HIRU. MAILA
Aloña Mendi-Umore ona
Zapatua. 12:00. Zubikoa.

GAZTEAK
MCM-Aloña Mendi
Zapatua. 10:15. Marianistas.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELKETA
Soraluce BKE-Atez Ate Usurbil
Zapatua. 18:30. Labegaraieta.
El Pilar-Ford Mugarri Arrasate
Zapatua. 16:30. Gasteiz.

PREFERENTEA, EMAKUME.
Aloña Mendi- La Salle
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

LEHEN TERRITORIALA
Ereintza-Arrasate
Zapatua. 17:30. Errenteria

BIGARREN TERRITORIALA
Izarraitz Aloña-Usurbil
Zapatua. 16:00. Zubikoa

GAZTEAK, GIZONEZKOAK
Bergara-Elgoibar
Zapatua. 15:45. Labegaraieta
Aloña Mendi-Amenabar
Domeka. 12:00. Zubikoa

GAZTEAK, EMAKUMEZKOAK
Bergara Soraluce-Aloña Mendi
Zapatua. 17:00. Labegaraieta.

KADETEAK, GIZONEZKOAK
Talleres Chapime Arr.-Urola
Domeka. 11:00. Iturripe.
Soraluce BKE-Tolosa
Zapatua. 12:30. Labegaraieta.
Berezao Aloña-Arrate
Domeka. 10:30. Zubikoa.

KADETEAK, EMAKUMEZKO.
Aloña Mendi A-Urnietako
Zapatua. 16:00. Zubikoa.
Aloña Mendi B-Ereintza
Zapatua. 17:30. Zubikoa

SASKIBALOIA

LEHEN NAZIONAL MAILA
Promociones Legarzia-MU
Domeka. 18:00. Lizarra.
Urdaneta-Sustrai Aloña Mendi
Zapatua. 18:00. Loiu.

SENIOR GIZONEZKOAK
Irun-MU
Zapatua. 20:00. Irun.

SENIOR GIZONEZK. 2. MAILA
Sustrai Aloña Mendi-Baskopla.
Domeka. 16:00. Iturripe.
Aldane Irun-Soraluce BKE
Domeka. 11:45. Irun.

SENIOR EMAKUMEZKOAK
Eskoriatza-Bera Bera Balda
Zapatua. 18:00. Intxaurtxueta.

GAZTE GIZONEZK. PARTAID.
Aloña Mendi-Soraluce BKE
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

GAZTE EMAKUMEZK. PARTA.
Aloña Mendi-Bera Bera
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

KADETE GIZONEZK. ERREN.
MU A-EPI kristaldegia ISB
Gaur. 20:00. Musakola.

KADETE GIZONEZK. PARTAI.
Soraluce BKE-Colchones Ats.
Domeka. 12:15. Labegaraieta.

KAD. EMAKUMEZKOAK, ER.
Bera Bera-Eskoriatza
Zapatua. 18:00. Donostia.

KAD. EMAK. PARTAIDETZA
Colchones Atse.-Soraluce BKE
Zapatua. 09:30. Ordizia.

INFANTIL GIZONEZKOAK
Soraluce BKE-Zarautz
Domeka. 10:45. Labegaraieta.
LEK Ointxe-Easo 97
Zapatua. 12:00. Musakola.

INFANTIL GIZON. PARTAIDE.
Soraluce BKE-Antoniano
Domeka. 12:15. Labegaraieta.
LEK-LEK Arrasate
Zapatua. 10:30. Musakola.
La Salle-Aloña Mendi
Domeka. 11:00. Zarautz.
Lizardi-Servimasa BKE
Zapatua. 12:00. Zarautz.
Aloña Mendi-ISB Taberna
Domeka. 12:00. Zubikoa.

ERRUGBIA

SENIORRAK, EUSKADIKO T.
Gernika B-Kanpanzar Arrasate
Zapatua. 18:30. Urbieta.

EMAKUMEZKO SENIORRAK
Gaztedi-Arrasate/Durango
Zapatua. 16:00. Gasteiz

Zure bataio, jaunartze edota ezkontza ospakizunendako aproposa

CALIDAD TURISTICA

leku eta egun ahaztezinak

Etxe Aundi
Jatetxea-Hotela**
Torre Auzo 9. OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 19 56
www.etxeaundi.com

4. KONTZERTUA

azaroak
26
EGUBAKOITZA
22:30
ELGETAKO KAFE ANTZOKIA

SARRERAK ETA ABONUAK //
SALGAI DAUDE:
1> GOIENAKO EGOITZETAN
2> 943 25 05 05 ZENBAKIAN
3> ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN

SARREREN SALNEURRIA 5 EURO //
GAZTEKUTXAREKIN 3 EURO
ABONUA 22 EURO //
GAZTEKUTXAREKIN 12 EURO

XARMA
ONDARRU
DEABRUTU
ARAMAIO
SEAFÓID
EIBAR
SCAM
ARETXABALETA

DANBAKA
IV. MUSIKA LEHIAKETA
DEBABARRENA DEBAGOIENA DURANGALDEA

www.danbaka.com

BABESLE NAGUSIA
kutxa gazte

LAGUNTZAILEA
PREST
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Elgetako Udala
gaztelupeko HOTSAK www.hotsak.com
SHOT! grabaciones
PIL-PILEAN
B BARREN
eta kitto! Euskara Elkartea
GAURKO grupo SEIN taldea
GANESHA TATTOO ARRASATE
laino SKATEPARK
anboto komunikabideak
drogetenitturri

ANTOLATZAILEAK
goiena
KAFE ANTZOKIA espalola ELGETA

KULTURA

Kase.O zuzeneko emanaldi baten. Violadores del Verso taldeko kantaria Elgetan izango da zapatuan, Kase O. Jazz Magnetism taldearekin.

GEMA DARBO

Kase.O | Kantaria

"Gorrotoa beharrean, nahiago dut hitzetan maitasuna aldarrikatu"

▸ Euskal Herrian eskainiko duten kontzertu bakarra zapatuan Espaloian
▸ Hip-hopean eta jazzaren tradizioan oinarritutako ikuskizun musikala da

EDU MENDIBIL | BERGARA

Violadores del Verso taldeko Javier Ibarra (Zaragoza, 1980) Kase O. Jazz Magnetism taldearekin dabil aspaldi honetan. Bihar, zapatua, emanaldia egingo dute Elgetako Espaloia Kafe Antzokian, 22:30ean. Pirinioetan, Ainsan entseatzen ari zirela, martitzenean hitz egin genuen Kase.O-rekin. Telefonotik, Aragoiko azentua eta energia izugarria antzematen zaizkio.

Jazza da ikuskizunaren oinarria, ala?

Jazzaren tradizioan eta hip-hopean oinarritutako ikuskizun musikala da Elgetara ekarriko duguna, baina rockak, bluesak eta funkak ere euren tartetxoa daukate... Bi urte daramagu elkarrekin eta gustura ari gara.

Nola hasi zen elkarren arteko kolaborazioa?

Zaragozan izan zen, hango jazz zirkuitu baten. Raperoak parte hartzen hasi ginen eta poliki-poliki jendea ezagutu nuen... Horrela, Hugo Astudillo saxo-jotzaileak Bartzelonara gonbidatu ninduen; Meeting Point taldean ibilitakoa da eta bazuen hartu-emana gainerako taldekideekin: Daniel Comas gitarra (Grove Station), Juan Pablo Balcazar kontrabaxu eta baxu elektrikoa (The Heckler taldeko liderra) eta Dani Dominguez bateria (Llibert Fortuny eta beste talde askotan ibilitakoa). Egia esan, magia egiten dute musikarekin, eta hortxe nabil, ikasteko ahaleginetan... Musika kultura izugarria daukate eta alde horretatik zorteko naiz, *Dream team*-ean jokatzea moduko esperientzia izaten ari delako.

Jazz musikarien artean zeintzuk dira zure kuttunenak?

Asko daude: Bob James pianojotzailea, Oscar Peterson kanadiarra (lagun moduko bat ia-ia), John Coltrane, Miles Davis, Herbie Hancock...

Zure diskografian jazzeko disko mordoa ei dituzu...

Bai, diskografiaren erdia musika beltzak osatzen duela eta beste erdia jazzekoa dela esango nuke.

Eta disko bakar bat nabarmentzekotan?

Bob Jamesek 1974an kaleratutako *One* izenburuko diskoa.

Nondik dator Kase.O gaitzizena?

Aspaldikoa da, 1990eko hamarkadaren hasierakoa, paretatan marrazten hasi nintzenekoa. Hizki horiek ziren ondoen marrazten nituenak eta horrela osatu nuen gaitzizena, besterik barik. Baina grafitiak gauza serioa dira eta ez nuen inoiz egitera ausartu. Ez, ez naiz Banksy izatera iritsi...

Hitzekin jokatzea, berriz, txikitatik egin ei duzu...

Bai; anaia zaharrari rapa gustatzen zitzaion eta hari esker hasi nintzen. Poesia, irakurketa orokorrean, atsegin nuen, eta horrela zaletu nintzen...

Zein da inprobisatzeko beharrezko dohaina?

Lehenik eta behin, lotsarik ez izatea eta beldur eszenikoa gainditzea. Eta hortik aurrera, nola ez, lexikoa zenbat eta aberatsagoa izan, ba askoz hobe... Errima artxiboak osatzeko ezinbestekoa da. Eta praktika, jakina... Nik ez dut askorik praktikatzen, ez nabilelako inprobisazio perfektu horren atzetik.

Bertsolarien berririk baduzu?

Bai, zertxobait bai. Ikaragarria da. Hip-hoparen antzeko zerbait egiten dutela esango nuke, txapela kentzeko modukoa. Gaztelaniaz ere ez da batere erraza inprobisatzea, e?

Emanaldien aurretik prestaketa berezirik egiten duzu? Baduzu maniaren bat?

Ez, tipikoa. Lasai egotea atsegin dut, kontzentratuta. Eta baditut hitz edo esaldi batzuk nire buruari esateko... Baina trankil asko hartzen ditut garagardo batzuk taldekideekin agertokira irten aurretik.

Zeri buruzkoak dira hitzak?

Une oso positiboan nago eta amodiozko hitzak dira nagusi. Gorrotoa beharrean, nahiago dut maitasuna aldarrikatu. John Coltranek badu *A love supreme* izeneko lana. Ba horri abesten saiatzen naiz, lotsarik gabe, eta ikusleengan heldu nahian.

Orain, zer ari zara irakurtzen?

Walt Whitman poeta estatubatuarra. Poesia asko irakurtzen dut. Nerudaren *Libro de las preguntas* ere ikaragarri gustatu zait; *La sombra del viento* (Ruiz Zafon) eta *El conde de Montecristo* (Alejandro Dumas) eleberriekin ere asko gozatu dut; eta baita *El mundo amarillo* liburu bitxiarekin ere. Alberto Espinosak idatzitakoa da eta gaixo egon zeneko bizipenak edo aurkikuntzak jaso ditu bertan. Guztiz gomendagarria.

Aizu, Aragoiko azentu horri zuzenekoetan ere eusten diozu?

Noski. Naizen bezalakoa azaltzen naiz agertokian. Errezitatzen edo hizketan nagoenean azentua antzematen zait.

"Bi urte daramagu eta 'Dream team'-ean jokatzea bezala izan da"

"Anaia zaharrari rapa gustatzen zitzaion eta hari esker hasi nintzen"

"Naizen bezalakoa azaltzen naiz agertokian, besterik gabe"

Raperoa, jazzean sartuta

Kase.Ok 30 urte baino ez ditu, baina dagoeneko ibilbide luzea egin du musikan. MC onenetakoa dela erakutsi du, eta, Violadores del Verso taldearekin kaleratutako lanez gain, hortxe daude Albert Pla, La Mala Rodriguez eta Soziedad Alkoholikarekin egin dituen kolaborazioak. Jazz ibilbidea ixteko asmoa du datorren urtean, disko bat grabatuta, eta rapera itzultzeko gogoz dagoela diosku.

Rocka, punka eta metala nagusi Danbakaren hirugarren emanaldian

Doctors Klub, Rombos Negros, Karpovian Projekt eta Ez! igoko dira Espaloiko oholtzara

MIRIAN BITERI | ELGETA

Danbakako IV. edizioak aurrera segitzen du. Gaur, egubakoitza, gauean musika kontzertuak izango dira Elgetako Espaloia Kafe Antzokian. Oraingoan, honako talde hauek igoko dira agertoki gainera: Abadiño eta Durangoko Doctors Klub, Bergarako Rombos Negros, Mutrikuko Karpovian Projekt eta Oñatiko Ez!

Ohikoa den moduan, 22:30ean hasiko da musika emanaldia. Bizkaitarrak izango dira jotzen lehenak. Rock musika taularatuko du boskoteak, euskaraz eta ingelesez egindako kantuen bidez. Jarraian, punk-rockaren txanda iritsiko da, Rombos Negros hirukote bergararraren eskutik. Mutrikuko Karpovian Projektekoek, ostera, rock-metal progresiboa eskainiko diete Espailoira joaten direnei. Eta amaitzeko, Oñatiko Ez! taldekoak igoko dira agertoki gainera.

Tatuaje-bonu baten zozketa

Aurrekoetan bezala, hirugarren emanaldi horretan ere saria zozketatuko da egubakoitz gauean Espaloian batzen direnen artean. Oraingoan Arrasateko Ganesha tatuaje-dendako tatuaje-bonu bat irabaziko du Danbaka lehiaketako zale batek. Zozketa Karpovian Projekt eta Ez! taldeen emanaldien artean egiteko asmoa dute antolatzaileek.

Bestalde, kontzertuetarako sarrerei dagokienez, gogora ezazue Gaztekutxarekin salgai daudela, hiru euroren truke. Espaloiko leihatilan bertan hartzea nahiago dutenek bost euro ordaindu beharko dituzte.

Doctors Klub | Abadiño eta Durango

Abadiño eta Durangoko Iraultzak, Jonkolek, Ehiarrek, Aritzek eta Urtzik osatzen dute Doctors Klub taldea. Orain dela bi urteko udan elkartu ziren Aritz eta Urtzi lehenengoz Tabira parkean, ilargipean inprobisatzeko asmoz. Bi abesti eginda zituztela, Iraultza batu zitzaien erritmo psikodelikoekin baterian, eta Jonkol bere punteatzearekin. Azkenik, Ehiar sartu zen taldera. 2009an euskaraz eta ingelesez abestutako zortzi kantu grabatu zituzten euren kontura lokalean.

Rombos Negros | Bergara

Rombos Negros hirukotea 2004ko udaberrian sortu zen. Navak (gitarra eta ahotsa) eta Emborujok (bateria) jarri zuten proiektua martxan, Gasteizen. Handik hilabete gutxira, Bergarako Mikel (baxua) sartu zen. Punk-rock musika egiten dute eta gaztelaniaz abesten dute. Hirukote horrek ez du gaur egungo gizarte edo politikaz jarduten; bizitzan zehar pasatutakoekin egiten dituzte abestiak, eta horiei originaltasun ukitua ematen saiatzen dira.

Karpovian Projekt | Mutriku

Egubakoitzean Espaloiko oholtza gainera igoko den hirugarren talde horrek rock-metal progresiboa egiten du. Zenbait kidek elkarrekin aspalditik jotzen badute ere, 2008 urteko abuztura arte ez zen elkartu gaur egun taldea osatzen duen boskotea: hain justu ere, Beñat (ahotsa), Aner (gitarra), Iker (gitarra), Iñaki (baxua) eta Aymar (bateria). Euskaraz abesten duen talde horrek Mutrikuko Udalak utzitako lokaletan entseatzen du.

Ez! | Oñati

Rock estiloko talde hori 2007ko irailean sortu zen. Honako musikariek osatzen dute: Lasa, Mikel, Beñat eta Josuk, hain justu. Lehenengo kontzertua Arrasateko Gure Leku tabernan eskaini zuen laukoteak eta orduz geroztik 20 kontzertu inguru eman ditu; gehienak Debagoienean eta inguruko herrietan. Lorentzo Recordsen izan dira orain dela gutxi, Berrizko estudiora, Aitor Ariñorekin diskoa grabatzen. Lan horretako abestiak entzun ahal izango dira egubakoitzean..

KONTZERTUA

Noiz: Gaur, egubakoitza, 22:30ean.
Non: Elgetako Espaloia.
Sarrera: 5 euro; Gaztekutxa, 3 euro.

ELGETAKO espaloia KAFE ANTZOKIA

KASE. 0
JAZZ MAGNETISM

Non: Espaloia Kafe Antzokia.
Ordua: 22:30ean.
Eguna: Azaroak 20, zapatua.
Sarrerak: 18 eta 15 euro.
Sarrerak on-line (15 € + 1,5€)

Kafe antzokia - Maala 2 ELGETA - 943 78 90 85

Debagoieneko bi bikote euskal kantu txapelketako finalean domekan Donostian

Maialen Arratibel eta Eneritz Urrutia arrasatearrak eta Josu Zubia eta Itsaso Pol oñatiarrak

EDU MENDIBIL | BERGARA

Domekan, Gipuzkoako 14. euskal kantu txapelketaren finala jokatuko da Donostiako Antzoki Zaharrean, 18:00etan, eta Debagoieneko bi bikote lehiatuko dira bertan: Maialen Arratibel eta Eneritz Urrutia arrasatearrek osatutakoa, batetik, eta Oñatiko Josu Zubia eta Itsaso Polena, bestetik.

Finalera iritsi baino lehen bi kanporaketa jokatu dira, lehena Azkoitian eta bigarrena Urretxun, aurreko domekan. Bakarlari, bikote eta taldeak kontuan hartuta, 26 artista izan dira lehian eta finalerako 16 sailkatu dira.

Josu Zubiak (16 urte) eta Itsaso Polek (17 urte) *Zutaz gogoratzean* izenburuko kantua eskainiko dute finalean. Josu Zubia egilearen arabera, maitasun abestia da, hildako pertsona bati idatzitakoa. Itsasok eta Josuk gitarraren laguntzaz jardungo dute Antzoki Zaharrean.

Eneritz Urrutia (20 urte) eta Maialen Arratibel (18 urte) arrasatearrendako, domekakoa bigarren finala izango da. Iazko ekitaldian bigarren saria eskuratu zuten Mikel Urdangarinen *Urrun izan arren* kantuari esker. Orain-

Josu Zubia eta Itsaso Pol oñatiarrak. | KANTUZALEEN ELKARTEA

Maialen Arratibel. | KANTUZALEEN ELKARTEA

Eneritz Urrutia. | KANTUZALEEN ELKARTEA

goan ere zornotzarraren errepertorioari eutsi eta *Badira hiru aste* abestuko dute finalean. Urretxuko saioan eskuratu zuten finalerako txartela. Maila handia dela eta finalean sariren bat irabaztea zaila izango dela esan digu Arratibelek. Kantu zaletasuna sustatzeaz gain, txapelketaren helburua sortzaile berriei bidea irekitzen laguntzea da. Alde horretatik, bereziki baloratzen dituzte sorkuntzako abestiak; finalean zortzi dira sorkuntza lanak.

Ibarreko bi lagun diskoan

Bestalde, domekako finalean, iazko kantu txapelketan aurkeztutako abesti berriak eta saritutakoak batzen dituen diskoa aurkeztuko dute. Bea Asurmendi arrasatearra dugu diskoan parte hartu dutenetako bat, eta, hain zuzen ere, *Mende bat* abestia interpretatuko du domekako aurkezpenean. Amy Kerkhof bergararraren kantu bat ere jaso dute diskoan. *Kantagintzaren uhin berria* Elkar dendetan salgai jarriko dute hurrengo astetik aurrera. *www.kantuzale.net* webgunean ere eskura daiteke.

Fermin Etxegoienek Euskadi saria jaso du

E.M. | BERGARA

Donostiako Kursaalen martitzenean egindako ekitaldian, Fermin Etxegoien kazetari eta idazle oñatiarrak euskarazko Euskadi literaturako saria jaso zuen, *Autokarabana* eleberriagatik. Etxegoienek gaztelaniaz hasi zuen hitzaldia Kursaalen, euskaraz berba egiten dutenak gogoan izateko: "Sari hau eskaintzen diet euskaraz hitz egiten duten guztiei, eta horrela egiteak zein esfortzu eskatzen duen ohartzen direnei". Euskarara jo zuen jarraian, Jaurlaritzari galdera zuzena plazaratzeko, eta Patxi Lopez lehendakaria eta Blanca Urgell Kultura sailburua bertan zirela, hauxe galdetu zuen: "Ari al da gobernu hau segurtasunik ematen euskaldunoi, besteak beste, modu subliminalak erabiliz? Beharbada, bai. Izan ere, ari bada, gu ez gara momentuz enteratu". Eskertu beharreko pertsonen artean, bereziki Jose Anjel Irigarai izan zuen gogoan idazle oñatiarrak: "Nire letretako ibilbide honetan ezinbestekoa izan den pertsonaia delako".

Jon Davila | Aktorea

"Grabazioek denbora luzea kentzen didate, baina oso gustura nabil; argi daukat hau dela nire mundua"

Jon Davila, Loramendi elkartearen egoitzako balkoian.

JOKIN BEREZIARTUA

JOKIN BEREZIARTUA | ARETXABALETA

Gaztea da, oso gaztea, baina argi dauka haren mundua ikuskizunarena dela. 14 urte ditu, eta txiki-txikitatik antzerki eta interpretazioaren munduak izugarri erakartzen du Jon Davila (Aretxabaleta, 1996). Egun, ikasketak pelikula baten grabazioekin bateratzen ditu eta modelo lanak egiteko ere deitu dute. Arelarre Aretxabaletako antzerki taldeko kide da, astero entseatzen dute Loramendi elkarteko lokalean. Bertan egin dugu hitzordua harekin.

Noiz ezagutu zenuen antzerkiaren mundua?

Aretxabaletako ludotekan ezagutu nuen antzerkia, 3 urterekin -edo. Gero, eskolako antzerki tailerretan ere hartzen nuen parte. Hau da, txiki-txikitatik gustatu izan zait interpretazioaren mundua.

Gero, antzerki taldea sortu nuen, lagun batzuekin batera.

Antzerki talde bat sortu zenuela diozu. Noiz? Ze talde?

Duela urte eta erdi inguru jaio zen taldea. Arelarre du izena eta bederatzi kidek osatzen dugu. Astean behin, egubakoitzero, elkartzen gara Loramendi elkarteko lokalean.

Eskaini duzue ikuskizunik?

Nafarroan eta Gasteizen antzeztu izan dugu, eta oraindik ere noiz edo noiz deitzen digute. Horretaz aparte, herriko jaietan ere egin izan dugu ikuskizun txikiren bat.

Antzerkitik zinemarako jauzia ere egin duzu dagoeneko. Pelikularen baten diharduzu, ezta?

Iaz pelikula baterako *casting*-era aurkeztu nintzen eta hortik beste pelikula baterako deitu ninduten. Pelikula horretarako Bilbon egiten dut lan.

Zein da pelikularen argumentua?

Arazo batek bizitza aldatu dezake da pelikularen izenburua. Pelikulako protagonista nagusia naiz ni eta honakoa da argumentua: nire aitak arazoak ditu alkoholarekin eta nik aitarengandik tratu txarrak sufritzen dituen semea naiz. Hau da, tratu txarrak jasotzen dituen mutil baten gorabeherak kontatzen dira. Hori da pelikularen abiapuntua, hortik aurrera ezin dut gehiagorik esan...

Publiko guztiarendako da egokia, eta oso interesgarria.

Noiz ikusi ahalko da?

Atzerapenak izan ditugu, arazo batzuk izan direlako. Hala ere, Gabonetan estreinatuko da Bilboko areto baten –orain bertan ez dut izena gogoratzen...–. Horrez gain, ETBn emango dutela entzun nuen, baina ez dakit ziur. Laster azalduko didate, baina, egia esan, horrek, orain, ez nau askorik kezkatzen.

Zure debuta da, beraz.

Ez. Orain dela urte batzuk pelikula bat egin nuen Pirritx eta Porrotxekin: *Zatoz jolastera.*

Hortaz, oso gaztea zara, baina baduzu esperientzia. Zein da aktore izatearen alderik txarrena?

Asko gustatzen zait eta, oraingoz, oso gustura nabil. Hori bai, denbora luzea kentzen dit, batez ere ikasketei begira. Iaz zenbait arazo izan nituen ikasturtea aurrera ateratzeko: azken ebaluazioan hainbat azterketa izan nituen eta grabazioak pilatu egin zitzaizkidan. Nahiko estresagarria izan zen, egia esan. Baina orain, hobeto antolatzen naizenetik, ondo daramat. Hala ere, egia da alde batetik bestera nabilela eta batez ere grabazioek denbora luzea kentzen didatela.

Gertukoek animatu egiten zaituzte zure ametsarekin jarraitzeko?

Etxean argi utzi didate lehentasuna ikasketak direla, baina hortik aurrera asko lagundu didate; hasieran arazotxo batzuk izan arren, orain ondo bateratzen ditut ikasketak eta aktore lanak.

Lagunek, bestalde, asko animatzen naute eta hori oso garrantzitsua da niretako.

Etorkizunean aktore izaten jarraitzeko asmoarekin?

Badakit bidea ez dela erraza izango, baina argi daukat hau dela gustatzen zaidana.

Aktore lanez gain, modelo moduan ere diharduzu, ezta? Kontaiguzu.

Bai, hala da. Lan horretan ere Bilbon dihardut. Duela hilabete eskas deitu zidaten eta pasarela gainean ibiltzen ikasten ari naiz, hastapenetan.

MARRA AZKARREZ

Ikasketak: DBHko 3. maila.

Musika talde bat: Pignoise.

Pelikula bat: *La última canción*, Julie Anne Robinson zuzendariarena.

Liburu bat: *Jara*, Jasone Osoro idazlearena.

Etorkizunerako erronka bat: Ikuskizun munduan aurrera egitea.

Amets bat: Aktore izatea.

Zaletasunak: Antzeztea eta lagunekin egotea.

Bisitatzeko leku bat: Venezia.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate. Erdialdean 65 metro koadroko etxebizitza salgai. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Berriztu berria. 20:00etatik aurrera deitu. 603 79 60 95

Arrasate. Erguinen 47 metro koadroko etxebizitza salgai. Egoera ezinhobean. Berokuntzarekin. Jantzia. Bizitzera sartzeko moduan. 148.000 euro. 649 70 33 83

Arrasate. San Josepe. 47 m koadro, 2 logela, komuna, sukaldea, egongela, trastelekua. Igogailua. Ekialdera ematen du. Etxabea da eta erreformak behar ditu. Kontaktua: etxerakomodukoa@gmail.com.

Oñati. Etxebizitza salgai Bakardadeko Ama kalean. Sukaldea, egongela, bi logela eta komun bat. 264.000 euro. Garaje itxia aukeran, 35 metro koadrokoa, argi eta ur instalazioarekin. 66.000 euroan. Deitu 659 72 06 64 telefonora.

103. ERRENTAN EMAN

Anbotoko magalean asteburuetarako borda ematen da errentan. 14:30etatik aurrera deitu. 620 10 52 63

Arrasate. Altamiran, Jose Luis Iñarra kalean, hiru logelako etxebizitza ematen da errentan.639 96 01 21

La Mongie. Etxebizitza ematen da errentan. Denboraldi osorako edo asteburuetarako. 2 edo 4 pertsonarentzako. Pistatik gertu. 606 39 70 81

Luz Saint-Sauveur. 55 metro koadroko duplexa ematen da errentan Luz erdigunean. Neguko denboraldi osorako. 6 pertsonentzako. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 665 70 04 87 edo 671 07 12 48

Oñati. Lau logelako etxebizitza ematen da errentan erdigunean. 663 69 31 16

Oñati. Plazatik 100 metrora 80 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. 450 euro hilean.687329957

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Pertsona arduratsuak etxebizitza txikia hartuko luke errentan. Presazkoa da. 666218895

Arrasate. Arrasatear neska langile eta arduratsuak, etxebizitza hartuko luke errentan Arrasate erdialdean. 500 euro arte ordainduko nuke. Mila esker. Iraia. 606744237

Bergara. Bikote batek etxebizitza behar du errentan. 610 62 65 04

Debagoiena. Etxebizitza behar dut errentan. Arrasaten, ahal bada. Hilean asko jota 500 edo 600 euro ordain dezaket. 639 94 48 65

105. ETXEAK OSATU

Arrasate. Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu alokagai Arrasaten. 630713583

Arrasate. Logela ematen da errentan. Deitu 18:00etatik aurrera. 943 53 21 62

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje itxia, 20 metro koadrokoa, errentan eman edo saltzen da Uarkapen. Deitu 943 24 53 57 edo 615 73 98 30 zenbakietara.

Arrasate. Garaje itxia ematen da errentan erdigunean. 24 metro koadro (8,40x2,85). Roneoko etxeetan. Interesatuok zenbaki honetara deitu: 616 15 63 73

Bergara. Garaje itxia ematen da errentan Kruz Gallastegi kalean. Bigarren solairuan, 25. zenbakia. Interesatuok deitu zenbaki honetara eta Estherrengatik galdetu. 665 70 66 73

204. ERRENTAN HARTU

Oñati. Garajea hartuko nuke errentan San Juan Kalean guruan. Berdin da itxia izan ala ez. 627 62 12 55

3. LOKALAK

301. SALDU

Bergara. 180 (90+90) metro koadroko lokala salgai Labegaraietan.Bista ikusgarria. Goiko pisua bulegotarako egokitua. Prezioa:130.000 euro. Deitu 627 53 78 61 edo 627 53 78 62 zenbakietara.

302. ERRENTAN EMAN

ARRASATE
Taberna ematen da errentan.
Arratsaldez deitu.
662 66 34 20

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Baserriko lanak egiteko eta pertsona heldu bat zaintzeko pertsona/bikote bat behar da Arrasaten. Baserrian bertan bizi izateko baldintzarekin. 635 20 77 91

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume euskalduna gertu orduka plantxa zein garbiketa lanak egiteko edo ume eta nagusiak zaintzeko. 699541727

Arrasate. Neska euskalduna gertu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Esperientziaduna. 659 81 59 15

Arrasate edo Bergara. Mutila gertu zerbitzari, sukalde laguntzaile, nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko. Esperientziaduna. Legezko paperak dauzkat. 666 84 17 05

Arrasate edo Bergara.. Neska gertu nagusiak zaindu, garbiketa, sukalde laguntzaile. Legezko paperak eta informeak dauzkat. Esperientziaduna. 659 37 41 95

Bergara. Esperientziadun neska umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Deitu 665 75 41 32 telefonora.

Bergara. Umeak zaindu eta etxeko lanak egiten lan egingo nuke. 665 75 41 32

Bergaran. Bergaran lana egingo nuke. Administrazioan 18 urte baino esperientzia gehiago. Seriotasuna. 615 71 99 39

Bergara. Esperientziadun neska etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko gertu. 665754132

Bergara. Emakume euskalduna gertu umeak zaintzeko. Haurtzaintza titulua eta esperientzia daukat. Deiotu 688 65 30 62 telefonora eta Arantzazurengatik galdetu.

ZURE IRAGARKIAK

IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.

Egubakoitzean + Astelehenean: 20,5 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 21 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 28 € (+BEZ).

Debagoiena. Gizona gertu edozein lan egiteko. Deitu 646 27 70 46 telefono zenbakira.

Debagoiena. Emakumea gertu manikura eta pedikura egiteko. 12 euro. Deitu 654 79 07 58 telefono zenbakira.

Debagoiena. Emakumea gertu asteburuetan lan egiteko, garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzen. Deitu 699 09 46 26 telefonora.

